innobasque
berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación

1. txostena
2013

# Berrikuntza, oinarrizko osagaia



Basque Culinary Center-en diseinua

# INNOBASQUEREN BALIO-EKARPENA




**Balio ukiezinaren bilakaera**

| | Ezagutzaren sorkuntza | Esplizitu egitea Ezagutza | Sentsibilizazioa eta zabalkundea | Eraldaketa |
|---|---|---|---|---|
| 2010 | % 51 | % 13 | % 23 | % 13 |
| 2011 | % 43 | % 15 | % 25 | % 17 |
| 2012 | % 19 | % 17 | % 29 | % 35 |

**Jarritako Balioa guztira**




* Deloitte metodologian oinarrituriko 1., 2. eta 3. urratsen azterketa
4. urratsaren azterketa, Nonaka eta Takeuchi, 1995 ereduan oinarritua

innobasque

# Aurkibidea


Editoriala 4-5

2 minututan 6-7

Seihilekoko protagonistak 8-13

## Berrikuntza-sistema 14-21

- Gobernu-organoak
- Berrikuntzaren ebaluazioa eta behatokia
- I+G+b Sistemaren nazioartekotzea
- Berrikuntza sozialaren koordinazio-unitatea
- Berrikuntza politika publikoetan

5 gako ... 22-23

## Dinamizazioa 24-43

- Ekonomia Ekoberritzailea Dinamika
- Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea Dinamika
- Enpresak Azeleratzailea Dinamika
- Laugarren Sektorea Dinamika
- Berrikuntza sareak

Hau partekatu nahi dut 38-39

## Sozializazioa 46-57

- Innobasqueren Astearteak
- Openideiak
- Berrikuntza-eskola
- Diplomazia berritzailea
- Innocampus, berrikuntza-harrobia
- Bazkide-programa

Innobasque medioetan 58-61

Seihilekoko argitalpenak 62-65


**BASQUE CULINARY CENTER**-ek diseinatu du Innobasqueko bazkide guztientzat seihilekoko txosten honen azala

# Berrikuntzaren zirkulu bertutetsua

Berrikuntza mundu zabalean zehar aktibo eta egoera onean dago. Eta ez hori bakarrik, itxuraz lirudikeenaren aurka, I+G+b-ko inbertsio-mailak mundu guztian 2008an lortutakoak gainditzen hasiak dira. Hala adierazten da Berrikuntzaren Mundu Indize (Insead) hedatu berrian, zeinek azpimarratzen baitu sarritan oharkabean geratzen den fenomeno bat: berrikuntza-dinamikak tokiko mailan ari dira gertatzen, berrikuntza-sistema originalak sortaraziz, zeinek jartzen baitute auzitan aurreko ekimen arrakastatsuak imitatzeko ohiko joera. Toki-mailako berrikuntza sustatzeko abantaila lehiakorretan, tokiko historian eta kulturan tinko oinarritutako estrategiak ezartzea beharrezkoa da, zeinek fokapen globala batekin batera, nazioarteko merkatuei ekitea ahalbidetzen baitu. Eredu hori ez da oso desberdina Innobasquen berrikuntzari ekiteko erabiltzen dugun moduarekiko, helize laukoitza deitzen denaren bitartez, hau da, ingurune horietan batera lantzen dira zientzia eta teknologiako barrutiak, enpresa, administrazio publikoa eta gizartea. Eragile horien artean ezartzen den elkarrekintzak kohesioa eta lankidetza-prozesuak ahalbidetzen ditu, bai eta interesen lerrokatzea ere ikuspegi global batetik sorkidetza-dinamiketara iristeko, sinergiak sortzea eta adimen kolektibo baliagarria sortzea ahalbidetzen dutenak. Dinamika horiek beren maila gorena lortzen dute aurkitzen diren ingurunea blai egiten dutenean eta berari esker beren burua berrelikatzen dutenean. Hartara, berrikuntzak berrikuntza gehiago eragiten du zirkulu bertutetsu bat eraginez.

Helburu hori lortzeko, Innobasquek mila bazkide baino gehiago ditu, Euskadiren eraldaketarekin konprometitutako mila erakunde berritzaile, gure lurralde txikia berrikuntzaren herrialde bihurtu nahi dutenak. Hala jakinarazi genion geure Lehendakariari Innobasqueren ohorezko presidente izatea onartu zuenean, zeinen presidenteordetzaren jabe baita joan den maiatzetik Arantza Tapia Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuordea. Hartara, euskal exekutiboak bere konpromiso sakona erakusten du berrikuntzarekiko, Innobasqueren jarduera inspiratzen duen amets eragilearekiko, berrikuntzaren europar erreferentea izatea.

Hori lortzeko lehentasunezkoa da berrikuntza dinamizatu, sozializatu eta neurtzea. Berrikuntzaren euskal sistema ebaluatzearen gure eginkizunean, 2011n ELGEren eskutik lehendabiziko "Euskal Herriko Erregio Berrikuntzari buruzko ELGE kanpo Azterlana" landu genuen, zeinek jarri baitzuen agerian berrikuntzan eragina izan behar duela produktibitatean. Barruti horretan sakonduz, aurten Indizea ezagutarazi dugu, Euskadiko berrikuntza-indizea. Oraingo honetan, lankidetza estuan ari izan gara NESTA gure britainiar homologoarekin sektore pribatuko berrikuntzaren neurketa-eredu baten sortzailea baita, eta gainera, kontuan hartzen du kapital ukigaia, eta kapital ukiezina, zeinek egiten baitute berrikuntza. Marketinaz ari naiz, antolabide-garapenaz edo etengabeko prestakuntzaz, beste faktore batzuen artean. Eredu horrek, zeinen ezarpena gure lurraldean UPV/EHUko Enpresari Aplikatutako Ekonomia Institutuko ekipoak garatu baitu, agerian jartzen du berrikuntzak eragin positiboa duela enpresa-sektoreko produktibitatea hobetzen. Izatez, 2004-2007 denboraldian berrikuntza izan zen enpresa-produktibitatea hobetzearen %74n arduraduna. 2008-2010 denboraldian, eta krisiaren eragina gorabehera,



**Guillermo Ulacia**
Innobasqueko presidentea

produktibitatearen hobetzearen %34 berrikuntzako aktibo ukiezinetan egindako inbertsioengatik izan zen. Inbertsio horiei esker produktibitatearen hazkundea mantendu egin zen kota positibotan.

Parez pare, beste ikerketa bat abiarazia zen, Sinnergiak Social Innovationen gidaritzapean Innobasqueren lankidetzarekin, zeinek garatzen baitzuen Resindex, berrikuntza sozialeko berrikuntzako lehen erregio-indizea ex profeso sortutako eredu bati esker. Aipaturiko lanak agerian jartzen du beste behin "europar paradoxa", hau da, gaitasunak izatea ez dakarrela berekin automatikoki emaitza berritzaileak lortzea. Hain zuzen alderantzizkoa gertatzen da India, Senegal moduko tokietan, eta oso bereziki erregio latinoamerikarrean. Gorabideko herrialdeak, diru-sarrera ertain baxuak dituztenak, nazioarteko sailkapenetan agertzen hasi dira berrikuntza sozialaren aldeko beren apustu tinkoarengatik eta ondorioz balioa sortzen dutelako.

Eszenatoki berri horietan enpresak sortzen dira indarrez azaleratzen ari den joera bati erantzuten diotenak, Laugarren Sektorea, berrikuntza sozialeko espezializazio bat, zeinek eragiten baititu enpresa-eredu batzuk sektore publiko, pribatua eta hirugarren sektorea hibridatzen dituena, negozioetakoak diren jarduerak erabiliz, baina xede sozial bati ezarriz eta kontuan hartuz ez bakarrik alderdi ekonomikoa, baizik eta soziala eta ingurumenarena. Hartara, herrialde garatuetan bizi dugun krisi ekonomikoak, erronka larri globalei aurre egiteko beharrari baturik, (enplegua, zahartzea, heziketa, baliabideak agortzea...) eredu ekonomiko berriak bilatzera bultza egiten dute gizarte irekiago. Solidarioago, berritzaileago, jasangarriago batera eramango duen batera eta bere interes-taldeak gero eta gehiago kontuan hartuko dituen batera, ez bakarrik akziodunak. Hortxe agertzen da balio soziala balio lehiakor bezala eta aberastasunaren eta enpleguaren sortzaile bezala. Euskadin, gogora ekartzea komeni da, lehen mailako erreferenteak ditugu eremu horretan, esaterako EHLABEn kokaturiko enpresak edo REAS Euskadi enpresa solidarioen sarean, zeinek sortzen baitute enplegua milaka pertsonarentzat Euskadin, SALES eta Mondragon Korporazioak egiten duten bezala, zeinen ausardia nazioarte-mailan aitortu baitu Financial Timesek, adibide aitortuenetako batzuk bakarrik aipatzearren. Oraintxe da indar-gune horiek baliatzeko unea, haien abantaila lehiakorrak, eta aukera izatera aldatzeko.

Aukera horiei ez zieten ihes egiten utzi, Southern Europe´s Cleantech Hub Europaren Hegoaldeko teknologia garbien plataformako 115 euskal enpresek, zeinen zeregin protagonista izan baitzuten Bilbon egindako nazioarteko enpresa-topaketan. Bederatzigarren aldia zen Cleantech Forum Europe kontinente zaharrean egiten zela eta, abagune sozio-ekonomiko zaila gorabehera markak hautsi genituen bertaratuen kopuruari dagokionez, izan ere 33 herrialdetako 320 erakunde izan baitziren hitzordu hartan, eta bertan agerian jarri ziren euskal indar-guneak teknologia berrietan, zeinek ahalbidetzen baitute baliabideen erabilera efizientea industria garatuz joateko merkatu globalean. Gainera, Latinoamerikak, aukeren lurraldeak, parte hartze nabarmena izan zuen lehen aldiz. Enpresen foruan aukera bakarra izan zuten nazioarteko inbertitzaile garrantzitsu batzuen sarearen aurrean aurkezteko eta beste sare eta beste merkatu batzuekin konektatzeko. Horrek guztiak Euskadiri garatzeko aukera eman zion teknologia garbien erreferentziako polo bezala, polo lehiakor eta nazioarteko merkatuetan saltzera bideratua tokiko aberastasuna eta enplegua sortzeko. Dagoeneko jaurti dugu Euskadi eszenatoki horretara eta hartara sare bat ehuntzen ari da gure enpresa eko-berritzaileek ahalik eta gehien garatu dezaten beren ahalmena. Adibide bat besterik ez da gure herrialdean sortutako plataforma aparteko horren bitartez egin dezakegun guztiarena. Adibide hori osatu egiten da, beste hainbat jarduera garaturekin bai osasunaren kudeaketatik Euskadirentzako lehiakortasun-iturri bezala, eta bai emozioen teknologietatik eta lankidetzatik, edo berrikuntzaren benetako kultura bat bultzatuz.

Beste maila batean, eta azken batzarrean iragarrita geratu zenez, datorren seihilekoan gertatuko da hirugarren erreleboa Innobasqueren presidentetzan, eta Alberto García Erauzkin, Euskalteleko presidentea izango da gure elkartea helmuga berrietara gidatzearen ardura bere gain hartuko duena. Hoberena opa diot, eta gauza bat eskatzen dizuet: ez bakarrik zeuen laguntza ematea, baizik eta zeuen lankidetza areagotu dezazuela Innobasquerekin eta haren presidente berriarekin, Euskadi sentitzen dugunon artean eraikitzen ari garen proiektu estrategiko honen irismena indartzeko. Aukera honetaz baliatu nahi dut zuen ahalegina eskertzeko, erakunde bazkide guztioi, eta bereziki erantzukizunezko zereginetan Batzorde Betearazlean eta Zuzendaritzan lagundu didatenei. C. Chaplin zinemagizon ezagunak esan zuenez, "Denbora da autore hoberena, beti aurkitzen du amaiera perfektua".

# 2 minututan



› Innobasqueren Batzar Nagusia haren ohorezko presidenteak inauguratua Iñigo Urkullu Lehendakariak

› Lehen seihilekoa kopurutan: 6.000 pertsona mobilizatu, 40 erronka berri Openideiak-en, 1.828 eragin prentsan, 34.195 soslai sare sozialetan

› Innobasquek Berrikuntza Sustatzeko Capital saria jaso du

› Berrikuntza Euskadin ebaluatuz. Indizea, berrikuntzako euskal indizea eta Resindex regional social innovation index aurkeztu dira

› Euskal berrikuntza sozialak leku bat lortu du Europan. Basque Social Innovation jaio da.

› I+G+b europarra etorkizunerako bere burua prestatzen: Horizon 2020 programa definituz

› Bilbo, teknologia garbientzako topalekua. 800 pertsona baino gehiago Cleantech Forum Europe eta Cleantech now!-en parte hartzen





› Crowdsasuna: finantzazioa bilatzen da euskal gizartearen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko

› Euskal enpresen itun bat sortuko da hondar-urak kudeatu eta tratatzeko

› Gaitasunak + talentua + lankidetza = Innobasque Exchange. Beste 8 proiektu berritzaile aurkezturik



› Adinaren kudeaketa erakundeetan, zientzia eta teknologiako enpresak, patenteak, teknologia garbiak eta ekonomia banatua, Innobasqueren Astearteetako hitzordu berriak

› Euskal berrikuntza ingurune globalean kokatuz. InnobasqueNews, Innobasqueren nazioarteko newsletter berria

› Aktivate Proiektua (AEP): jarduera fisikoa eta adimen emozionala, enpleguaren aldeko binomio bat

› Komunitate berritzaileak haziz doa: Innobasqueren 41 erakunde bazkide berri

# seihilekoko protagonistak

## Ingeteamek enpresa-hedapenak irekiko ditu Indian eta Hegoafrikan

Ingeteamek indartu egiten du bere nazioartekotze-plana bi enpresa-hedapen irekiz, bata afrikar kontinentean, Hego Afrikan, eta beste bat asiarrean, Indian, energia berriztagarriaren sektorera bideratuak batik bat; fotovoltaikoa, eguzki-termikoa eta eolikoa. Bi enpresa-hedapen berri horiek konpainiak dagoeneko dituen eta Amerikan dauden beste batzuei gehitzen zaizkie, hain zuzen Estatu batuetan, Brasilen, Mexikon, Txilen; Asian, berriz, Txinan eta Europan Alemanian, Italian, Txekiar Errepublikan eta Polonian.

Iturria: **Europa Press** [2013ko urtarrilak 29]





## Barakaldo smart city izango da zortzi enpresaren eskutik

Eusko Jaurlaritzak 1,5 milioi euroko diru-laguntza bat onartu du Ecodis proiekturako, zeinek nahi baitu Barakaldo smart city bihurtu. Hartarako, honako hauek elkartu dira: Barakaldoko Udala, Tecnalia eta Enerlis, Naturgas, Ferroser enpresak (Ferrovial Taldea), Everis, ZIV, Incoesa, Semantic Systems (Velatia) eta Maser.

Ecodisek gahietu egin nahi du energia-efizientzia, energia berriztagarrien erabilera sustatu, IKTk zerbitzu publikoetara hedatu haien efizientzia gehitzeko, hiritarren parte-hartzea gehitu eta negozio-aukerak eragin.

Iturria: **Gananzia.com** [2013ko urtarrilak 29]

## Farola bat baino askoz gehiago

Birloki, Bartzelonan egindako "Smart Cities" azken kongresuko finalista, Juan Sádaba bilbotar arkitektoaren proiektu bat da, hiriaren ahalbideak ezin gehiagoraino ustiatzea ahalbidetzen duena, atal berean konbinatuz hiri-altzaria, argia, soinua, panel berriemaileak edo Internet, beste ezarpen batzuen artean. Prototipo-fasean aurkitzen da, baina aurtengo urte honetan zehar "hiri-guneen aktibatzaile" hauek,-hala deitzen die sortzaileak- Bilboko kaleetan loratzen hasiko dira, eta Taiwanen edo Arabiar Emirrerrietan dagoeneko erakutsi dute planarekiko interesa.

Iturria: **El Correo** [2013ko otsailak 3]]



## Lantegi Batuak 444 milioi euro sortu ditu balio sozio-ekonomikoan 5 urtetan

UPV/EHUko Enpresari Aplikatutako Ekonomia Institutuak egindako ikerketa batek Lantegi Batuak-ek sortzen duen balio sozial eta ekonomikoa kuantifikatzen du, ikuspegi zabal batetik, gizartearentzako, administrazioentzako eta pertsona langileen ingurunerako onurak barne-hartuz.

Azterlanaren arabera, enpresa sozial horretan inbertitutako euro publiko bakoitzeko, zeinek elbarritasuna duten 2.300 pertsonari ematen baitie lana Bizkaian, gizarteari ematen dion itzulkina 6,35 eurokoa da. Lantegi Batuak-en asmoa beste enpresa sozial batzuen eskura erreminta hori jartzea da era zabalagoan balioetsi dezaten gizartean eragiten duen eragin ekonomikoa.

Iturria: **Euskadi+innova** [2013ko otsailak 5]





## EKak Vicomtech-IK4 lider duen nazioarteko proiektu bat saritu du

Argus proiektua, zeinean parte hartzen baitute Europako bost enpresak eta teknologia-zentroak eta Vicomtech-IK4 euskal zentroa lider duenak EKak saria eman dio satelite bidezko nabigaziorako ezarpena hoberena bezala.

Teknologia horrek aukera emango die itsuei beren kabuz eta era seguruan mugitzeko. Erabiltze eta garraio errazeko nabigazio-gailu bat da ibili beharreko bidean zehar gidari birtual batek bezala diharduena, eta horrela jarraitu beharreko nondik norakoaren gogo-mapa bat sortarazten dio erabiltzaileari.

Iturria: **Noticias de Gipuzkoa** [2013ko otsailak 19]

## Getxoko Udala Innobasqueren erakunde lankideen sarean sartu da

Getxoko alkate Imanol Landak, eta Innobasqueko zuzendari nagusi José Maria Villatek itun bat sinatu dute eta beraren bitartez udal bizkaitarra eta haren organismo autonomoak Innobasque-Berrikuntzako Euskal Agentziari atxikitako erakundeen sarearen parte izatera pasatu dira.

Itunak 1.000 erakunde baino atxikita dituen Euskadiko berrikuntza-sare garrantzitsuenean parte hartzea ahalbidetuko du. Horrek aukera emango dio Getxoko proiektuei eta enpresei ikusgaitasun handiagoa emateko, bere kontaktu-sarea hedatzeko, eta haien dinamizazioa eta komunikazio-kanalak bultzatuko ditu, beste alderdi batzuen artean.

Iturria: **Europa Press** [2013ko martxoak 5]



## “2013 zaila izango da baina positiboan gainditzea espero dugu”, Julian Hernando, Euskal Herriko Automozioaren Acicae-Clusterraren presidenteak

Nahiz eta Alemania eta Frantzia herrialdeetan hazkundea geldotu den eta ziurgabetasun ekonomikoak izan diren, 2012 ariketa positibo bezala amaitu da automozioko euskal sektorearentzat, izan ere lehiakorren eta berritzaileenetako bat da. Prezioa, kalitatea, berrikuntza eta zerbitzuaren arteko orekan datza sektore honen lehiakortasuna, Julián Hernando, aurten bere 20. urteurrena betetzen duen Acicaeko presidentearen arabera. Ezaugarri horiek, kudeaketa hobetzearekin batera, eszenatoki berrietara egokitzeko sektoreko enpresen malgutasuna, atergabeko nazioartekotzea eta berrikuntzaren aldeko apustua, funtsezkoak izango dira 2013 bati aurre egiteko, izan ere joan den ekitaldia baino zailagoa ageri baita, hala eta guztiz ere Hernando baikor ageri da eta automozioko osagaien euskal industriarentzat positiboan amaituko dela aurreikusten du.

Iturria: **Estrategia Empresarial** [2013ko martxoak 31]





## Begoñazpi Ikastola eta Mutualia: motibazioa eta pertsonen konpromisoa krisi-garaian

Begoñazpi Ikastola eta Mutualia izan dira erakunde irabazleak Euskaliten Club 400en X. Topaketan pertsonen Motibazioa eta konpromisoari buruz. Bai Begoñazpi Ikastola eta bai Mutualia izango dira euskal hautagaiak CEX 2013, Bikaintasunaren Ikastetxe Sustatzaileen Elkarteak antolatutako CEX 2013rako - nazio-mailan. Gainerako hautagai finalistak hauek izan dira: Ega Master, Euskaltel, Icaza eta Lauaxeta Ikastola.

Iturria: **Iz@ro.com** [2013ko apirilak 2]

## Petronorrek bere geroa sendotzen du

Petronor euskal konpainiak atzo ofizialki inauguratu zuen planta berri bat, azken hamarkadetan Euskadin egindako inbertsio industrial handiena dena. Euskal birfindegiak mila milioi euro baino gehiago inbertitu ditu Fuelolioaren Murrizte Unitatean (URF), nahiz eta koke-planta bezala ezagunagoa den, errentagarritasuna irabazi eta lehiakortasuna bermatzeko, eta horrek 100 zuzeneko eta zeharkako 240 baino gehiago sortzea ekarri du. Instalazioa petrolioa birfintzetik eratorritako produktu bat: fuelolioa baliatzeko diseinaturik dago. Material horrek URF planta elikatzen du berriro gasolioa eta gasolinak lortzeko, baita hondakin bat ere, petrolio-kokea, hura komertzializagarria, erregaitzat erabiltzen baita zementugintzako labeetan edo elektrizitatea sortzeko zentral termikoetan.

Iturria: **Deia** [2013ko apirilak 4]



## Nanomed2, Berrikuntzari Saria IMPLANTS 2013 kongresuan

Nanomed2 partzuergo frantziar-espainiarrak, zeinean parte hartu duten 2 euskal erakundek (Tecnalia eta Iontech) Lyonen Berrikuntzako Lehen saria jaso zuen (1st Prize - Contract Manufactoring Award 2013) IMPLANTS 2013 Nazioarteko Kongresuaren esparruan.

15 proiektu hautagairen artean, Nanomed2 partzuergoa izan zen hautatua berrikuntza bikoitz bati esker hezur-inplanteak estaltzearen barrutian: alde batetik gordailu-dispositibo berri bat diseinatzeagatik eta, bestetik, protesien bizitza baliagarria gehitzea ahalbidetzen duten materialak erabiltzeagatik.

Iturria: **Institut Carnot CIRIMAT** [2013ko apirilak 10]





## Oronak 569,1 milioi euroko salmentak lortu ditu eta AMG Taldeaz jabetu da Brasilen

Orona gipuzkoar enpresa-taldea, igogailuak eta eskailera mekanikoak fabrikatzen aritzen denak 569,1 milioi euroko salmentak lortu ditu 2012an eta apustu irmoa egiten jarraitzen du nazioartekotzearen alde berriki erosi duen AMG Jasogailuak Taldea erosiz Brasilen, izan ere bere lehen enpresa eskuratua du Europatik kanpora. Nazioartekotzeaz eta berrikuntzaz gainera, lan-postuak sortzea da taldearen beste lehentasunetako bat, eta prestakuntza handiko 500 postu sortzea aurreikusten du Orona Ideo berrikuntza-proiektuaren inguruan, zeinen inaugurazioa 2014aren hasierarako aurreikusita baitago, Oronaren 50. urteurrenarekin bat eginez.

Iturria: **Gara** [2013ko apirilak 20]

## Wattiok 93.000 euro eskuratzea lortu du bere lehen produktuentzat Interneten bitartez

Wattio gipuzkoar start-upak 253 eskaera lortu ditu eta 93.000 euro Interneten abiarazi duen kanpaina baten bitartez funtsak eskuratzeko energia-aurrezkiko bere lehen produktuak finantzatzeko. Badira bi, nahiz eta anonimoak izan, 6.000 euro lortu dituztenak. Zalantzarik gabe, Euskadin abiarazi den crowdfundingeko ekimen garrantzitsuena da.

Izatez, ekimenaren helburua ez zen hainbeste funtsak biltzea baizik eta hasierako erabiltzaile ("early adopters") batzuen base bat sortzea, gero haiekin lehen asmakizunak probatzeko, zeinek merkatura eta gero, etxebizitza adimendun bat sortzea ahalbidetuko baitute non dirua aurrezten baita berokuntza eta elektrizitatearen kontsumoa optimizatuz. Zehatz esanik, urtean etxeko 430 dolarreko kostua murrizten dela kalkulatzen dute.

Iturria: **Gananzia.com** [2013ko apirilak 22]



## Euskal makinak trenbide-abiadura handia mantentzeko Txinan

Danobat kooperatiba-taldeak joint venture bat sortu du %50ean bere bezero txinatar hoberenarekin, February 7th Locomotive and Rolling Stock Works (China Northern Railways trenbideen talde estatalekoa), ezinbesteko baldintza bezala makina bat fabrikatzeko abiadura handiko trena mantentzeko asiar herrialdean eta hartara azken urteotan Txinan bultzatu diren proiektu handienenetako batean parte hartzeko. Izatez, mundu-mailako liderra da abiadura handian 9.300 kilometro baino gehiago biderekin.

Hori izango da Elgoibarko konpainiak partzialki fabrikatuko duen lehen produktua Euskaditik kanpora. Nahiz eta Euskaditik zenbait elementu hornitzen jarraituko duen, muntatzea eta zerbitzua Pekinen egingo da.

Iturria: **DEIA** [2013ko apirilak 25]







## Batzek 56 milioi inbertituko ditu kanpoaldean hazteko

Batz kooperatiba-taldea, Mondragon Korporazioan txertaturik dagoena, hazkunde-plan handinahi batean murgilduta dago eta emaitza oso onak ditu bere alde, bere etengabeko berrikuntzari eta nazioartekotze zabalari esker lortutakoak. Hartara, 2016 Plan Estrategikoak 56 milioi euroko inbertsioak egitea aurreikusten du, 4 urtean batez beste 14 milioi inbertituz. Baliabide horien parte bat kanpoaldean beste planta ekoizle bat instalatzea izango du xedetzat, eta Asian koka liteke, hobespenez Indian edo Errusian.

Batzek atzerrian duen presentzia ez da berria, kooperatibak dagoeneko baditu bederatzi fabrika beste herrialde batzuetan. Bingen Aranzabal zuzendari nagusiak nabarmentzen du "nazioartekotze-prozesua funtsezkoa izan dela" kooperatibaren sehaska izan den Igorreko plantari eusteko, eta bertan enplegua gehitzeko, gainerako euskal plantetan bezala.

Iturria: **El Economista** [2013ko maiatzak 20]

## La Caixak 10 milioi euroraino jaso du Euskadiko bere gizarte-ekintza

Lehendakari Iñigo Urkulluk, eta La Caixa eta haren fundazioko presidente Isidro Fainék atzo lankidetza-itun bat sinatu zuten eremu sozial, heziketa, ingurumen eta kulturakoan, zeinek begiesten baitu erakunde finantzario horrek bere gizarte-ekintzaren aurrekontua aurtengo urtean 10 milioi euroraino igoaraztea.

Kopuru horrek milioi batean gehitzen du 2012n esleitutako hornidura. Itunak lehentasun komuntzat dauka gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka; eta arreta berezia eskaintzen dio pobreziari, enpleguak sustatzeari zailtasunak dituzten kolektiboen artean eta pertsona gaixoen arretari.

Iturria: **El Correo** [2013ko maiatzak 30]



## Artecheren laborategi berriak dagoeneko badu bost milioiko kontratu bat Indiarako

Arteche Taldeak ofizialki inauguratu du Mungiako (Bizkaia) ultra goi-tentsioko bere laborategian eta bost milioi euroko kontratu batez lagundu du Indiako sektore elektrikoko zenbait bezerori transformadoreen hornikuntzarako.

Iturria: **Estrategia Empresarial** [2013ko maiatzak 31]






## Alejandro Echevarriak Aster Komunikazioko saria jaso du

Mediaset Españaren presidente, Alejandro Echevarría Busquets-ek Komunikazioko ASTER Saria jaso du, ESIC Business & Marketing School, Rey Juan Carlos Madrilekoak eta Miguel Hernández Elxeko unibertsitateei atxikitako zentro pribatuek banatua. Sari honekin honako hau aitortzen zaio Echevarriari ez bakarrik "bere eginkizunetan garatu duen bikaintasuna", baizik eta "enpresa-balore eraginkor eta etikoak hedatzeari emandako laguntza, bai eta jarduera ekonomikoak sustatu eta gizarte-ongizatea eragitea ere (...)"

Iturria: **Diario Vasco** [2013ko ekainak 12]

## Iberdrola, Miguel Ángel Lujua eta ABAO, enpresa-sareak Bizkaia Sarean

Iberdrola elektrizitate-enpresa, Miguel Angel Lujua Confebaskeko presidentea, ABAO eta Larrabetzuko Azurmendi jatetxea dira Bizkaia Sarean enpresa-sariekin nabarmendutako batzuk, Bizkaired, Sareko Enpresen Elkarteak ematen dituen sariak dira.

Bilbon ematen diren sariek eta hirugarren aldiz, gainerako enpresaburu bizkaitarrek jarraitzeko erreferente eta eredu urtean zehar izan diren enpresak eta pertsonak bereizten dituzte.

Iturria: **El Mundo** [2013ko ekainak 12]

Asociación de empresas de Bizkaia

bizkai red

bizkaired.es

INDUSTRIAL EXCELLENCE AWARD

INSEAD WHU IESE RSM

## Orklik Bikaintasun Industriala 2013 Saria jaso du

Gipuzkoar enpresa Orklik, berokuntza, ur bero sanitarioa, ura berotzea eta etxetresna elektrikoak fabrikatu eta saltzen aritzen denak, aurtengo espainiar edizioan Industrial Excellence Award saria jaso du IESEk urtero antolatzen duena, Frantziako INSEAD, Herbeheretako RSM (Rotterdam School of Management), Alemaniako WHU (Otto Beisheim School of Management) eta Erresuma Batuko Judge Business School (Cambridge) eskolekin batera.

Gainera, beste bi enpresa finalistak ere euskal herritarrak ziren: Ormazabal eta Bellota.

Iturria: **www.industrial-excellence-award.eu**

# Berrikuntza Sistema



## Gobernu-organoak

### BATZORDE BETEARAZLEA

Lehen seihileko honetan, José Ignacio Arrieta, Matilde Elexpuru, Alberto García Erauzkin, Miguel Ángel Lujua, Javier Ormazábal eta Guillermo Ulacia Innobasqueko Batzorde Betearazleko ordezkari bezala, Txema Villatek lagundurik, topaketa bat izan zuten Ajuria Enean, Iñigo Urkullu lehendakariarekin.

Topaketa horretan, zeinean izan baitziren Jesus Peña, lehendakaritzako idazkari nagusia, eta Arantza Tapia, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua ere, Lehendakariari helarazi zitzaion Batzordeko kide guztiek Innobasque proiektuarekiko atxikimendu eta egokitasuna agerian jarriz, nola Innobasque osatzen duten erakundeen eta pertsonen konpromisoa hala, burututako lana.

Era berean, Innobasque proiektuaren lider Lehendakaria izateak duen garrantzia azpimarratu zen, zeinek onartu baitzuen Ohorezko Presidentetza eta Agentziak berrikuntzarekin duen konpromisoa babestu zuen. Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua izango da Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria aginte-organoetan, Innobasqueko presidentordearen kargua onartuz. [2013ko apirilak 30]

### ZUZENDARITZA

Presidentetzarako hautagaitzaren identifikatze-prozesua amaiturik eta, maiatzaren 14ko Zuzendaritzan hartutako akordioz, Alberto García Erauzkin, Euskalteleko presidentea izango da Innobasqueren buru zenbait hilabetetako errelebo-prozesu baten ondoren, zeina bukatuko baita 2013ko irailaren 26ko Zuzendaritza-bileran.



## BATZAR NAGUSIA

Batzar Nagusia, 300 bazkide bertaratu izan zituena, Iñigo Urkullu ohorezko presidenteak inauguratu zuen, zeinek babesa eta konpromisoa erakutsi baitzituen Innobasque proiektuarekiko eta berrikuntzarekiko, zein baita herrialdearen berraktibatze ekonomikoaren estrategien lau gakoetako bat, nazioartekotzea, industria eta inbertsioarekin batera.

Ekitaldia Bilboko Euskalduna Jauregian egin zen eta bertan izan ziren Arantza Tapia, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua; Juan María Aburto, Enplegu eta Gizarte Arazoen sailburua; Jon Darpón, Osasun-sailburua; Cristina Uriarte, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura-sailburua, eta Jesus Peña, Lehendakaritzako idazkari nagusia.

Batzarrean honako puntu hauek onartu ziren: 2012 kudeaketa-txostena, 2012ko urteroko kontu auditatuak, 2013ko aurrekontua eta bazkideen kuotei eustea.

Gainera, Innobasqueko presidentetzaren erreleboaren berri eman zen, batzarraren aurretik egindako Zuzendaritza-bilerako akordioz onartu baitzen. [2013ko maiatzak 14]

# Berrikuntzaren ebaluazioa eta behatokia

## Indizea, Berrikuntzako Euskal Indizea

Innobasqueren urteko batzarraren ondoren, Indizea proiektuaren emaitzen aurrerapen bat aurkeztu zen, zeinek neurtzen baitu zenbat inbertitzen duten euskal enpresek kapital ukiezinean eta zein izan den inbertsio horren ekarpena produktibitatea hobetzen.

Indizeak honako hau suposatzen du: Euskadin metodologia berri eta berritzaile bat ezartzea, orain arte herrialde-mailan Erresuma Batuko NESTA berrikuntza-agentziak bakarrik ezarria, eta zeinen printzipioak ELGE nazioarte-mailan sustatzen hasita dagoen.

Innovation Index-ak, NESTAk definitzen duenez, berrikuntza kontzeptua zabaldu egiten du I+Gaz edo garapen teknologikoaz harago, orain arte ezkutaturik egon den berrikuntza bat azaleratzea ahalbidetuz. Hala, 7 berrikuntza-mota ukiezin finkatzen dira hiru kategoriatan taldekatzen direnak, kapital ukiezina deitua eratuz:

- Berrikuntza konbentzionala: I+G, diseinua, beste batzuk (jabetza intelektuala ....)
- Softwarea: softwarearen garapena eta datu-basea
- Gaitasun ekonomikoak: antolatze-garapena, etengabeko prestakuntza, marketina



Indizeak honako hau islatzen du: kapital ukiezineko enpresa-inbertsioak nola suposatu duen euskal ekonomiaren BPG%6 2004-2010 denboraldian, eta horrek zera esan nahi du, aktibo finkoetan bere inbertsioen halako bi (lursailak, ekipamenduak, makinak, etab.).

2004-2007 denboraldian, krisiaren aurretik, produktibitatea urtean %1,8 hazi zen; aldiz, 2008-2010 bigarren aldian %0,7 hazi zen. Kapital ukiezinaren ekarpena %34koa izan zen denboraldietako lehenean eta %26koa bigarrenean, I+G, antolatze-hobekuntzak eta diseinua lider zirela.

Ekimen hau Euskadin abiarazteak honako hau suposatu du: lehenik, NESTArekin itun bat sinatzea, zeinek begietsi baitu Euskal Herriko Unibertsitatean ikertzaile-ekipoa baten prestakuntza metodologikoa eta Euskadirako indizea (eta berrikuntza-txosten atxikia) lantzearen prozesua gainbegiratzea. Bigarren lekuan, batzorde aholkulari bat sortzea proiektuko lana zuzentzeko, zeinek Innobasque lider duela honako erakunde hauen pate-hartzea izan baitu: Eusko Jaurlaritza, Spri Taldea, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, UPV/EHU, IK4 eta Tecnalia teknologia-korporazioak, Confebask, Eustat, Kronikgune eta Orkestra.

Indizeak egiten duen ezagutzaren ekarpenak laguntza emango du euskal enpresek hobeto ezagutu dezaten zer faktorek lagundu diezaiekeen beren produktibitatea hobetzen eta, ondorioz, beren lehiakortasuna, berrikuntzan oinarritutako ekonomia bat indartzen lagunduz. Halaber, beste iturri eta ebaluazio-metodo batzuen ondoan, berrikuntzako politika publikoak garatu eta fintzen balioko du eta haien ezarpenaren eraginkortasuna egiaztatzeko, berrikuntzak produktibitatearen hazkundeari egindako ekarpena a posteriori neurketa bat eskaintzean. [2013ko maiatzak 14]









## Resindex, Regional Social Innovation Index

Ikerketa pilotu hau, Sinnergiak Social Innovation-ek (UPV/EHU) zuzendua eta garatua Innobasquerekiko lankidetzan Euskadin berrikuntzaren ebaluazioak izan duen ekimenaren esparruan burutu da. Europan proiektu aitzindaria da, eredu bat (dimentsioak eta adierazleak) landu nahi duena berrikuntza sozialeko erregio-indize bat garatzeko.

Europa barrutian berrikuntza sozialaren neurketako ikerketa desberdinak eragin sozialak neurtzeko erabil daitezkeen dagoeneko estandarizatutako adierazleen erabileran zentraturik dauden bitartean, Resindex proiektuarekin adierazle-sistema propio bat eraiki da berrikuntza sozial kontzeptua argitu, sendotu eta hesitzea ahalbidetzen duena ezagugarriago bihurtuz. Horregatik, definitu diren adierazleak, neurtze-lanabesak izateaz gainera eta, ondorioz, ebaluaziokoak, berrikuntza sozial terminoaren inguruan kontzeptuak eraiki, aitortu, partekatu eta finkatzera bideraturik daude. Lehen txosten hau burutzeko batzorde bat sortu da, haren garapena kontrastatuz joan dena, eta hamahiru erakundek osatua: Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, REAS Euskadi, Bioef, Deloitte, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eudel, Novia Salcedo Fundazioa, Kutxabank, Ingema eta Lehendakari Agirre Center.

## Zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sarea berrantolatzea

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren eskariz, Innobasquek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen berrantolatze-proiektuko lanei ekin die teknologiako azpisistema eratzen duten eragileei batik bat atxikiz.

Proiektuaren helburua, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren ekintzari atxikitako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileen estrategia-orientabidea definitzean datza merkatura, bikaintasunera eta jasangarritasun ekonomikora bideratzea faboratzen duen espezializazio adimendunak ezaugarritutako Zientzia eta Teknologiako etapa berri baten oinarriak eraikitzeko.

Ekainean zehar, eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren lidergoarekin, proiektuaren lan-plana definitu da, 2013 eta 2014 bitartean garatzeko hiru fasetan egituratu dena. Gainera, lan-ekipo bat eratu da, Eusko Jaurlaritzako, SPRI eta Innobasqueko langileria teknikoak eratua, idazkaritza tekniko gisara.

# I+G+b sistemaren nazioartekotzea

## ERA-NET

### ETB-PRO 2013 deialdia

Nazio gaindiko I+G proiektuetarako 8. deialdia ixtea ERA-NET Euro TransBioren bioteknologiaren alorrean. Guztira 33 proposamen aurkeztu ziren eta haietatik 5ek euskal enpresen partaidetza. Ebaluatzearen emaitzak eta, ondorioz, finantzazioaren gomendioak ekainaren amaieran egin ziren ageriko, eta haien emaitza honako hau izan zen: 10 proiektu gomendatzea, eta haietako 2 euskal partaidetzarekin. [2013ko urtarrilak 31]

### Flagship ERA-NET Transport

Garraioa ENT IIIko ERA-NETeko Flagship lehen deialdia ireki delarik, zeinen helburua laguntzea baita, erregio/nazio finantzatze-programa desberdinak koordinatzearen bitartez I+G+b-ko nazioz gaindiko proiektu-proposamenak garraio berde, adimendun, erabilerraz, seguru, eraginkor eta integratuko sistema bat etorkizunean segurtatuz.

11 dira europar herrialde eta erregioak ekimen honetan parte hartzen dutenak, zeinek baitu guztira 10 milioi euroko funts bat. Deialdia, azaroaren 4an itxiko dena, bi gaitan zentratzen da:

- Ibilgailuen teknologiak, zeina osagaien garapenari eta propultsio-sistema hautabidekoak dituzten ibilgailuei buruzkoak baitira aplikazio-alor, ibilgailu-mota, garraio-modu desberdin eta abarretarako
- Geroko bidaiaria: informazio-proiektuak eta erabiltzaileentzako zerbitzuak, bai eta zerbitzu-hornitzaileen eta azpiegituren administratzaileen eskakizunenak ere [2013ko apirilak 29]

Informazio gehiago:

Haren helburua enpresak laguntzea da I+G+b nazioartekotzearen beren ibilbidean, enpresei eta euskal erakundeei europar funtsetara iristen lagunduz.



## Future Travelling 2013 Jardunaldia




ERA-NET Transport, gainaldeko garrioaren barrutiko proiektuetarako Flagship lehen deialdia abiarazi dela-eta, ETNArekin (European Transport Network Alliance) lankidetzan, Bruselan Future Travellingek gertaldi bat antolatu zuen bi atal zituena:

- Jardunaldi berriemailea, eta bertan Liam Breslin, Europa Batzordeko Ikerkuntzako Zuzendaritza Nagusiko gainaldeko garraio Unitatearen burua izan zen, zeinek hitz egin baitzuen garraioaren gaiaz eta Horizon 2020 esparru-egitarau berriaz
- Nazioz gaindiko partzuergoak eraikitzeari laguntzeko plataforma bat sortzeko-topaketa. Alemania, Belgika, Katalunia, Polonia eta Israelgo erakundeak baliatu ziren abaguneaz proiektu-ideiak eta haien soslaiak aurkezteko. Gainera 41 alde biko topaketa programatu ziren unibertsitate, teknologia-zentro, enpresa eta agentzien artean [Brusela, 2013ko ekainak 13]

# HORIZON 2020

**I+G+b-ko kudeatzaileak espezializatzeko programa**

Innobasquek parte hartu du "I+G+b-ko Kudeatzaileak Espezializatzeko Programa"ren 10. edizioan, Bruselako CDTIren Zientzia eta Teknologiako Bulego Espainiarrean (SOST) egin delarik. Espezializazio teoriko eta praktikoko programa bat da I+G+b-aren europar inguruneko adituentzat, azpimarratze berezi bat eginez Esparru Programaren bilakaeran.

Foro hau aukera garrantzitsua izan da lehen eskuko informazioa jasotzeko Europa Batzordeko ordezkariengandik, CDTIko langileria tekniko eta europar stakeholder desberdinengandik, bai eta ikerkuntza eta berrikuntzari laguntzeko politiken eta lanabesen ikuspen errealago bat izateaz gainera. [2013ko ekainak 10-21]







**Horizon 2020**, bere xehetasunak amaitzen ari da hurrengo 2014-2020 denboraldirako

I+G+b finantzatzeko Europa Esparru Programa berri hau, zeinen aurrekontua seguru asko 70.200 milioi eurokoa izango baita eta bere ibilbidea 2014ko urtarrilean hasiko baitu, enplegua sortu eta berreskuratze ekonomikoa gidatzeko diseinaturik dago.

Europa Batzordeak balio erantsia sustatzeko eta finantzazioko europar funtsen eragina maximizatzeko asmoa du, halako moldez non programak garapen berriei erantzuten baitie, ikerketatik eta berrikuntzatik ziklo osoa estaliz eta EBeko politikaren helburuak betetzera nabarmen lagunduz, hala nola Europa 2020 estrategia, Berrikuntzaren aldeko Batasuna eta beste ekimen enblematiko batzuk.

Horizon 2020 inplementatzeko lehen urteetarako ezaugarri gakoak honako hauek dira:

- berrikuntza-jarduerak laguntzeko bere oldarra, halako moldez non hartara ziklo osoa estaliko den oinarrizko ikerkuntzatik merkatuan sartzeraino
- garapen- eta berrikuntza-ahalmen handiko 7 eremuren inguruan baliabideak kontzentratzea: biztanleria zahartzea, baliabide naturalen jasangarritasuna, energia eraginkor eta garbiak, klima-aldaketa, garraio adimenduna, gizarte berritzaileak eta gizarte seguruak
- neurri gakoak aurreratzea lidergo industrialari buruz teknologia bideratzaileen inguruan, finantzatze-irispidea segurtatuz eta Ete berritzailei lagunduz
- partaidetza publiko eta pribatuen multzo bat abiaraztea, zeinek finkatuko baitituzte inbertsio pribatu gehiago funtsezko teknologiatan
- neurri multzo berri bat sarraraztea, zeinek lagunduko duten Europan dagoen baketa gainditzen lagunduko dutenak, egitura-funtsen inbertsio handiagoak hartara indartuz

Gainera, EBk lehen aldiz sortu du Etei bideratutako lanabes bat eta aurrekontu mamitsua esleitu dio Europako enpresetan berrikuntza estimulatzeko.

# Berrikuntza sozialaren koordinazio-unitatea

## Basque Social Innovation

Basque Social Innovation eratuko duten eragileen lehen topaketa, zeina jaio baita Euskadi erreferentziako berrikuntza sozialeko nodo bat bezala Europan kokatzeko, eragile eta ekimen guztiak balioan ezartzeko, era estrategiko eta koordinatuan. Basque Social Innovation "berrikuntza sozialeko euskal fronte" bat bezala irudikatzen da, gure herrialdeko erronka sozialei aurre egingo diena bezala itun publiko eta pribatutik, eta eragile guztiak ikusgai bihurtuko dituena Euskadiren ahalmena errentagarrituz berrikuntza sozialeko barruti estrategikoetan.

Lehen topaketa honen ondoren, markatutako helburuak honako hauek dira:

- Eragile partaide bakoitzaren jarduera banakoak sendotu, Euskadirentzat diseinatuz eta adostuz berrikuntza sozialaren kontzepzio bat topaketa-truke, gogoeta eta ekintza-dinamika iraunkor bat ahalbidetuko duena, bai eta gune europarrean kokatzekoa ere
- Transmisio-fluxu dinamiko bat definitu berrikuntza sozialeko balio-katearen estadio desberdinak elikatzea ahalbidetzen duena eragileen elkarrekintza koordinatuaren bitartez: errealitatearen analisia (erronkak eta joerak), ezagutza sortu eta ezartzea (prospektibak eta eraldaketa sozialeko palankak) eta sentsibilizazioa, hedatzea eta prestatzea (lanabesak)
- Ikerkuntza-berrikuntza dikotomia gainditzen lagunduko duten indarrak batu, zein ari baita gertatzen berrikuntza sozialarekin zerikusia duten eremuetan, ekimenak abian jarriz zeharkakotasun-izaerakoak eta lankidetzan eranskariak direnak, transferentzia sustatuko dutenak emaitza neurgarriak lortzeko eta eraginak optimizatzeko (bikoiztasunak ekidin, proposamenak lerrokatu eta helburu partekatuak definitu)
- Euskadin garatzen ari diren berrikuntza sozialeko ekimenak eta haiek lantzen ari diren eragileak balioan ezarri, berrikuntza sozialaren nazioartekotzea eta hura Europan kokamendu aktibo batean jartzea sustatuz nazioarteko erakundeen sare eta itunak sortzearen bitartez [2013ko ekainak 13]



## Gizarte berrikuntza, pertsonek sortu eta jaso egiten duen balioa

Nazioarteko jardunaldia Kutxabank eta S3 Platformekin lankidetzan antolatua, bertan 300 pertsona baino gehiagoren partaidetza izan zelarik; haien artean zeuden Arantza Tapia, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua, Juan Maria Aburto, Enplegua eta Gizarte Politiketako sailburua, Europar Batzordeko ordezkarika, bai eta Euskadin berrikuntza sozialaren barrutian lanean ari diren eragile desberdinak ere.

Topaketan, Europa Batzordekideka diren Agnes Hubertek eta Mikel Landabasok berrikuntza sozialaren gaia landu zuten Europan hazkunde adimendun, barne-hartzaile eta jasangarri baterako euskarri bezala, eta "Berrikuntza sozialeko Gidaliburua" aurkeztu zuten, Europa Batzordeak argitaratua Europa 2020 estrategiaren esparruan.

Ondoren, John Edwards-en eskutik (Smart Specialisation Platform S3) europar gomendioekin zerikusia zuten berriki batzuk eman ziren berrikuntza soziala Ikerkuntza eta Berrikuntzan Espezializazio Adimenduneko Erregio Estrategietan txertatzeko (RIS3), zienak Europatik baldintza bezala ezarri baitira egitura-funtsetarako irispide bezala. Halaber, erregio-arrakastako 2 kasuren presentzia ere izan zen, zeinek barne-hartu baitute berrikuntza soziala beren espezializazio adimenduneko estrategian (S3): Hungaria eta Suedia.

Erregio-barrutian, Basque Social Innovation ekimena aurkeztu zen, erregio-berrikuntza soziala europar sareetan konektatzeko lankidetzako plataforma, adibidez SIX bezala - Social Innovation Exchange, zeinen enbaxadaria, Gorka Espiau, jardunaldian bertan izan baitzen. Gainera, bertaratuek berrikuntza sozialeko 4 jarduera on ezagutu ahal izan zituzten Euskadin: Herrigune Leioa, Pazientea ahaldunduz, BBK Bilbao Hostel eta GoiEner.

Ekitaldia Resindex, berrikuntza sozialeko erregio-indizea aurkeztuz amaitu zen, zein baita Innobasqueren Euskadiko berrikuntzaren ebaluazio-ekimenaren parte dena, eta Sinnergiak Sozial Innovationek gidatu eta garatua (UPV/EHU). [ 2012ko ekainak 28]

Social Innovation Exchangeko (SIX) kontseilu globalak **Basque Social Innovation (BSI)**, Innobasquek bultzatua, hautatu du bere organo goreneko, zuzendaritzako kide berri bezala. Hartara, euskal partzuergoa eragile berrikuntza sozialeko erreferente aktibo bezala kokatzen da Europan.

# Berrikuntza politika publikoetan

## European voices for active ageing (EVAA)

"Europaren Zahartzearen aldeko Manifestua" lantzea, zeinek jasotzen baititu europar 6 hiritan (Bilbo, Bonn, Praga, Londres, Bolonia eta Estrasburgo), 2012ko bigarren sehilekoan zehar egindako World Caféetan ateratako ondorio nagusiak jasotzen dituena World Café Europek diseinaturiko "zahartze aktiboaren aldeko europar ahotsak" proiektuaren esparruan.

Europa Batzordeari entregatuko zaion manifestu horrek, 50 eta 95 urte bitarteko 700 pertsonak baino gehiagok ekarritako itxaropenak eta gomendioak laburtzen ditu, zeinek parte hartu baitzuten Europa adiskidetsu bat sortzeko helburuarekin proiektuan parte hartu baitzuten.

Ateratako ondorio nagusiak honako hauek dira:

- Etekinak gehitu 50 urte baino gehiagoko langileak kontratatzen dituzten enpresei eta pizgarriak hornitu adinekoekiko adiskidetsuak diren lan politika adiskidetsuak garatu eta inplementatzeko
- Erretiro mailakatuko ekimen berritzaileak sustatu, bai eta erretiratze aktibo eta finantzatuko beste jarduera batzuk
- Berrikuntza sozialeko proiektuak eta ekimenak bultzatu irtenbide berritzaileka bilatzeko erronka sozialei, belaunaldien arteko lankidetza eta elkarrekintzari esker
- Konpromiso zibiko bat garatu adinarekin lotutako estereotipoak deuseztatuko dituena
- Adinekoekin adiskidetsuak diren europar hirietan proiektu pilotuak bultzatu, halako moldez non haiek paper aktibo bat jokatuko duten eta haien ahotsak erabakiak hartzearekin lotuko diren
- Adin aurreratuko helduen osasuna sustatu eta kudeatzeko era berriak arakatu
- Zahartzearen irudi estereotipatua baztertu, kolektibo horrek burutu nahi duen rol aktiboa azalerazteko, izan ere 50 urte barru Europak egingo baitu konprometitutako pertsonen kopurua, hezkuntza-maila altuarekin eta esperientzia handikoarekin

**EVAA proiektua** berrikuntza sozialeko 50 jarduera hoberenen artean hautatua **"Social Innovation - Priority for a European agenda"**, konferentziaren esparruan, Europa Parlamentuak antolatua ekonomia sozialak Europan duen ahalmen berritzailea dokumentatu eta ilustratzeko helburuarekin.
**Lantegi Batuak** halaber, aitortua izan zen Estatu ordezkatzen duten 3 jarduera onetako bat bezala, eta elbarritasuna duten pertsonentzako enplegua sortzeari lotutako bakarra. [2013ko maiatzak 30]

### EMAITZAK

- ERA-NET EuroTransBio 8. deialdiaren itxiera [ 2013ko urtarrilak 31]
- Flagship ERA-NET Transport-en 1. deialdia abiaraztea [2013ko apirilak 29]
- Innobasqueko bazkideen batzar nagusia [2013ko maiatzak 14]
- Indizea, berrikuntzako euskal indizearen aurkezpena [2013ko maiatzak 14]
- "Zahartze Aktiboaren aldeko Europa Ahotsak" europar proiektuaren ondorioen hedapena [2013ko maiatzak 27]
- Basque Social Innovationen lehen topaketa [2013ko ekainak 13]
- Resindex, regional social innovation indexen aurkezpena [2013ko ekainak 28]
- "Gizarte berrikuntza, pertsonek sortu eta jaso egiten duen balioa" jardunaldia [2013ko ekainak 28]

**Irekitako lan-lerroak:**

- Enplegu Estrategia
- Berrikuntza eta partaidetza hiritarra tokiko politika publikoetan

## Berrikuntza eta partaidetza tokiko politika publikoetan

Bigarren belaunaldiko jarduera onen eskuliburua bukaturik, datozen hilabeteetan argitaratuko dena, eta Innobasqueko Gobernantzako i-Taldea burutzen ari den ikerkuntza-proiektuaren esparruan garatu dena, UPV/EHUrekin lankidetzan, politika publikoetako hiritarren partaidetzaren operatibotasuna, aplikagarritasuna eta errendimendu erreal eta eraginkorra hobetzeko helburuarekin, eta haren balio erantsia ustiatzeko.

Gidaliburu hau ez da lanabes-kutxatila bat hiritarren partaidetzako esperientziak abian jartzeko, ez ezta errezetategi bat ere. Haren helburua gogoeta egitera gonbidatzea da norberaren esperientzien inguruan, beste batzuen esperientzietan oinarriturik. Horretarako, argitalpena tamaina desberdineko 26 udalerritako kasu errealen gainean eraiki da: 13 Euskal Herrikoak dira eta beste 13 Estatuaren gainerakoak, eta udalerriez gaineko hiru gobernu ere badira.

### ALBISTE IZANGO DA

- Indizea, berrikuntzako euskal indizea txosten osoaren aurkezpena, Zuzendaritzari [2013ko irailak 26]

# 5 gako ....

# EUSKADIRA TALENTUA ERAKARTZEKO



**Fernando Cossio,**
Ikerbasqueko
presidentea

1

**Pertsonen eta lanabesen alde apustua egin:** Ezagutza zientifikoa sortzea ikerkuntza zientifikoko prozesu luze baten emaitza da eta bertan bi faktore oinarrizko daude: pertsonak eta lanabesak eta azpiegiturak. Beraz, faktore horiek indartzea ezagutza zientifikoa garatzearen zimentarri bezala aurkezten da eta, horregatik, garapen kultural, sozial eta ekonomikoarena.

2

**Eskaintza erakargarri eta koherentea aurkeztu denboran.** Kementsuak izan, eta gaurkoa bezalako garai zail batean, zientziaren aldeko apustuari eutsi bikaintasuna ezaugarri duen eta konfiantza sortzea ahalbidetuko duen aipu bat lortzeko. Aipu hori lortzeko beharrezkoa da eskaintza bat aurkeztea nazioarteko komunitate zientifikoaren behar eta eskakizunei doituko zaiena.

3

**Herrialde kohesionatu baten jabe izan** non babes instituzional irmoa izango den Euskal Herriko barruti politiko eta zientifiko desberdinen aldetik. Ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzaren, unibertsitateen eta Zientziako Euskal Sistemako gainerako eragile guztien (BERCak, CICak, Teknologia Zentroak, etab.) konpromisoa, lankidetza eta babesa izatea.

4

**Bikaintasuneko ikerkuntza-zentroen bilbadura bat sortu,** zeinek emango baitigu Euskal Herriaren gaitasunak gehitzeko gaitasuna, nazioarteko ibilbidea eta Euskadiren aukerak aztertuta, ikerketa-lana sustatu bikaintasuneko ikerkuntza-zentroen bilbadura bat abian jartzearen bitartez.

5

**Euskadi mundura irekitako herialde bat bezala aurkeztu**: Leku erakargarri bat egoitza bat izateko, non ikertzaileek eta beren familiek beren bizi-proiektua garatu ahal izango duten erakundeen laguntzarekin eta tokiko gizartean integratzeko erraztasunekin.

# Dinamizazioa

Sistemako eragile guztien partaidetza eta lankidetza sustatzeko, zehar-lerro izaerako berrikuntza-ekimen eta/edo -proiektuak identifikatzea errazteko eta aldaketa sozio-ekonomikoko prozesuak azeleratzeko gizartean. Gaur egun abian dauden eraldatze-dinamikak honako hauek dira: Eko-berrikuntza; Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea; Laugarren Sektorea eta Enpresak Azeleratzea.

Halaber, barruti honetan agertoki berriak begiztatzen dira, makro-joera berriak, zeinetan Innobasque Euskal lehiakortasuna hobetuko duten aukeren bila lerrokatzen baita sarean lan eginez, Arbela, Esp@ Sarea, Adimen Emozionaleko Partzuergoa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea eta Iñaki Goenaga Teknologia Zentroen Fundazioarekin.

## Ekonomia Ekoberritzailea Dinamika

Ekonomia eko-berritzaile bati Euskadin bultzada emateko helburuarekin, Innobasquek hiru lerro estrategiko zehaztu ditu:

1. **Proiektu egituratzaileak sustatu.** Helburua: identifikatu, diseinatu eta ekimen eragile-anitzak eta sektore-anitzak sustatu ekoberrikuntza barruti berezi batean sartzeko jarduera-alor bat baino gehiago aplikatuz (adibidez, energia, garraioa eta eraikin jasangarriak hirietan).

2. **Sektore eko-berritzaileen dinamizazioa (EKOmunitateak).** Helburua: ekimen eragile-anitzak eta sektore-anitzak identifikatu, diseinatu eta sustatu jarduera-alor zehatzak eraldatzeko (EKOmunitateak) eko-berrikuntzako irizpideak sartuz: eko-teknologia, prozesu berdeak, enplegu berdea, ingurumenarekiko begirunetsuak diren produktuak eta zerbitzuak, etab.

3. **Eskaeraren aktibazioa.** Helburua: baldintza egokiak ezartzea sustatu esparru egonkor bat sortzeko eko-berrikuntzako eskaera publiko eta/edo pribaturako.

Jarduera horren kudeaketa Adituen Batzorde baten aholkularitzapean burutzen da gainera, zeina eratzen baitute Euskal Herriko Eko-berrikuntzaren barrutiko erakunde nagusiek.

### SOUTHERN EUROPE'S CLEANTECH HUB

### Adituen batzordea eko-berrikuntzan

2013ko lehen seihilekoan Eko-berrikuntzako Adituen Batzordeak 3 topaketa izan ditu eta haietan, besteak beste, honako gaiok landu dira:

- Cleantech Hub-en definizio estrategikoa eta geroko jarduera-lerroen identifikazioa
- Cleantech Forum Europe:
  - 8 lan-talde sortzea Hub-ak kudeatutako edukiak definitzeko Forumaren esparruan eta agenda lantzeko
  - Kontaktuak aktibatzea Latinoamerikan
  - 23 proiekturen identifikazioa, zeinetatik 11k parte hartu baitute Cleantech Groupen hautespen-prozesuan ekintzaileen showcasen parte hartzeko
  - Forumaren babesletza: 22 Adituen Batzordeko kideek sinatuak

### Kokamendu-ekintzak

2 ekimenekin parte hartzea Euskadin enpresek, ezagutza- eta berrikuntza-zentroek eta erreferentziako tokiko erakundeek antolatutako Teknologia Garbien Astean cleantech gaian: [2013ko apirilak 15-19]



## Cleantech Forum Europe 2013

Bilbon topaketa hau, Cleantech Group®ek antolaturik, funtsezko tresna bat izan da Southern Europe's Cleantech Hub ekimena maila globalean kokatzea bultzatzeko, izan ere ohargarria izan da haren nazioarteko ospea eta inbertitzaile, enpresa-korporazio, bazkidegai, bezerogai eta hornitzailegaien, ekintzailegaien eta Ete teknologikoen kontzentrazioa.

Hubak Forumean izan duen partaidetza sor-kidetzan eta lankidetzan urtebetez egindako lanaren emaitza izan da enpresa-antolakuntza, ezagutzakoen eta erakundeetakoen artean. Termino globaletan, 8 lan-talde aktibatu dira, 100 bat pertsona eta 55 erakunde tarteko direlarik.

Emaitza topaketa bat izan da eduki desberdingarriekin eta bertaratuen aldetik arrakasta izan du eta aukerak sortu ditu. Ia 500 bertaratu eta 320 erakunde baino gehiago 30 herrialdetatik etorriek parte hartu ahal izan dute honako hauetan:

- Tokiko eta nazioarteko hizlariekiko saio eta paneletan
- 5 aurkezpen 25 konpainia berritzaile baino gehiagorenak (showcases), zeinen artean baitzeuden 4 euskal herritar: Wattio, Likuid Nanotek, Gnarum eta Luix
- 4 saio negozio- eta inbertsio-aukerekin merkatu latinoamerikarretan: Brasil, Mexiko, Kolonbia eta Peru
- Networking y showroom gunea (Innovation Area) non aurkeztu baitziren proiektuak cleantech barruti desberdinetan: energia garbiak (Bidelek eta Ibil), inbertsioa (Repsol Fundazioko Ekintzaileen Funtsa eta Cleantech iNNvest Sarea), uraren eta hondar-uren kudeaketa Euskal Herrian, eta eraikuntza jasangarria
- 4 tour tematiko: Efficient Hometech Tour (Mondragon Korporazioa), Future Energies Tour (teknologia garbien proiektuak euskal energia-sektorean hala nola: Bidelek, Kubik edo Zabalgarbi), Sustainable Mobility Tour ("zerotik hurbileko karbono-aztarna" batekiko bidaia garraio-mota desberdinak erabiliz Bilbon) eta Renewables Applied Technology Tour (Energia Berriztagarrien Zentro Nazionala - CENER) [2013ko apirilak 16-18]

Laburpen bideoa:

Emaitzen txostena:

### Cleantech Forum Europe 2013ko zenbait datu:

500 bertaratu

320 erakunde,
115 Europaren Hegoaldekoak

33 herrialde

%17 Europatik kanpoko partaideak

%23 inbertitzaile,
%13 ekintzaile,
%26 enpresa-korporazio

450 prentsa-eragin 182 tokiko, estatuko eta nazioarteko mediotan

657 txio, 96.857 pertsona eraginpean

679 storifyrako bisitaldi




## Cleantech now!

Ekimen hau honako erakundeek antolatu dute: Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, UPV/EHU, Tknika, Tecnun, taZEBAez, eta Bilboko Udala, Bilboko Alhondigaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere izan du, teknologia garbiak gazteengana hurbiltzeko xedearekin, eta, oro har, gizartera, 2 jarduera barne-harturik:

- **GreenINN:** sortu, dibertitu eta presenteko enpresen geroaren parte sentitu nahi duten unibertsitate-ikasleei bideratutako tailerra haientzat zerbitzuak eta produktuak sortuz eta prototipo bihurtuz energia berriztagarrien eta jasangarritasunaren sektorean
- **Cleantech showcase:** lehiaketa honetan unibertsitate-ikasleek karrera-amaierako beren proiektua edo enpresa-proiektua aurkeztu zuten, teknologia garbien barrutian, eta irabazlearentzat saritzat ekintzailetza-gaian prestakuntza-programa bat izan da [2013ko apirilak 19]



Laburpen bideoa:

### GreenINN:

8 planteatutako erronka

245 ikasle 16 eta 26 urte artekoak

28 ekipo diziplina-anitzak

2.880 ideia sortuak

84 negozio-ideia berri

24 produktu edo zerbitzu berrien proposamenak




*"Massachusetts Clean Energy Center-ek Bilboko Cleantech Forumen parte hartzeak begiak ireki zizkigun Euskal Herrian dagoen energia berriztagarriko ekosistema indartsuarekin lankidetzan aritzeko aukera handira. Konferentziaz geroztik, Euskal Herria sustatzen aritu gatzaizkie cleantecheko geure 5.000 enpresei Massachusettsen europar merkatuan sartzeko haientzat izan daitekeen lekurik hoberenetako bat bezala".*

**James Bowen**, Business Development-en zuzendaria Massachusetts Clean Energy Center-en (USA)

*"Cleantech Forum Europe 2013k inoiz izan naizen topaketa arrakastatsuena dela erakutsi dit, negozio ukigaien aukerak sortze-terminoetan".*

**Alex McCracken**, Silicon Valley Bankeko Harreman-zuzendaria

*"48 ordu oso lanpetuak izan dira eta pertsona oso interesgarri batzuk ezagutzeko aukera izan dut mundu guztitik etorriak, neure herrialdean bertan. Soslai desberdinak aurkitu ditut (inbertitzaileak, bazkideak, bezerogaiak, etab.) epe laburrean garrantzitsuak gerta dakizkigukeenak modu askotara..."*

**Javier Lopetegui**, Likuid Nanotek-en zuzendaria

## Inbertsio- eta finantzazio-sarea: Cleantech iNNvest

Bilboko La Bolsan aurkeztu zen jendaurrean martxoaren 12an Innobasqueko Astearteen esparruan, Cleantech INNvest sarea, mota desberdineko inbertitzaileak konektatzen dituena (enpresa-korporazioak, kapital pribatua, teknologien garatzaileak eta inbertitzaile instituzionalak) proiektu berritzaileen konpainia eta sustatzaileekin, 14 bazkide fundatzailez osaturik dago: Bulka Angels, CAF, Gamesa, Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa, Iberdrola, Ibermática, Irizar, IK4 Research Alliance, Mondragon Korporazioa, Orza, Repsol Energy Ventures, Seed Capital Bizkaia, Talde eta Tecnalia.

2013ko lehen seihilekoan zehar sareak honako ekitaldiak burutu ditu:

- 24 proiektu berritzaile berriren analisia 120 identifikatutatik
- 7 inbertsio-kidetzako aukera
- Lankide desberdinen identifikazioa hala nola BBVA, Kutxabank, La Caixa, SODENA, Crecer+, ESADE BAN eta International Venture Club
- 2013 Ekintza Planaren barruan, Antena Sare baten bulkada begiesten da proiektuak atzemateko, bai eta Sarea sustatzeko komunikazio eta sustapeneko lanabes desberdinak ere

## Dinamizazio-ekintzak

3 lan-talde espezializatu identifikatu dira, emaitzetara bideratuak, irtenbide integralak diseinatu, sustatu eta merkaturatzeko nazioarteko lehiakortasun-dimentsioarekin:

- **Economic power of cities** garabideko merkatuetan gertatzen ari diren hiri-eraldaketen barrutian lehiakorrak izan daitezkeen irtenbide teknologikoak identifikatu, diseinatu eta balioesteko (Latinoamerika, Asia edo Afrika)
- **Clean manufacturing** enpresa-proiektuei bultzada emateko cleantech irtenbide berritzaileekin, euskal industria manufakturatzaile aurreratuari (advanced manufacturing) bultzada emanez erronka planteatuei erantzuna emango dietenak, nazioartera hedatzeko ikuspenarekin
- **Clean water & wastewater** itun estrategiko bat sortzeko Eteen artean teknologia berritzaileekin hondar-uren kudeaketan, zeinek ahalbidetuko baitu nazioarteko merkatuetan irtenbide integral lehiakorrak diseinatu, garatu eta merkaturatzea

## EKO-BERRIKUNTZAKO KASUAK ETA AZTERLANAK

Eko-berrikuntzako Kasuen Azterlan Tematikoaren barruan aurreikusitako kasuen amaiera:

- "Euskadin hondakinak kudeatzeko eredu berritzaile baten sor-kidetza", CIE Automotive-Ekonor-Eusko Jaurlaritza
- "Liderrekin sorkidetzan etorkizuneko sare elektrikoak egia bihurtzeko", ZIV
- "Barne bulkada berritzailea produktu lehiakorrak diseinatze aldera", Fagor Etxetresna elektrikoak
- "Eko-berrikuntza kudeaketa aurreratuko elementu desberdingarri bezala sektore kimikoan", A&B Laborategiak
- "Eko-diseinu efizientea kontsumitzaileari bideratua", Eroski
- "Eraikuntza jasangarria", Idom-ACXT
- "Green Capital baten hiri-eraldaketa", Gasteizko Udala.

# *Eko-berrikuntza: Geroa duen orainaldiko aukera bat*

Une zail hauetan, termino ekonomiko eta sozialetan, are garrantzitsuagoa da hazkuntza eta garapen sozialeko bidezidorrak berrartzera itzultzea ahalbidetuko duten jarduera berezien eremu berriak bilatzera ahaleginak eta baliabide hoberenak bideratzea. Begi-bistakoa da. Baina ez da hain begi-bistakoa zein diren eremu horiek jakitea. Ikuspen estrategikoaren jabe izatea eskatzen du apustuak egiteko eta gaitasunak haiek era eraginkor eta bikainean garatzeko.

Innobasquen apustu horiek bereziak, berritzaileak izan daitezen eragiteko eginkizuna dugu. Argi daukagu berrikuntza lehiakortasun-arrakasta- eta ongizate-iturri agortezina dela. Hortik dator eko-berrikuntzaren aldeko gure apustua. Eko-berrikuntza, Innobasquek ulertzen duenez, berritzea da eraginkorrak izateko baliabide natural urrien erabileran: energia, ura, airea, mineralak, baita hondarrak ere. Efizientzia horrek lehiakortasun handiagora garamatza, kostuak murriztu eta errentagarritasuna gehitzean, enpresez ari bagara, eta bizi-kalitatea eta ingurumena hobetzeaz, pertsonez ari bagara. Ildo horretatik, Grant Thornton konpainia ospetsuaren arestiko azterlan batean teknologia garbien merkatuaz*, teknologia horiek eskatzearen motiboez galde egin zitzaien exekutiboen erdiek honako hau erantzuten zuten: kostuak murriztea (%52) eta errentagarritasuna hobetzea (%45) zirela faktore determinatzaileak, gobernu-agindua betetzearekin batera (%44) eta gizartearekiko erantzukizuna (%41), ingurumen-arrazoiez harago.



**Asís Canales**, Eko-berrikuntza dinamikako Zuzendaritza Kontseiluko presidentea / Iberdrolako Erosketen eta Segurantzen zuzendaria

Nazioarte-mailan, herrialde lehiakorrenek eta berritzaileenek eta garabide betean daudenek, haien enpresek, gobernuek eta gizarteak argi eta garbi dute: teknologia garbien barruan berrikuntzak egin (cleantechs) eta haien aplikazioetan (hirietan, industrietan edo landa-guneetan) negozio-aukerarako, aberastasuna sortzeko, garapen sozial eta enplegurako aukerak dira. Hain zuzen horiek dira Euskadi erreferentzia bat izan dadin merkatu global horretan: bultzatu gure enpresek (handiek eta txikiek batera), ekintzaileek eta hezkuntza-zientzia-teknologiako sistemak aukera horietan parte har dezaten erakunde publikoen laguntzarekin eta gure aktiboen gaur eguneko ospearekin (hiri-eraldaketak, kalitatearen industria eta I+G+b desberdintzailea) eta enplegu-aukerak eta tokiaren garapena sor daitezen gizarte sarerako, batez ere gazteentzat.

Euskadiko lankidetza publiko eta pribatuan metatutako esperientziak abantaila bat ordezkatzen du helburu hori errealitate bihurtzeko eta Herrialde hori nazioarteko erreferentzia bat bihurtzeko irtenbide eko-berritzaileak, teknologikoak (cleantechs) eta ez teknologikoak (garapen soziala hirietan) garatzen eta merkaturatzen. Innobasque, bere bazkide-sarearekin lanean, abian da bide honetatik geroa duten orainaldiko aukerak bilatuz.

* "Capturing opportunity: Cleantech business booms around the world", Grant Thornton International Business Report 2012 – Cleantech sector focus

## EMAITZAK

- Cleantech Hub ekimena eta Cleantech Forum Europe aurkezteko enpresa-topaketa 24 enpresatako 38 pertsonaren partaidetzarekin [Deusto Business School - Madril, 2013ko otsailak 28]
- Cleantech iNNvest: 24 proiekturen analisia seihilekoan inbertsio-kidetzako 7 aukerarekin, eta sarearen aurkezpena [2013ko martxoak 12]
- Cleantech Forum Europe 2013ren aurkezpena komunikabideen aurrean [Cotec - Madril, 2013ko apirilak 10]
- Cleantech Forum Europeren ospaketa 2013 [Bilbo, 2013ko apirilak 16-18]
- Cleantech now!-ren ospaketa [2013ko apirilak 19]

## ALBISTE IZANGO DA

- Cleantech Hub ekimeneko 2013-14 Proiektu Plan bat diseinatu eta abiaraztea erakunde parte-hartzaile guztiekiko koordinazioan (Adituen Batzordea)
- Talde espezializatuen lanen hasiera Cleantech Hub ekimena dinamizatzeko: Economic Power of Cities y Clean Manufacturing
- Eko-berrikuntzako kasuen azterlana: ondorioak landu eta argitaratzea
- Cleantech now! 2014: proiektu berritzaileen deialdia eta gazteen artean hedatzea

# Gizarte Efiosasungarria eta Bizi Kalitatea Dinamika

Dinamika hau osasunari ekiteko era berritzaile bat da haren ahalmena ahalik eta gehien ustiatzeko Euskadiren lehiakortasun-iturri bezala, zehazki honetarako: gehiago eta hobeto bizitzeko, ingurunean balio ekonomikoa sortzeko eta osasun-sistemaren jasangarritasunari ekarpena egiteko.

Horretarako, "osasun-sistema hedatutik", harentzat , eta haren bidez jokatzen da eta erabateko koordinazioan sistema sanitarioarekin, aldi bereko eta koordinatutako jarduerak hedatuz 3 barrutitan:

- Pertsonen ahalmena osasunean
- Elikadura gizarte osasuntsu eta herrialde osasuntsu baterako
- Osasun-teknologiak




## PERTSONEN AHALMENA OSASUNEAN

Barruti horren helburuak honako hauek dira:

- Pertsonak sentsibilizatu osasunarekiko duten ahalmenaz, gaitu eta mobilizatu
- Sare formal eta informalak sortzea sustatu pertsonen arteko laguntza eta lankidetzarako

Honako hau lortzeko:

- Bizi-ohitura osasungarriak lortzeko
- Haien inguruneei eragiteko osasungarriagoak izan daitezen eta beste pertsona batzuei laguntzeko hori lortzen
- Parte hartu, norbanako-mailan, sare formal edo informalen bitartez, osasunaren balio-konstelazioaren edozein puntutan
- Osasunarekin zerikusia duten produktu eta zerbitzuen garapenean eskaera sortu eta lankidetzan ari izatea





# Osasuna guztion erantzukizuna da

Denok dugu zerbait esateko osasunaren gaian, pertsona bezala, enpresa bezala, administrazio bezala edo edozein motatako eragile bezala.

Ugariak dira gizarte bezala aurre egin beharreko erronkak, besteak beste, honako hauek bururatzen zaizkit: obesitate-pandemia batera garamatzaten bizi-ohituren aldaketa, bereziki kezkagarria haurrengan, gizartea zahartzea horrek ondorioz dakartzan gaixotasun kronikoekin baina bai eta haien beharrei erantzuten dien gorantz datorren merkatu baten ahalmenarekin ere; eremu desberdinetako garapen teknologikoak (biozientziak, nanozientziak, IKTak, fabrikazioa, horietako batzuk aipatzearren).

Erronka horiei erantzun egokia emateko, berehala ekitearen betebeharra eta erantzukizuna ditugu. Norbanako interesen mugak gaindituko dituen ekintza bat guztien ongitasun nagusiago baten alde, ziklo politikoak gaindituko dituena, pertsonen ahalmen eraldatzailea baliatu eta indartuko duena, eta guztiok elkartuko gaituena osasuna Euskadirentzat



**Azucena Castro**, Efiosasunaren dinamikaren Zuzendaritza Kontseiluko presidentea / Owlen zuzendari nagusia

lehiakortasun-iturri bat bihurtzeko.

Testuinguru honetan, uste dut Innobasqueren Gizarte Efiosasungarriaren dinamikak oso zeregin garrantzitsua duela, izan ere zeharkako ekimen sozioekonomiko batzuk bultzatu eta ezartzea lortu du (Katilu, Gosasun, Kronikoen sarea), mota guztietako 160 eragile baino gehiago aktibatu eta konektatzea, beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin elkarlanean aritzea berrikuntzako 19 proiekturen definizioan eta garapenean lankidetzan eta ikerkuntza bat zehazten, pertsonen ekintza ahaldundua konbinatuz (1.700 inguru) garapen enpresakoen eta teknologiakoekin, eta eragile ez-sanitarioak eta gizartea sentsibilizatu du osasunaren garrantziaz.

Aurreko lan guztia gizarte osasungarriago bat lortzera zuzendurik dago, gastu sanitarioak eta sozio-sanitarioak mantendu eta murriztera, zerbitzuen kalitatea urritu gabe, gure sektore ekonomikoetarako negozio-aukera berriak sortu eta enplegua sortzera.

## Bizi-ohitura osasungarriak

### Gosasun

Mugimendu sozioekonomikoa bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko elikaduran, jarduera fisikoan eta osasun emozionalean.

- 60 eragile baino gehiago mugimenduari atxikiak
- Tailer bat egin da, udalerriaren eta komunitatearen barrutian zentratua, eta bertan 55 pertsona izan ziren eta honako ekimen hauek aurkeztu ziren: bizitza osasungarriko ohiturak sustatu Bilboko Udalean, Agindu Bizitza Osasungarria proiektua (Osakidetza) eta Vitoria-Gasteizko Elikadura Behatokia [2013ko apirilak 19]
- Proiektuak abiaraztea lankidetzan helburu sozialak eta ekonomikoak dituzten eragileen artean, Gosasun tailerren esparruan sortuak:
  - Agindu Bizitza Osasungarria proiektua: Farmazia Fakultatea (UPV/EHU) Osakidetzarekin
  - Merkatuko proiektu posibleen balioespena elikadura osasungarria sustatzeko: Farmazia Fakultatea (UPV/EHU) Fagor Etxetresna Elektrikoekin
  - Vitoria- Gasteizko Elikatze Behatokiaren hedapena Euskadi guztira: Farmazia Fakultatea (UPV/EHU) Innobasquerekin
  - Agindu Bizitza Osasungarria proiektuaren hedapena Gosasun eragileen lokalizazioa baliatuz: Osakidetza Innobasquerekin
  - Bizitza osasungarria sustatzearen programaren hedapena haurre eta nerabeen artean: Eroski Fundazioa Kristau Eskolarekin
  - Ortisautza-ogirako "ziurtagiri" bat abiaraztea: Barrenetxe Gipuzkoako eta Bizkaiko beste okin artisau batzuekin

*"Guri, ikerkuntza eta ekintzatik elikaduraren barrutian lanean ari garenoi, Gosasun balio handiko ekimena iruditzen zaigu, zeren eta osagarriak izan daitezkeen alorretan lanean ari diren jatorri desberdineko eragileak ezagutzea eta kontaktuan jartzea ahalbidetzen duelako. Izatez, dagoeneko ezarriak ditugu lankidetza-harremanak 3 eragile desberdinekin abian ditugun praktika hedatzeko, geure esperientzia beste batzuen ekimenei ekarri eta gure ezagutza produktu edo zerbitzu zehatz bihurtzeko aukera aztertzeko".*

**Bittor Rodriguez**, UPV/EHUko Farmazia fakultateko irakaslea

## Crowdsasuna



Innobasque, GoteoEuskadi sare sozialarekin lankidetzan, joan den ekaineko hilean finantzazio kolektiboko ekimen hau abiarazi zuen osasun-maila eta euskal gizartearen, oro har, edo haren biztanleriako sektore jakin batean eta enpresek, elkarteek edo norbanakoek bultzaturik bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten proiektu berritzaileetarako.

Crowdsasunak produktuak, zerbitzuak edo teknologiak bilatzen ditu bizitza osasungarriko portaerak eta ohiturak sustatu eta garatzen dituztenak, bizi-kalitatea hobetzeko gai direnak, hala nola norbere buruaren zainketa, autonomia pertsonala, prebentzioa, artapen sanitarioa, zahartze aktiboa, kronikotasuna edo elbarritasun fisiko, sentsorial edo intelektualak.

Crowdfunding-a hautatu da proiektu horiek finantzatzeko eredu berritzaile bezala zeren eta, hartara, pertsona kopuru handi baten inplikazioa eta lankidetza lortzen baita. Gainera, Crowdsasunareren crowfunding-ak “kapital erregarioa” ere bere baitan hartzen du, GoteoEuskadi asmatutako terminoa, erakunde publikoetatik, enpresetatik eta beste entitateetatik datozen ekarpen desberdinek osaturiko inbertsio sozialeko poltsa bat, zeinek osatzen baitituzte norbanakoen ekarpenak. Hartara, ondorio biderkatzaileak lortzen dira eta erantzukidetzako inbertsioak lortzen dira, garatzen diren lekuetan aldaketa positiboak eragiten dituztenak.

Deialdiko epean zehar, ekainaren 3tik 30era bitartean irekita, 30 proiektu-proposamen jaso ziren, eta horietatik 25ek osatu zuten prozesua. Haien artean, 5 proiektu hautatuko dira, aholkularitza espezializatua hartuko dutenak beren emaitzak maximizatzeko, bai eta eragile lankideekin, preskriptoreekin eta eragile posible inplikatuekin konexioa aktibatzeko ere.

# Pertsona eta sareen aktibazioa

## Kronikoen sarea

“Ikasi zeure burua zaintzen” ekimena abiaraztea, izaera birtualeko hileroko topaketa, zeinean ekiten zaien norberaren burua zaintzearekin zerikusia duten gaiak, eta Campus Sanofik lagatako plataforma baten bitartez burutzen dena. 2013ko lehen seihilekoan zehar honako saioak egin dira:

- “Jarduera fisikoa, ariketa fisikoa, kirola, zer egin behar dut?”, Kepa Larreak bideratua (Athlon) [2013ko martxoak 20]
- “Mediku jauna/andrea, infoxikaturik nago, larria al da? Prebentzioa, diagnosia eta tratamendua”, Rafa Olalde, Osakidetzako familia-medikuak eta blogariak bideratua [2013ko apirilak 24]
- “Zein da pazienteen sare sozialen eragina?” Gonzalo Bacigalupe (Ikerbasque) eta Roberto Nuño (O+berri) [2013ko maiatzak 15]

*“Crowdsasunarekiko esperientzian gehien gustatzen zaiguna prozesu-estrategia zabalago batean integraturik egotea da, osasunaren eta bizitza osasungarriaren inguruan artikulaturik era askotarikoan. Mundu guztia dago oso inplikaturik eta gauza bat da interesgarria: finantzatzea bilaketa helburuetako bat bakarrik dela, oso dimentsio garrantzitsua hartzen duelarik gure egiteko moduak birplantzeatzeko, besteak inplikatzeko, komunikatzeko, itzulera kolektiboak era aske eta irekian formalizatzeko erakundeen eta pertsonen behar orokorrak... Hunkigarriak eta motibagarriak dira norbere burua birpentsatzeko erronkari aurre egiteko gogo horiek, crowdfunding-a dirua lortzeaz haragoko esperimentu eraldatzaile bezala ulertzeko ere”.*

**Ricardo Antón**, Amastéko zuzendarikidea

# GIZARTE OSASUNTSU ETA HERRIALDE OSASUNTSU BATERAKO ELIKADURA

## Katilu

Nekazaritza-Elikagaiko Berrikuntzako Unitate Mistoa Eusko Jaurlaritzak sustatua, Innobasquek, Hazik, Neiker-Tecnaliak eta Azti-Tecnaliak eratua.

2013 ekintza-planaren esparruan, seihilekoan zehar honako ekimenak burutu dira:

- Nekazaritza-Elikagaiko Berrikuntza eta Agenda Digital Landakoaren Foroko idazkaritza tekniko bezala:
  - Landa Garapeneko Planeko partaidetza-prozesua diseinatu eta garatzean parte-hartzea (LGP) 2014-2020
  - Landako Euskadi SAREAN: hiru proiektuen analisi eta diseinu-fasea amaituta: PER-Landako Euskadiren Plataforma, Negozio Elektronikoa eta erreserben Zentrala
- Landa- eta kostalde-inguruneko eragileen proiektuen fase desberdinen parte-hartzea:

Europa Batzordeak, European Innovation Partnership-eko (EIP), "Agricultural Productivity and Sustainability" ekimenaren bitartez, 2020 Europa Estrategiaren esparruan garaturik, **Katilu** proposatu du nekazaritza-elikadurako **"innovation broker"** bezala EAEn.

Horrek europar-mailan kokatu egingo luke **Katilu** eragile edo bitartekari bezala bi alde edo gehiagoren arteko berrikuntza-prozesuko edozein alderditan, lankide posibleei buruz informazioa hornitzea bezalako jarduerak barne-hartuz: bi alde edo gehiagoren artean eragiketa batean bitartekaritza, bitartekari edo tarteko bezala jokatuz dagoeneko lankidetzan ari diren organismo eta erakundeen artean aholkularitza, finantzatzea eta emaitzen berrikuntzarako laguntza bilatzen lagunduz lankidetza mota orretan.

- Landa emakume enpresaburuak. Hazirekiko lankidetza elkar ezagutzeko tailer bat antolatzen eta kezka, behar eta itxaropenei buruzko elkarrizketa, nola norbanako-mailan hala talde-mailan, bertan 10 emakumek parte hartu zutelarik. Hurrengo pauso bezala prestakuntza bat garatu da komunikazioan eta marka pertsonalean
- LIFE+ Ordunte Jasangarria habitatak berrezarri eta iraunarazteko Komunitate Intereseko Lekuko espezieak (KIL) Ordunte Mendikatean (Bizkaia). Partaidetza-prozesuaren diseinua eta Abeltzaintzako Jarduera Onen tailerreko lehen saioa, zeinean parte hartu baitzuten Orduntek 12 abeltzainek [2013ko maiatzak 3]
- Oihazaintzako Biomasa. EVE eta haziren arteko bost topaketaren dinamizazioa bi erakundeen arteko sinergiak identifikatzeko eta haien arteko lankidetza sustatzeko oihanzaintzako biomasaren eskaria gehitzeko ustiapen termikorako eta oihanzaintzako biomasaren kudeaketari irtenbideak bilatzeko energia-erabilerara bideraturik
- UPV/EHUko uda-ikastaroan "Arrantzale-komunitatea aldaketan sartua", Hazik antolatua eta bertan administrazioaren eta itsas arrantzako sektorearen posizioa eta erreformaren berri ezagutarazi zen Arrantza Politika Komunaren eta haren elementu nagusien aurrean. Era berean, esperientzia eta ekimen arrakastatsuak aztertu ziren Europa Batasuneko beste gune batzuetan gure errealitatera transferituak izateko gai direnak [Miramar Jauregia - Donostia, 2013ko ekainak 28-29]

*"Katilu izango da oinarrietako bat euskal sektore primario eta nekazaritza-elikadurako eta landa- eta kostalde-ingurunea eraldatzeko, eta erreferentzia izan daiteke beste ekoizpen-sektore batzuen garapenari aplikatzeko".*

**Bittor Oroz**, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordea

- Pertsonak berrikuntzarako gaitzea:
  - Ikastaroa: "Aldaketa asmozkoa benetako partaidetzaren bitartez" nekazaritza-elikadurak eta landa- eta itsas sektorean aldaketa-proiektuaren bideratzaile eta eragile izateko Ikastaroan, Eugenio Molini, partaidetza-prozesu eta aldaketa-kudeaketan nazioarteko aditua denaren eskutik garaturik, 28 pertsonak esku hartu zuten nekazaritza-elikadura eta landa- eta itsas inguruneko erakunde desberdinetatik [2013ko urtarrilak 24-25 eta otsailak 21-22]

## TEKNOLOGIA SANITARIOEN SEKTORE GARAPENA

Aurrera egiten jarraitu da, Bioefekin batera, "Produktu, zerbitzu eta irtenbide sanitarioak abiarazteko Sarea" definitzen, metodologian eta sortzen. Ekimen horrek behar erreal bati erantzuten dio, alde batetik industriarena prozesua ezagutzekoa eta kontaktatu beharreko eragileena prozesu horretako puntu bakoitzean, eta bestetik sistema sanitarioarena, eragile industrialena lankide posible direnena produktuak, zerbitzuak eta irtenbide sanitarioak garatze- eta abiarazte-prozesuan.

## EMAITZAK

- 60 eragile Gosasun mugimenduari atxikiak
- 3 topaketa birtual "Ikasi zeure burua zaintzen" [2013ko martxoak 20, apirilak 24 eta maiatzak 15]
- Crodwsasuna abiaraztea [2013ko ekainak 3]
- **Guztien ondasunak eta erakunde kolektiboak EAEko lehen sektorean kudeatzeari buruzko azterlana** [2013ko ekainak 11]
- Uda-ikastaroa "Arrantza-komunitatea aldaketan sartua" [Miramar Jauregia - Donostia, 2013ko ekainak 28-29]

## ALBISTE IZANGO DA

- Katiluren hautagaitza ebaztea berrikuntza-broker bezala [2013ko uztaila]
- Proiektua abiaraztea "Produktu, zerbitzu eta irtenbide sanitarioak abiarazteko sarea" [2013ko uztaila]
- Gosasuneko web gunea [2013ko iraila]
- Gosasun zigiluaren abiarazpen ofiziala [2013ko iraila]
- Gosasun eragileen tailerra [2013ko azaroa]

# Enpresak Azeleratzailea Dinamika

Dinamika espezializazio lerro bezala sortzen da Innobasquek bere jaiotzatik garatuak zituen jardueretatik ekintzailetzaren barrutian, heziketa handiko enpresen garapena bultzatuz, aberastasuna eta enplegua sortzeari egiten zioten ekarpena garrantzitsuarengatik. Ideia honako hau da: Innobasque proiektua eratzen duen kapital soziala balioan jartzea eragin handiko enpresa-ekimen berrien bulkadarekin.



## ABIAN DAUDEN PROIEKTUEN EGOERA

### Azeleratze-prozesua amaitu duten enpresak

- **Hib- S*Concept:** enpresa hau dagoeneko bere hazkuntza sendotzearen aldian aurkitzen da, ezarritako planaren arabera. Hartara, aurreikusitako dago Alemanian mendeko lantegi bat irekitzea 2014ko urtarrilean. Gainera, nazioartekotzearen alde egindako apustuarekin jarraituz, Dubaiko azokan lortutako arrakasta aipatu beharko genuke, zeinen ondorio bezala orduan jasotako zenbait eskaintza gauzatzeko lanean ari baita

### I faseko enpresak: azeleratze-prozesua

- **Virtualware:** bere negozio-planean markaturiko erronkak egikaritzen jarraitzen du, nazioartekotzearen fokapen argi batekin eta produktu berriak sortzen, batez ere gaixotasun neuro-degeneratiboen alorrean. Innobasque lankide izan da bazkide berriak atzematen eta merkatuak irekitzen, zehatz esateko, Arkautiko Akademiarekin eta Igualatorio Medico Quirúrgicoarekiko harremana bideratu da

- **Gese:** negozio-plan berri askonahiagoaren inguruko gogoeta amaitu eta gero, lanean ari da, bazkide inbertitzaile berriak bilatzen eta udalerri-sarera eta Eudelera hurbiltzen. Gaur egun, Gese bere fakturazioan oso hazkuntza handia izaten ari da, izan ere, 2013ko fakturazioa aurreikusten da zazpi aldiz handiagoa izango dela joan den ekitaldiarekin konparatuta

- **Bidatek:** martxoan eratu zen enpresa honen kontraste-taldea, ur beltzak arazten espezializaturik dago zizareek sortutako bio-iragazkietan oinarritutako metodo berritzaile baten bitartez. Ondoren, maiatzean, Azeleratzailean sartzeko akordioa sinatu zen. Gaur egun negozio-plan berri bat amaitzen ari da, eta inbertitzaile berriak bilatzen

### Prozesuaren hasiera-faseko enpresak

2 enpresa berrirekiko harremanak haiek Azeleratzailean sartzea aztertzeko: Ideable eta Dualia.



## Clean water & wastewater

Teknologia garbiak integratuz hondar-uren kudeatze eta tratamenduan espezializatutako euskal konpainia berritzaileen itun estrategiko bat sortzea bultzatzen ari da Innobasque. "Clean water & wastewater", honako hau ahalbidetzeko:

- nazioarte-mailan produktu eta zerbitzuen eskaintza integral bat merkaturatu, zeinek irtenbidea emango baitie hondar-uren tratamenduari eta arazteari
- Dimentsio egoki bat lortu merkatu globaletan lehiakide izateko aukera emango diena, nola aurreratuetan hala gorantz datozenetan

Gaur egun, 6 dira negozio-eredu berri bat sortzeko bide hori arakatzen ari diren enpresa txikiak (HBiO Reto XXI, Likuid Nanotek, Bidatek, SUDS, Conaqua eta Innobak Systems), tokian erroturik dagoen enpresa-korporazio handi baten laguntzarekin: Degrémenot Iberia eta tokiko erakunde publikoen laguntzarekin (Bilboko Udala, Bizkaiko Uren Partzuergoa eta Eusko Jaurlaritza).

Ekimen horren izaera berritzailea irtenbide desberdinek markatzen dute eta hondar-urak tratatzeko prozesuei egiten dieten berrikuntzak, honako hauek barne-hartuz:

- Ur beltzen tratamendua zizareen bio-iragazkien bitartez
- Ur grisen tratamendua eta haiek ur sanitarioetarako berreskuratzea mintz-mota desberdinen bitartez
- Euri-urak biltzea plataforma desberdinen bitartez
- Urak araztea ozonoa sortzeko prozesu berritzaileen bitartez
- Ingeniaritza global bat hondar-urak tratatzeko

Innobasque bere kapital berritzailearen eta harremanezkoaren ekarpena egiten ari zaio proiektu honi, bai eta itun publiko eta pribatuen bere dinamizazio-gaitasunaren ere, bere eraldaketa-dinamiken hiruren baterako lanaren bitartez: eko-berrikuntza, enpresak azeleratzea eta laugarren sektorea.

*"Neuri dagokidanez, interes berezia nuen Enpresen Azeleratzailea proiektua ezagutzeko, ekimen horren gainean proiektu pilotu bat lantzen ari baikara Txilen. (...) baliagarria izan daiteke aipaturiko ekimen horretarako aitzindaria baita nire herrialdean".*

**Eduardo Lavado Valdés** (Ph.D), Irtenbide Jasangarriak Kudeatu-ren zuzendari nagusia (Txile)

*"Azeleratze-programa lehen etapa honetan ingurune egoki bat da gogoeta estrategikorako eta gure negozio-planerako".*

**Borja Vallina**, Bidatek-en kudeatzailea

### EMAITZAK

- Hib-S*Concept-en parte-hartzea Dubaiko Azokan
- Bidatek Azeleratzailean sartzeko akordioaren sinaketa [2013ko maiatzak 3]
- Clean water & wastewater proiektua abiaraztea [2013ko martxoak 20]

### ALBISTE IZANGO DA

- Hib-S*Concept-en hedapena irekitzea Alemanian [ 2014ko urtarrila]
- Itun estrategiko bat sortzea hondar-uren enpresa berritzaileen artean (clean water & wastewater)

## Laugarren Sektorea Dinamika

Dinamika eraldatzaile honen helburua baloreak, ideiak, ekimenak eta negozio berritzaileak aztertu, bultzatu eta garatzea da, zeinek emango baitute aukera erronka sozial gaurko eta gerokoei aurre egiteko, eta horrek guztiak gizarteko garapen sozial, ekonomiko eta ingurumenekoari mesede egin diezaiola irekia, solidarioa, berritzailea eta jasangarria izan dadin.

## 2012 Mundu Itunaren Aurreratze Txostena

2013ko ekainean aurkeztu genuen 2012 Mundu Itunaren Aurrerazte Txostena eta geure konpromisoa erakutsi genuen Nazio Batuen Mundu Itunak sustatzen dituen helburu eta printzipioekiko, eta gure stakeholder eta gizarteak oro har dituen interesekiko.

Txostenak honako hau islatzen du: 2012an gure bazkideentzako kanal eta zerbitzu berriak inplementatu ditugula, bateratzea hobetzeko barne-ekipo baten proposatutako ekintzak abian jarri ditugu eta praktiketako gazteen integrazioa sustatzen jarraitu dugu Innocampus ekimenarekin. Gainera, ekimen publiko eta pribatuak garatu dira EESaren inguruan, ekonomia eko-berritzailea bultzatu dugu Euskadin Southern Europe`s Cleantech Huben garapenarekin eta balioa sortzen jarraitzen dugu gure stakeholderrentzat, urtero inbertitutako euro bakoitzeko balioa gehituz, 2012an haziz jarraitu duena.

## *Laugarren sektore, balio sozial eta ekonomikoa sortzen Euskadirentzat*

"Laugarren Sektoreko" Zuzendaritza Kontseiluak honako misio hau du helburu: enpresak, enplegua eta aberastasuna sortzea ahalbidetuko duen berrikuntza sozialaren lider eta trakziogile izatea gure gaurko eredu sozioekonomikoaren zentzu eraldatzailearekin.

Innobasqueren Laugarren Sektorearen dinamikaren helburua enpresa-jarduera eraldatzea da beren emaitza ekonomikoek nagusiki finantzaturiko xede sozialekin, lan globaleko esparru bat eskainiz, zeinek indartuko baititu gaur egun alor horretan lanean ari diren erakundeen gaitasunak, lan-barruti berriak abian jarriz eta haien nazioartekotzea areagotuz.

Laugarren Sektore ezaugarritutako hiru sektoreetako kudeaketa-praktika desberdinen bateratze eta hibridatze-gune bat da, besterik gabe, barruti pribaturik gero eta gehiago kontuan hartzen delako "soziala dena", baloreak, etika, etab., barruti publikotik gero eta enpresa-kudeaketa gehiago egiten da, efizientzia gehiago bilatzeko lankidetzen bitartez, eta Hirugarren Sektoretik gero eta enpresa-proiektuekin profesionalizatze eta lotze handiagoa ikusten ari gara.

Jarduera ekonomikoari ekiteko modu honek etekin ukigaizko multzo dagoeneko ebaluatu bat du, hain argia non efikazia



**Txema Franco**, Laugarren Sektorea dinamikako Zuzendaritza Kontseiluko presidentea / Lantegi Batuak-en zuzendari nagusia

eta efizientzia terminoetan inbertsio publikoaren itzulkin ekonomikoarena bezainbestekoa baita. Eta etekin ukiezin garrantzitsuak ere baditu: hala nola pertsonak oinarrizko erreferente bezala kokatzea, kohesioa soziala hobetzea, gune ireki batean lidergo partekatua, lanean ari direnen partaidetza eta konpromisoa, interes-taldeena eta gizartearena erakunde-mota horiekin, antolatze-egitura horizontalagoen garapena. Ekintzaile sozialekiko harreman bizia eta ekonomia sozialarekin ere bai zentzu zabalean, fokapen "glokala", jardueren eta emaitzen gardentasuna, sareko lana, helburu sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak lortzea, pertsonentzako proiektu ilusionagarri eta erakargarriak abian jartzea eta interneteko web gune sozialeko laguntza dira eredu berria garatzeko osagaietako batzuk.

Euskadin balore soziala eta ekonomikoa sortzeko dinamika bat sustatzeko, era jasangarrian erronka sozial handiak gainditzera bideratutako negozioak egiteko modu berritzaile baten bitartez, Innobasquetik ahalik eta sinergikoen jokatzea proposatzen dugu enpresa-garapeneko lau barruti kritikoaren gainean: kudeaketa (EES), ekintzailetza (ekintzailetza soziala), nazioartekotze-eredua (POan "negozio barne-hartzaileen" bitartez) eta finantzazio-mekanismoak (finantza sozialak, banku etikotik crowdfunding-eraino mikrofinantzetatik igaroz).

# ENPRESA ERANTZUKIZUN SOZIALA

## Erantzukizun soziala giza eskubideekin energia-sektoreko hornitze-katean

Proiektu pilotu hau abiarazte-topaketa eginik Euskadiko energia-sektoreko hornitze-kateko giza eskubideen gaian beharrezko prestutasuneko gaitasunak eta sistemak sendotzeko.

Proiektuaren helburuak honako hauek dira:

- Energia-sektorea kokatu eta, ondorioz, Euskadi nazioarteko erreferentzia bezala giza eskubideen sektore sozialki erantzule bezala
- Plataforma bat sortu sektore-elkarrizketarako, zeinean ekingo zaien enpresaren balio-kateko giza eskubideei atxikiriko erronka eta sektore-aukerei
- Optika berri bat sustatu gaur eguneko kudeaketa-ereduen aurrean, interes-talde guztientzat etekin partekatua sortuz

Proiektuaren emaitza bezala, zeinean parte hartzen baitute 4 enpresak (Arteche, Gamesa, Ingeteam eta Ondoan), lanabesak eskuratuko dira giza eskubideak kudeatzeko hornitze-katean eta jokabide-kode etiko bat adostuko da Euskadiko energia-sektorerako. [Zamudio, 2013ko maiatzak 24]




## Bioeskola - Innovalan

Bioeskola ekimenak, Innovalan proiektuaren esparruan sortua, bere lehen urratsak egin ditu Zamudioko Ospitale Psikiatrikotik datozen 10 pertsonak dagoeneko lan egiten duten nekazaritza-ustiategia abiaraztearekin, datozen hilabeteetan 22raino iristea aurreikusten delarik.

Baratza, hazkuntza ekologikokoa, Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeak Bilbo Emausi lagatako lursailetan kokaturik dago eta lursail horiek BBKko Gizarte Ekintzaren ekarpenari esker egokitu dira.

Bioeskola, bazterkeria sozialeko arriskuan dauden pertsonen barneratze sozio-lanekoa bideratzen duena, jarduerak garatuz, zeinetan lehentasuna ematen zaien ekonomia sozial eta solidarioko baloreei, zeinak eskura egongo baitira irailetik aurrera Bizkaiko Teknologia Parkean.




*"Ingeteam honako proiektuaren parte da: "Erantzukizun Soziala Euskadiko energia-sektoreko hornitze-kateko giza eskubideekin", eta hori Innobasque bultzatzen ari den proiektua da. Proiektua zuzeneko ezarpenekoa da EES kontzeptuetan Ingeteam bilakaeran esperimentatzen ari dena. Araudien joerak eta bezero eta hornitzaileekiko zuzeneko harremana gero eta gehiago ari dira markatzen bere jatorritik EES definitzen ari den mekanismoak egunean-egunean kontuan izan beharra".*

**Eduardo Giménez Sainz de la Maza**, Ingeteamen Marketineko korporazio-zuzendaria

# PO NAZIOARTEKOTZEA

## Enpresak laguntzea

PO kontzeptuaren oinarri teorikoak finkatu ondoren aldez aurretik egindako ikerkuntzei esker, 2013an PO Nazioartekotze-alorra, ChangeFusion Europe aholkularitzarekiko lankidetzarekin, PO merkatuetan nazioartekotzean interesaturiko euskal enpresei laguntze praktiko eta hurbila ematea jarri da helburutzat. Eginkizun hori, nagusiki beharren analisian zentratzen da eta tokiko bazkideekin itun sendoak sortzen POko merkatuetan lur hartzea bideratuz.

Adibideetako batzuk: Urkide Berrikuntza Zentroa Uruguayn egin duen errotzearekin (hezkuntza-sektorea), Anesvad Fundazioa Indian sartzeko tokiko enpresa sozial baten bitartez (osasun-sektorea) eta ekintzaile entomologo talde bat Tailandian intsektuak ekoizten interesatuak abelazkuntzako industriarentzat elikatzeko iturri hautabide bezala (elikadura- eta ingurumen-sektorea).

**Global Social Entrepreneurs Network (GSEN)**, atxikitzen zaio **Innobasque** UnLtd UK eta Britainiar Gobernuak bulkaturiko sareari, herrialde garatuetako agentziekin Piramidearen Oinarriko merkatuetan ekintzailetza sozialari laguntzeko agentziak konektatzen dituena.

## HBiO Ituna Last Mile for BOPekin Hegoafrikan

Laguntze-programaren barruan HbiO euskal enpresaren kasua nabarmentzekoa da, eta haren HBQ produktua urak edangarri bihurtzekoa Innobasquek itun baten sinadura bideratu du euskal enpresaren eta Last Mile for BOP konpainiaren artean, Hego Afrikan Piramidearen Oinarrira bideratutako produktuak eta zerbitzuak merkaturazten aritzen dena.

Akordio horren bitartez, Last Mile for BOP tokiko bazkide izatera pasatzen da, zeinek ordezkatuko batu HBiO Hegoafrikan HBQ kartutxuak merkaturatzeko. Last Mile for BOPek ekintzailetza sozialeko banaketa-kanal berritzaile bat erabiliko du tokiko sareekiko itun estrategikoetan bermatuko dena, entitate mikrofinantzario eta toki-garapeneko agentziekin, haiek guztiak tokiko testuinguru hegoafrikarraren ezagutzaile hoberenak direlarik eta, ondorioz hegoafrikar biztanleriaren eskari eta beharrena.

*"Pauso handiak ematen ari gara geure nazioartekotze-prozesuan, Piramidearen Oinarrian. Ikaskuntza handi bat bihurtu da Innobasquek ematen digun lan berritzailearen esparruan partekatzen duguna".*

**Isabel Orbañanos**, Urkide Pedagogia Berrikuntzako Zentroaren arduraduna

Itun horretako lehen urratsa bat proba pilotu bat abiaraztea izango da Lurmutur Hiriko ipar-ekialdean, non instalatuko baitira zenbait HBQ gailu haien portaera teknikoa aztertzeko asmoarekin tokiko komunitateen eguneroko erabilereraren aurrean, bai eta eragin sozial handiko enpresa-proiektuetan inbertitzeko interesa duten eragin-inbertitzaileak, nola euskal herritarrak hala hegoafrikarrak edo nazioartekoak erakarriko dituen lehen arrakasta-kasu bat izateko ere.

*"Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa eta ekintzaren aldeko apustua egin du krisia gainditzeko, Eteen berraktibatzeari lagundu eta enplegua sortzea faboratzeko. Enpresa berriak sortzeko bere konpromisoaren garapenean jarduera-eremu berri bat ireki du ekintzailetza eta berrikuntza sozialean zentratua. Honetan erabateko zentzua du gure lankidetzak Laugarren Sektoreko Zuzendaritza Kontseiluan eta Innobasqueko Finantza Sozialen i-Taldean".*

**Sergio Murillo**, Bizkaiko Foru Aldundiko Mendekotasun Arreta eta Autonomia Pertsonalaren Sustapeneko zuzendaria

## EMAITZAK

- "Erantzukizun Soziala Euskadiko energia-sektoreko hornitze-kateko giza eskubideekin", proiektu pilotua abiaraztea [2013ko maiatzak 24]
- HBiO eta Last Mile for BOP-en arteko ituna

## ALBISTE IZANGO DA

- Laguntze-prozesu bat abiaraztea landan euskal enpresentzat Poko nazioartekotze-prozesuetan, bekadun espezializatuen lanari esker PO negoziotan, Eusko Jaurlaritzaren Global Training Programaren esparruan [2013ko azaroa -2014ko ekaina]

Honako hau partekatu nahi dut . . .

# Nola kudeatu zeure nazioarte-agenda

## Globalizazioak eta teknologi aberriek desagerrarazi egin dituzte merkataritza-mugak.

Ekintzaileek eta enpresek argi daukate berena urrerapena nazioarteko hedapenari loturik doala. Joko-arauak aldatu egin dira eta edozein enpresak, gaur egun, tamaina alde batera utzita, jo dezake nazioartekotzearen abenturara.

Testuinguru honetan, inoiz baino beharrezkoagoa dugu geure agenda menderatzea berak gu menderatu baino lehen, nazioarteko bidaia edo elkarrekintza bakoitzean efizientzia maximizatzea eta kostuak minimizatzea lortzeko. Hori lortzeko, funtsezkoa da agendaren plangintza zorrotza burutzea, eta bertan lortu beharreko lehentasunak eta helburuak finkatu behar dira, eta, jakina, hori guztia modu bikainean orkestratzea.

## Nazioartekotzearen jatorriak

Sekula ez dut ahaztuko lehen aldiz hegazkinera igo nintzen eguna. Zoragarria iruditu zitzaidan hain denbora laburrean leku desberdin batean egoteak sortu zidan sentipena, beste kultura batzuetarako irispidea izatea, beste pertsona batzuengandik ikastea eta abentura berriak bizi izatea. Berehala konturatu nintzen hori zela nire giroa eta bidaia horren atzetik beste asko etorriko zirela. Eta hala izan zen. Hegazkin horrez geroztik 3 herrialde desberdinetan ikastea erabaki nuen (Alemania, Erresuma Batua eta Frantzia) eta Paris, Oxford, Canterbury, Frankfurt, Berlin, Bartzelona, Madril eta Bilbo hirietan bizi izan eta lan egitea, azken hiri hori delarik nire egoitza, nire portua eta aireportua. Esperientzia horrek zaildu eta etorkizunerako prestatu egin ninduen, zeren eta hizkuntzez gainera, besteak beste, trebetasunak garatzeko aukera eman baitzidan hala nola malgutasuna, moldakortasuna, aniztasuna preziatzen eta kudeatzen jakitea... nolakotasun horiek ezinbestekoak dira nazioarte-ingurunetan eta ekipo kultura anitzekoekin lan egiteko. Agian horregatik azkenerako Microsoft bezalako konpainia batean lan egitera iritsi nintzen. Oraindik gogoan dut haren Madrileko egoitzara iritsi nintzen lehen eguna, izan ere hizkuntza desberdinak korridoreetan entzun eta 23 herrialde desberdinetatik etorritako hainbeste jende askotarikoa ikustean, etxean bezala sentitu nintzen.

## Bidaiarako gomendio batzuk

Maleta arrazionalizatzea oinarrizkoa da bidaia bati kiten diodan bakoitzean, zeren eta nire bulegoaren eta nire etxearen edukiontzia baita, mugikortasunean nagoenean. Nire ingurune hurbilekoenean txantxetan esaten dute beti laguntzen nauen maleta nire gorputzaren luzapen bat izatera pasatu dela. Urteekin eta esperientziarekin, bidaiatzerakoan neure ekipaia optimizatzen ikasi dut eta horregatik, maletaren pisua, materiala, tamaina, edukia eta ergonomia oinarrizkoak dira.

Edukiari dagokionez, zenbat eta ekipaia gutxiago eta erabilera askokoagoa, hobeto. Guneak optimizatu eta egun bakoitzean jantzi beharrekoa planifikatze kontua da. Gero eta denbora gutxiago eskaintzen diot maleta egiteko uneari, esperientzia hori ere profesionalizatu egin dut eta era sistematikoan etorriko diren bidaietarako kit prestatuak dauzkat, prestatze-denbora minimizatzeko helburuarekin eta ezinbestekoena hazte klasikoak.

Nazioarteko bidaien beste erronketako bat "jet lag" delakoa da. Bere ondorioak murrizteko behar adina edari hartzen saiatzen naiz hegaldian zehar ongi hidrataturik mantentzeko, ohi baino goizago lotarazten saiatzen naiz ekialdera hegaldi bat hartu baino egun batzuk lehenago; mendebaldera hegaz egiten badut, ohi baino beranduago lotaratzen naiz. Adibidez, gure egoitza dugun Seattlera noanean, ahal dudan guztia lo egiten dut

## Montse Pardo, **Microsoft Ibérica**ko Erakunde Harremanetako Kudeatzailea (LCA)



hegaldian, eta esnaturik egoten saiatzen naiz egunean zehar.

### Teknologien funtsezko eginkizuna

Teknologia berriek irauli egin dute negozioen ikuspegia munduan eta aldarazi egin dute bidaia nazionalak eta nazioartekoak planifikatu, kudeatu eta optimizatzeko modua. Lekuz aldatzeko beharra ere murriztu dute aurrez aurreko bilerak egiteko, zeren eta bilera birtualak egin baitaitezke kostu oso baxuarekin "hodeian", komunikazio-plataforma bateratuen bidez enpresarako.

Hodeiak izugarri erraztu du milaka pertsonako nazioarteko ekipo batean lan egitea eskatzen duen egunean eguneko nire lana. Microsoften lan egitean gehien balioesten dudan gauzetako bat familia-bizitza eta lanbide-bizitza bateragarri egin ahal izatea da lan malguari esker. Nire kasuan, Bilbon bizi naiteke, nazio-mailako ardura bat izan eta elkar eraginean ari izan naiteke mundu guztiko herrialdeetan dauden gainerako erakunde-solaskideekin, nire managerrekin eta lagunekin. Outlook postatik kudeatzen dut egutegi partekatua, deialdiak igortzea eta era birtualean egiten ditut bilerak klik bakar batez edozein gailutatik (ordenagailua, tableta edo mugikorra), elkar ikusi, elkarri entzun, dokumentuak edo karpetak partekatu eta aldatu egin ditzakegu.

Ez dut bulegoan egon beharrik bertan banengo bezala lan egiteko. Nire solaskide instituzionaletako batzuk pixkanaka bilera birtualak egiteari atxikitzen ari zaizkio alferrikako lekualdaketak saihesteko eta horiek berekin dakarten denbora- eta diru-inbertsio bortitza. Teknologia berriak (definizio altuko bideo-deiak, IP bitartezko ahotsa, bat-bateko mezularitza eta idazmahaiaren erabilera partekatua) kasu batzuetan % 60raino ari dira murrizten urteko bidaia-aurrekontua, milioika euroko aurrezkiak eraginez.

IKTen erabilera onak gehiago gutxiagorekin egiteko aukera ematen dizu, besteak beste pertsonen produktibitatea hobetzen laguntzen dute eta, ondorioz, konpainien lehiakortasuna, zeinek baitituzte gaur egun ahalbide mugagabeak hazteko eta nazioartekotzeko teknologien erabilera on horri esker.

Lan malgua nola Microsoftentzat, hala guretzat, enplegatuontzat, produktibitatea hobetzea da familia-bizitza bateratzen eta ingurumenaren eragina murrizten.

# Berrikuntza-sareak

Sareak elkarrekintza mota bat dira, konektibitate-gune batzuk helburu komun batekin jaiotzen direnak, eta helburu horretarantz doazen neurrian hazten eta garazten direnak. Innobasque mila erakunde bazkidek eratutako sare bat da, konektatzean beste sare batzuk sortu eta haietan parte hartzen dutena, eraginkortasuna, koordinazioa balio-katearen osagaien artean bezeroarentzat balioa sortzeko. Berrikuntza sortzen duen ezagutza desberdingarri bat sortzeko gaitasuna duten proiektuen bitartez lortzen du, eta horrek lehiakortasuna irabaztea eragiten du, eta hedapenez, tarteko diren sistema sozio-ekonomikoak.




### Lerro irekiak

- Arbela
- Esp@ Sarea
- Adimen Emozionalaren Partzuergoa
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea
- Iñaki Goenaga Teknologia Zentroen Fundazioa

## ARBELA

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomia Sustapeneko Sailak sustaturiko ekimena, non Innobasquek dinamizazio-lanak burutzen baititu. Sare horrek aldaketa-gogoa estimulatzeko eta gure enpresa-errealitatea eraldatzen laguntzeko lan egiten du, enpresa berritzaile eta partaidetuko paradigma berri baterantz, non pertsonek beren ahalmen guztia garatu eta hedatzen baitute.

Honako 6 hilabete hauetan aurrez aurreko honako topaketa hauek burutu dira:

- "Produktu berriak garatu, lehiakortasunerako lanabes bezala" eta bertan 2 kasu praktiko azaldu ziren: Kautenik eta Evolo Evolving Mobility [2013ko urtarrilak 25]
- "Ingeneten esperientzia, nazioartekotzearen aldeko apustua, lankidetza teknologikoa... eta ekipo-lana" eta bertan enpresako kudeatzaileak eta haren lankide-ekipoak beren esperientzia kontatu zuten [2013ko martxoak 22]
- "Hiru enpresa-esperientzia partaidetza-kudeaketa ekintzara eramateko", Fabrikazio elektromekanikoak Eder, Rosmil Industrial eta Coindataren eskutik [2013ko apirilak 26]
- "Dynamik Technological Alliance: lankidetza-esperientzia bat". Dynamik Technological Alliance teknologia anitzeko talde hornitzaile bat da 9 euskal enpresak eratua (Lebario, Larreno, Alzuarán, Microdeco, Plaiber, Elay, Gabi, Ingeinnova eta Bultzaki) oro har, 120 milioi euro baino gehiago fakturatuko dituena eta 1.100 enplegatu baino gehiago dituena, zenbait herrialdetan dagoelarik. Topaketan, Aliantzako kontseilari delegatuak nondik sortu zen, zer jarduera-lerro elkarrekin eramaten ari diren eta lankidetza aritzeko orduan aurkitu dituzten etekinak eta zailtasunak ezagutarazi zituen, sektore bereko enpresekin [2013ko maiatzak 23]



# ADIMEN EMOZIONALAREN PARTZUERGOA (AEP)

Adimen Emozionaleko Partzuergoa, 119 erakunde atxiki eta 350 pertsona konektatu dituena EAEko berrikuntza-komunitate bat da pertsonen eta inguruneen eraldaketa eragin eta faboratzera bideratua (geugandik hasita) eta lankidetzako berrikuntza, hezkuntza sozio-emozionaletik (bizitzako etapa desberdinetan zehar eta ingurune desberdinetan, ELTen bitartez (emozioaren eta lankidetzaren teknologiak) ongizate eta eraldaketa sozio-ekonomikoaren palanka bezala EAEn.

Consorcio de Inteligencia Emocional

| Jarduera-lerroak | Jarduera-lerro honen asmoa |
|---|---|
| **L1. AEP erkidegoa** | • AEPko pertsonen eta antolaeren ezagutza eta konexioa bideratzea<br>• Innobasqueren estrategia indartzea berrikuntza eta eraldaketa bultzatzen lagunduz<br>• AEParen esparru kontzeptuala bistaratu eta aberastea |
| **L2. Ikaskuntza** | Gune berriak sortzea ikaskuntzarako, ezagutza-trukerako eta elkarri eragiteko |
| **L3. Eraldaketa-proiektuak lankidetzan** | Eraldaketa-proiektuen ekipoak aktibatzea lankidetzan proiektu berritzaileak arakatu, diseinatu eta garatzeko |
| **L4. Ikerkuntza-unitatea pertsonengan eta lankidetza** | AErekin eta barruti sozial, lan-enpresako eta hezkuntzakoekin zer ikusia duten gaietako ikerkuntza |
| **L5. Komunikazio sistemikoa** | AEParen fluxua eta komunikatzeko kanalak hobetzea |



## L2. Ikaskuntza

7 tailer egin dira eta haietan 195 pertsona baino mobilizatu dira:

- Adimen emozionaleko oinarrizko tailerra. 30 pertsona [ 2013ko otsailak 4]
- Entrenatzaile emozionalen prestakuntza. 22 pertsona [2013ko otsailak 4]
- Aldaketa eta benetako partaidetza. 32 pertsona [2013ko otsailak 20]
- Berrikuntzarako partaidetza eta sor-kidetza. 15 pertsona [2013ko martxoak 20]
- Mindfulness-a eta estresa murriztea. 39 pertsona [2013ko apirilak 23]
- Osasunerako adimen emozionala eta osasuna + finantza sozialak. 33 pertsona [2013ko maiatzak 29]
- Berrikuntzara bideratutako lan-ekipoak bideratzea. 35 pertsona [2013ko ekainak 12]

## L3. Berrikuntza-proiektuak lankidetzan

- **Aldatze alfabetatze emozionala.** Proiektuaren lehen fasea amaiturik, Aldatzeko heziketa-komunitatean hiru barruti hartzen dituen programa batean egituratuta: bideratzaileentzako adimen emozionaleko eta adimen anizkunetako prestakuntza; tailer-zikloa "Guraso izatearen abentura" aitentzat eta amentzat; eta zirkuitu emozional baten garapena ate irekien jardunaldia zela-eta, zeinean parte hartu baitzuten 65 haur baino gehiagok [2013ko urtarrilak 26]
- **Aktivate.** Gaitasun sozio-emozionalak garatzeko metodologia 45 urte baino gehiagorekin eta langabezia-egoerako pertsonengan, jarduera fisikoaren bitartez. Programa amaitu zuten 6 pertsonetatik, gaur egun haietako 4 lan-egoeran aurkitzen dira
- **Elkano.** Elkano programako 6 tailer egin dira, Instagik sustatuak AEPko ekipo baten lankidetzarekin. Programa horrek, zeinean parte hartu baitute elektrizitate- eta mantentze-sektoreko 12 enpresaburuk, gune bat sortu du ezagutza, gogoeta eta aukeren esploraziorako Eteei eta mikroeteei eragiten dien maila desberdinetan: ingurunea, merkatua eta bezeroak, antolakuntza (pertsonak-sistemak) eta enpresa horietako kudeatzaileen beraien eta/edo pertsona arduradunen alderdi sozio-emozionalak. Gainera, jarraipen- eta aurrerapen-tailer bat egin zen guztien aurrean ikaskuntza desberdinak eta

erronkak agerian jartzeko, bertan 13 pertsonak parte hartu zutelarik [2013ko ekainak 26]

- **LED – Delfín Enpresak** Laborategia. Aurrera doa haren sor-kidetza, lankidetza eta ikaskuntzako metodologia esperientzia errealetan oinarriturik Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoa, Osakidetza edo Goiztiri erakundeekin. Gainera, sorkidetza-tailer bat egin zen Q-BEEP (Bikaintasunaren aldeko Euskal Erakunde Publikoak) [2013ko urtarrilak 16]
- **REDINN**. Metodologia baten garapena sar eta komunitateetan berrikuntza-ekipoak konfiguratu eta bideratzeko. Horretarako AEPeko 7 urtetan zehar eratutako 20 ekipo baino gehiagoren esperientzia propioaz baliatzen ari dira eta AEPan lantzen diren metodologietan lortutako ezagutzez, hala nola Eugenio Moliníren "benetako partaidetza", eta Sabino Ayestaránen "berrikuntza-ekipoak bideratzea erakundeetan"

Gainera, 4 ekipo berri eratu dira:

- **3D osasun inguruneak erakundeetan.** Ekipo horrek programa integral bat sortu du erakundeetako pertsonengan ohitura osasungarriak garatzeko. Gaur egun pilotaia eta ebaluaziorako prestatzen ari dira inguruneko enpresa batean
- **Arreta** (ARtes, REsponsabilidades, TAlentos). Bosko Taldeak bultzatutako proiektua AEPko ekipo batekin lankidetzan. Proiektu horren bitartez, heziketa ez-formalaren barrutian boluntariotza bat garatzen ari den eta enplegua bilatzen edo beren lan-egoera hobetzen ari den gazte talde batek egoera horri irtenbideak bilatzen ahaleginduko dira beren gaitasun sozio-emozionalak garatzearen bitartez, sormena espiritu ekintzaile eta enplegagarritasun bihurtuz
- **HiruZubia.** Heziketa sozio-emozionaleko programa integral baten diseinua eta garapena Elgoibarko Aubixa Aterpean garatzeko 2013ko urriaren eta 2014ko abendua bitartean. Programak jarduera eta programa bat baino gehiago eskainiko ditu, AEPan garatuak, heziketa-komunitateko pertsonei, langabezian dauden pertsonei eta enpresetako pertsonei zuzenduak
- **Ohitura Osasungarrien Lehen Campusa Decathlonen.** Decathlon Capitol, AEParen lankidetzarekin, hiru tailerreko ziklo bat garatzen ari da lanean, eta uda ondoren egingo dira, beren bezeroen artean ohitura osasungarriak sustatzeko. Pertsona partaideek aukera izango dute elikadura osasungarriko ohituretara hurbiltzeko, mindfulness-era, estresaren kudeaketara eta ibilketa nordikora

## L4. Ikerkuntza-unitatea pertsonengan eta lankidetzan

Unitate hau proiektu bat garatzen ari da Adimen Emozionalaren Partzuergoaren eragina neurtzeko bere existentziako zazpi urteetan. Eragina bi ikuspegitatik neurtuko da: bata, haren osakideen ikaskuntza sozio-emozionaletik, eta bestea, eragina balio-ekarpenaren arabera neurtuko da honako aldagaietan: ikaskuntza, kontaktuak zabaltzea, osakide arteko lankidetzen garapena, lankidetzako enpresak eratzea, lan-aldaketa, espiritu ekintzailea garatzea eta beste batzuetan.

## L5. Komunikazio sistemikoa

- **Aktivate Proiektua** aurkeztea Adimen Emozionala eta Ongizatearen Nazioarteko Kongresuan [Zaragoza, 2013ko maiatzak 27]
- **"Berrikuntza-ekipotan lan egiteko entrenamendua: ekipoa eta erakundearentzako etekinak"** argitalpenaren aurkezpena, ikerketa-ekintza proiektuaren emaitza da, Innobasque, UPV/EHU eta 7 euskal erakunderekin (Artez, Vitoria-Gazteizko Udala, Decathlon, Emun, Novia Salcedo Fundazioa, Iparbit eta Osakidetza) lankidetzan egina, zeinek garatu baitituzte berrikuntza-ekipoak beren erakundeetan proposatutako metodologiaren arabera [2013ko ekainak 12]



# TALENTUA SORTZEA EUSKADIN

## Euraxess

Euraxess Zerbitzu Zentro bezala, eta talentua sortzea, erakartzea, iraunkortzea eta mugikortzearen laguntze-estrategiaren barruan, Innobasquek Bizkaia:xede eta Donostiako Sustapenarekin batera, jardunaldi bat antolatu zuen 2011ko apirilean onartutako Atzerritartasun Araudiaren gakoak aletzearen xedearekin, eta zehazki, prestakuntza handiko langileria kontratatzen hura aplikatzeko. Saio hartan honako hauek parte hartu zuten: Carmen Méndezek Bizkaia:xedetik eta Ainhoa Aldasorok Donostiako Sustapenetik, biak espezialistak baitira prestakuntza handiko langileriari abegi-zerbitzuak eskaintzen; Inmaculada Sedano Enpresa Handien Unitatetik (EHU) , Enplegua eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren mendeko organismoaren ordezkari bezala, zeinek baitu helburutzat erantzun azkarra ematea atzerriko langile ez-komunitario eta prestakuntza handikoak Espainiara ekartzea behar duten enpresen beharrei: eta Sagrario garcía, Mª Eugenia González eta Mª Jesús Ortiz de Uriarte, Bilboko Atzerritarren Bulegoaren ordezkariak, Bizkaian Gobernuaren Ordezkariordetzakoak. [2013ko otsailak 27]




## EMAITZAK

- 4 topaketa sarean [ARBELA] [2013ko urtarrilak 25, martxoak 22, apirilak 26 eta maiatzak 23]
- Atzerritartasun Araudiaren inguruko topaketa [TALENTUA] [2013ko otsailak 27]
- Lankidetzako eraldatze-proiektuen 4 ekipo berri sortzea [AEP]
- “Elkano” programa garatzea Instagi Elkarterako [AEP]
- Adimen Emozionala eta Ongizatearen Nazioarteko Kongresuan parte-hartzea [AEP] [Zaragoza, 2013ko maiatzak 27]
- “Berrikuntza-ekipoak, antolakuntza garatzeko lanabesa” argitalpena [AEP] [2013ko ekainak 12]
- AEParen presentzia haziz doa sare sozialetan 5.117 jarraitzailerekin Facebooken, 873 kiderekin Linkedinen eta 76 jarraitzailerekin Twitterren [AEP]

## ALBISTE IZANGO DA

- Ikerkuntza-ekintza proiektuaren edizio berria erakundeetako berrikuntza-ekipoei buruz [AEP]
- “Asmoa aldatzea benetako partaidetzaren bitartez” Programa Eugenio Molinirekin [AEP] [2013ko urriak 17-18 eta azaroak 7-8]
- HKEKak aktibatzea: Heziketa-Komunitate Emozionalki Konektatuak [AEP]
- SOrEKINTZA Aktibatzea: Komunitatea - pertsonarentzako laborategia - enplegua [AEP]
- Udako lehen ikastaroa, Rafael Bizkerrarekin [AEP] [2013ko uztailak 26]
- Batzarra [AEP]

# Publizitate digitala:
## 885,7 milioi euro

Mobile publizitatean inbertsioa
%68 gehitu da 2011koari dagokionez



**Arretaren merkatua**

Google
32,73 bilioi

**Urtebete = 52**

# Pertsona bakoitzak In
## 30.000 minutu pa

eta batez beste 103.53




Google
Starbucks
Coca-Cola
Walt Disney
Intel
Nike
Lowe's
Hewlett-Packard
Ford Motor
Target

**Gizarte-sareetan gehien inbertitzen duten eta onura ekonomiko handiena lortzen duten enpresa globalak**



**Komunikazioaren euskarrien bilakaera**



**1450**

Gutenberg inprimategiko lehen liburua



**1876**

Alexander G. Bell-ek telefonoa patentatu



**1906**

Munduko lehenengo irrati-emanaldia



**192**

Lehenengo teleb
emanaldi publik

2013ko lehenengo seihilekoa

innobasque
berrikuntzaren euskal agentzia
agencia vasca de la innovación

**621.254 minutu**
INNOBASQUE 2.0 SAREAN GUZTIRA EGONDAKO DENBORA

**86,97 %**
GAILUEN ERABI
BATEZ BESTEKO E

Innobasquek egindakoa. Iturriak: *Estudio sobre Inversión Publicitaria en Medios digitales 2012, Analytics for a Digital World - comScore, Inc., eMarketer analy*

## 2012an lorturiko publizitate-sarrerak ($)

| Facebook | Yahoo! | Twitter | Linkedin |
|---|---|---|---|
| 4,8 bilioi | 3,51 bilioi | 0,29 bilioi | 0,26 bilioi |

**5. 948 minutu**

# nterneten batez beste
# satzen ditu urtean

30 minutu egiten du lan






Denboraren banaketa Interneten




sta- oa | J. Atanasoff-ek lehenengo ordenagailua asmatu | IBMek smartphone-ren antzekoa merkaturatu | Windows-ek lehenengo tablet PC merkaturatu | Cloud computing-aren booma

**13,03 %**
LERAREN HUNEKOA

**1.145 inpaktu**
ON-LINE HEDABIDEETAN

**24.091**
ELKARREKINTZA

*st reports, GO-Gulf.com*

# Sozializazioa

Berrikuntza sozializatzea berrikuntza-jarduera hoberenak hedatzen jarraitzea da euskal gizartean euskal berrikuntzako eragileak burutzen ari diren lana ezagutua eta aitortua zian dadin, nola barrurantz hala kanporantz.

### Innobasqueren kanalak:

- Innobasqueren Astearteak: hileroko deialdia berrikuntzaren protagonistei foro dibulgatzaile eta irekian, euskal berrikuntza pertsonen, erakundeen eta komunikabideen begiradapean ezartzeko.
- Innoberri: hileroko buletin elektronikoa, zeinen helburua berrikuntza hurbiltzea eta dibulgatzea baita, euskal berrikuntzako gai, proiektu eta protagonistei sakontasun handiago eskainiz.
- i-Bazkide: hileroko albiste-buletin elektronikoa bazkideena eta bazkideentzat, Innobasqueko bazkideen sareak garatutako jarduera berritzailea hedatu eta balioan jartzeko.
- InnobasqueNews: nazioarteko argitalpen bihilabetekaria ingurune globalean beren jarduera garatzen ari diren euskal proiektu eta erakundeei buruz berri emateko.
- Innobasque 2.0: web guneak, blogak eta Innobasqueren kanalak: Youtube, Flickr, Facebook, Linkedin, SlideShare, Issuu eta Delicious hedatu eta begiztatzen ari dira berrikuntzaren eduki garrantzitsuenak.
- Informazioa kartara: dokumentu eta argitalpen garrantzitsuen aukera pertsonalizatuaren harpidetza egitea ahalbidetzen duen zerbitzua.
- Argitalpenak: Innobasqueren lerro editoriala korporazio-webean eskura dagoena.

## Innobasqueren Astearteak

### Euskadi Adinaren kudeaketa Euskadiko erakundeetan

Jardunaldi honen helburua -95 pertsona izan ziren bertan- adinaren kudeaketa balioan jartzea zen erakundeen lehiakortasuna hobetzeko estrategia bezala; pertsona guztiek ezagutza eta esperientzia kapitalizatzea, adin handienekoak barneratuz; eta belaunaldien artean ezagutza trukatzea.

Topaketan, Bilboko Eudelen egoitzan, honako hauek parte hartu zuten: Sarah Copsey, Laneko Segurantza eta Osasunerako Europa Agentziaren proiektuen kudeatzailea; Jon Bilbao, Confebaskeko Lan Harremanen zuzendaria, Emilia Málaga, UGT Euskadiko Batzorde Betearazleko Berdintasun eta Nazioarteko idazkaria, Tomás Arrieta, Madrileko Konplutentse Unibertsitateko irakasle atxikia. Juan José de Andrés eta Isabel Arrillaga, CIDECeko presidentea eta zuzendaria; Esther Ibarluzea, Eudeleko Berrikuntza eta Prestakuntzako arduradun teknikoa, eta Txema Villate eta Gotzon Bernaola, Innobasqueko zuzendari nagusia eta programa-zuzendaria, hurrenez hurren.

Gainera, Innobasqueko Astearte hau honako hauek aurkezteko gune bihurtu zen: “Euskadiko erakundeetan adina kudeatzeko gidaliburua. Hamabi ezartze-proposamen eta hiru gomendio administrazioentzat”, Cidec-Berrikuntza eta Garapen Sozialak landua, Innobasqueko Enplegua eta Zahartzea i-Taldeen debate, ekarpen eta gogoeten emaitza bezala. [2013ko urtarrilak 29]



## Zientzia eta teknologiako enpresak, ezagutza balio bihurtzen

Graphenea, Owl, Histocell, Ibil, Vacunek eta Buntplanet Izan ziren Euskadin enpresa-aukerak sortzen ari zirela erakuskari bezala aurkeztu ziren 6 enpresa-kasu, zeinen negozio-eredua ikerketa zientifikoak eta garapen teknologikoan oinarriturik baitago.

Innobasqueko 25º Asteartea- 55 pertsona izan ziren bertan- Donostiako UPV/EHU I+G+b Joxe Mari Korta Zentroan izan zen, eta honako hauek parte hartu zuten: Itziar Alkorta, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitateak eta Ikerketako sailburuordea; Teresa Porto, Owl Negozio Garapeneko zuzendaria; Jesús de la Fuente, Grapheneako zuzendari nagusia, Ahmad Ezzedine, Histocelleko Negozio Garapeneko zuzendari; Enrique Monasterio, Ibileko zuzendari nagusia; Félix Bastida, Vacunek-eko zientzia-zuzendaria, Andrés García, Buntplaneteko I+Geko zuzendaria, Javier Monzón, UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Berrikuntza eta Garapeneko zuzendaria eta Txema Villate, Innobasqueko zuzendari nagusia.



Sei enpresek azaldu zuten ikerkuntza zientifikoa enpresa-sektorearekin konektatzea kritikoa dela eredu ekoizle intentsibo bat sendotzeko ezagutzan, zeinek baitu eragin handia ez bakarrik pertsonen bizitzan, baizik eta gainera negozio-aukera berriak sortzen baititu. Denak bat etorri ziren honako hau adieraztean: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemak eskaintzen duen espezializazio handia eta estaldura direla haren lehiakortasunaren euskarria eta horrek kokatzen dituela merkatu globaletan. [2013ko otsailak 26]

## Patenteak, berrikuntza balioan jarria

100 pertsona baino gehiago elkartu ziren patenteei eskainitako Innobasqueko Astearte hau zela eta, Donostiako Talent Housen, Donostiako Sustapenaren lankidetzarekin antolatu zelarik.

Jardunaldi hau honetarako antolatu zen: berrikuntzen babes industrial egokiak duen balio estrategikoa ukigai bihurtzeko. Hartara, agerian jarri zen patenteen balioa berrikuntzaren elementu faboragarri bezala ikuspuntu desberdinetatik, hala nola, jabetza industrialaren eragileenetik edo enpresenetik, esaterako HBiO, Soraluce edo Progenikak beren lehiakortasuna hobetzen ari baitira hari esker. Jabetza industrialaz gainera enpresen negozio-estrategiaren barruan, beste gai batzuk azaldu ziren: esaterako, berrikuntza babesteko dauden bideak, zaintza teknologikoa informazio-iturri bezala, pizgarri fiskalak, patenteen etekin ekonomikoak edo nazioartekotzea.

Jardunaldian honako hauek parte hartu zuten: Oscar Usetxi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzaren Sustapeneko zuzendaria; Iñigo Olaizola, Sustapeneko Zerbitzu eta Proiektuen arduraduna; Ismael Igartua, europar patenteen eragilea eta Galbaian Intellectual Propertyko zuzendaria; Paz Martin, Herrero & Asociadoseko Komunikazio-zuzendaria; Julián de Juan, Estrategia Piko zuzendaria; Patricia Hidalgo, Global Approach Consultingeko Negozio garapeneko zuzendaria; Juan Carlos Vergara, CDEko fundatzaile eta bazkide-zuzendaria; José Manuel Pérez Arce, Univalueko zuzendari nagusia; Miguel Retolaza, HbiOko zuzendaria; Eleazar Raya, Soraluceko merkataritza-zuzendaria; Sergio Escorza, Progenikako jabetza Intelektualeko zuzendaria eta Txema Villate, Innobasqueko zuzendari nagusia. [2013ko apirilak 30]



# Ekonomia banatua eta P2P (peer to peer)




Innobasque y Colaboraborak jardunaldi batzuk antolatu zituzten "Ekonomia banatua eta P2P" gaiaz eta bertan aztertu ziren eredu sozio-ekonomiko berri honek sortzen dituen enpresa-aukera berriak berdinen arteko harremanean oinarriturik komuna, aske eta irekia denetik.

Michel Bauwens belgikarrak, P2P Alternatives Foundationen sortzailea eta Tailandian finkaturiko unibertsitate-irakasleak P2p "peer to peer" pradigmaren oinarriak azaldu zituen, hori aztertzen baitu "Synthetic Owerview of the Collaborative Economy" bere txostenak Orange Lab, telekomunikazioetako frantses-konpainiaren sailak.

Ekainaren 11n, Innobasqueko Asteartea egin zen Donostiako Andia Aretoan honako partaide hauekin: Oscar Usetxi, Gipuzkoako Aldundiko Berrikuntza-zuzendaria; David Sánchez-Bote, MIKeko zuzendaria; José Antonio Llorente, Tabakalerako Laborategien arduraduna; Beatriz Moral, Katiluko antropologoa; Tomás Tamayo, Basque Open Source Ecologyko sustatzailea; Dabid Martínez, Gaueko Koop. Elkarteko Proiektuen zuzendaria eta Guifi.net-eko lankidea; Ricardo Antón, Colaboraborakoa; Carlos Ruiz, Kutxako Gizarte Ekintzako zuzendaria eta Txema Villate, Innobasqueko zuzendari nagusia.

Jardunaldian -80 pertsona bertaratu ziren- P2Paren euskal adibide batzuen berri eman zen adibidez, MIKek sortutako ikerketa eta metodologia berrikuntza irekia enpresetan txertatzeko, Hirikilabs laborategi hiritarrak, Open Source Ecolyko euskal nodoa, ondasun komunen kudeaketari buruzko azterlana eta EAEko lehen sektoreko erakunde kolektiboak; eta Guifi.net, telekomunikazioetako operadoreen wifi sare hautabidekoa, kostu baxua eta zerbitzu-abiadura handiaren ezaugarriak dituena.

Ekainaren 12n honako tailer hau egin zen: "P2P gizarte baterantz. Nola egiten dugu?" Bilboko San Frantziskoko zentro zibikoan 50 pertsona baino gehiagoren partaidetzarekin. [2013ko ekainak 11 eta 12]



# Teknologia garbiak, inbertsio errentagarri

Cleantech iNNvest ofizialki eraturik, teknologia garbien (cleantech) proiektu berritzaileen inbertsio eta finantzazioko sarea, hazkuntza global eta errentagarritasuneko ahalmen handikoa. Hasiera batean 14 erakundek eratutako tresna bat da, Southern Europe´s Cleantech Hub-en parte eratzen duena.

Aukezpen ofizialaren ondoren, Bilboko La Bolsa Eraikinean "Teknologia garbiak, inbertsio errentagarri" jardunaldia egin zen 95 pertsonaren partaidetzarekin: bertan izan ziren Juan Ignacio García de Motiloa, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energiako sailburuordea; Pedro Martínez Cid, Iberdrolako Berrikuntzako zuzendaritzaren albokoa; Maialen Astarbe, Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketaren analista; Fernando Lozano, Bulka Angelsen bazkidea; Javier Lopetegui, Likuid Nanotekeko zuzendari nagusia; Juan Bautista Genúa, Luix-eko kontseilari ordezkaria; Ander Orcasitas, International Venture Club sareko negozio-garapenaren arduraduna; Iñaki Ruiz, Ekonomialarien Euskal Elkargoko presidentordea; Txema Villate eta Guillermo Ulacia, Innobasqueko zuzendari nagusia eta presidentea, hurrenez hurren. [2013ko martxoak 12]

# Openideiak

Plataforma dinamikoa, Innobasquek erakunde, publiko eta pribatu guztien eskura jartzen duena, berrikuntza ireki aplikatua sustatzeko erronka mota guztiei, zeinetan nola gizartean hala pertsonengan, garapen ekonomiko, sozial eta gizatiarrarekin zerikusia duten ekimenak garatu ditzakegun (ingurumenekoak, enpresakoak, teknologikoak, sozialak, kulturalak).
**www.openideiak.com**




## Guztion ongiaren aldeko erronkak

4 erronka berri argitaratu dira:

### > OpenGreetingCards

Ekimen honek sistema bat proposatzen du zeinen bitartez edozein pertsonak zorionak emateko txartel bat fabrika dezakeen neurrira, horretarako prest dauden marrazkilari batzuek hornitutako marrazkietatik, eta zeini "erabiltzegatik ordainduko litzaiokeen" prezio sinboliko bat gehi borondatea.

Lortutako dirua GKE bideratuko litzaieke behar duten haurrak artatu, zaindu, hezi... eta abarrerako. Adibidez, zoriontzea haur bat jaio delako izango balitz, dohaintza beste haur batzuen txerto-kanpainatan erabil liteke.

### > IX Sari Solidarioak ONCE Euskadi

2004tik ONCEk sari hauetarako deialdi egiten du elbarritasunaren prebentzioaren, birgaitzearen eta inklusioaren eremuan lan jarraituak garatu dituztenen ahaleginak sustatu, nabarmendu eta saritzen dituzte; bai eta irispide unibertsala edo sustapena edo elbarritasuna duten pertsonen lan-inklusioa.

Sari horien bitartez gizartea kontzientziatu nahi da egindako jarduera onen berri emanez, bai enpresek, erakundeek, agintariek edo pertsonek, haien jarraibideak hedapena izan dezan organismo publiko eta pribatuetan eta norbanakoengan.

Sariak joan den martxoko 18an ebatzi ziren, honako emaitza honekin:

- GKE, entitate, antolakuntza edo erakunde kategoriako saria: Navarra de Cine, S. L.
- Komunikazio-lanaren kategoriako saria: "Es posible" Radio Popular de Bilbao - Herri Irratiko programa
- Euskal Autonomia Erkidegoko Pertsona Fisikoaren kategoria Saria: Elena Auzmendi (DYA anbulantzietako eta Gipuzkoa Gurutze Gorriko boluntarioa)
- Ekonomia Sozialeko Enpresaren kategoria Saria: Red Social Koopera
- Administrazio Publikoko kategoria Saria: Bilboko Udala

### > Goiener kooperatiba hiritar bat energiaren jasangarritasunari lehentasuna ematen diona enpresaren etekinaren aurrean

Energiarekin buruaski izatea helburu duen kooperatiba hau, beste kooperatiba batzuek elikadurarekin, edo lanarekin egiten duten bezala energia-kontsumoa murriztea bultzatu nahi du bazkideen arteko aholkularitzaren bidez energia berriztagarria ekoitziz beste kanpo-iturri kutsagarri batzuen mendean egon gabe, gainera, beste energia-eredu bat nahi duten eta erabakietan ahotza eta botoa duten hiritar guztiengana iritsiz.

Erronka abiaraztearen unean, 200 pertsonak eratzen zuten kooperatiba, baina helburua SOM ENERGIA merkaturatzaile elektrikoaren eredu kooperatiboa parekatzea da, hemen Euskadin.

### > Crowdsasuna: 

Crowfunding-deialdia berrikuntza-proiektuetarako Euskadiko osasun-barrutian.

## Saridun erronkak

1 plataforman erronka propio berri bat hedatu da eta 35 baino kanpo-erronka baino gehiago (Toribio Etxebarria Sariak, Fundetec...) sare sozialen bitartez.

### > Tomorrow Egunkaria

Deustuko Unibertsitateak Tomorrow Egunkariaren bigarren edizioa abiarazi du, egunkari horrek pertsona anonimoek idatzitako albisteak jasotzen ditu, nazioko eta nazioarteko komunikabide desberdinetan metatutako albiste txarren hautespen batetik abiatuta.

Apirilaren 14 arte edozein pertsonak parte har zezakeen ekimen horretan albiste bat idatziz, baina batxilerreko ikasleek idatzitakoek bakarrik izan zuten aukera saria irabazteko: Interraileko 4 txartel Europa osoan barrena bidaiatzeko 22 egunez.



# Berrikuntza Eskola

## FIRST LEGO Leagueren finalean Euskadi saria izan du

FLL Euskadiko hiru euskal ekipoek saria izan dute FIRST LEGO Leagueko espainiar finalean. Hartara, El Regato Ikastetxeak (Barakaldo) eraman zuen Adeitasun Profesionalaren saria; Axular Lizeoak (Donostia) Aurkezpen hoberenarena eta Karmengo Amak (Amorebieta) Irtenbide Hoberenarentzako saria.

FLLren finala I European Robotics Festivalen esparruan izan zen, 2.500 ikusle eta 600 partaide baino gehiago bildu zituen robotikako europar lehiaketa handiena.

Gainera, Karmengo Ama ekipoa laugarren sailkatu zen FLL finaleko ranking orokorrean eta horrek plaza baterako irispidea eman zion Paderborneko (Alemania) europar txapelketan parte hartzeko.

Euskadi FLLn parte hartzen hasi zenetik duela lau urte, beti izan da euskal ordezkaritza nazioarteko torneoetan. [Tarragona, 2013ko martxoak 17]



## Berrikuntza Eskola I Tailerra

Innobasquek FLL Euskadiko 30 eskola-ikasle bildu zituen lankidetza-berrikuntzako tailer batena zahartzeari buruz asmatu zituzten proiektuak aberasteko.

Erantzunak eman zizkieten erronka batzuei, adibidez, jende gehienengana iristeko kostua nola murriztu, proba pilotu bat nola egin, zer erakunderekin lankidetzan aritu proiektua burutzeko edo nola burutu beren ekimenaren hedapena.

Ideiak eta irtenbideak parte-hartzaile guztien artean partekatu ziren. [2013ko otsailak 1]

# Berritzen ikasten edo ikasten berritu

FIRST LEGOn parte hartzearen esperientzia lehiaketa bera baino askoz harago doa. Berritzen ikasten dute, edo agian ikasiz berritzen dute. Irtenbide berritzaileak sortzeko erronka egiten zaie, gizartean eragina izango dutenak. Ekipoek inplementatu dituzte beren proiektuak, eskola-ikasleak berrikuntzako eragile aktibo bihurtu dira.

Hala, FLLeko hiru euskal ekipo finalistek adineko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak garatu dituzte eta dagoeneko eragina duten beren tokietan.

- **El Regato**ko ekipoak aplikazio mugikor bat garatu du eta ikasleak berak ari dira Internet-eskolak ematen adinekoen kolektiboei pitzadura digitala murrizteko.
- **Axular Lizeo**ko kideak boluntario bezala parte hartu zuten Atleta Beteranoen Olinpiadetan.
- **Karmengo Ama** ikastetxeko neska-mutikoek proba pilotu bat ezarri dute Amorebietan belaunaldien arteko harremanak hobetzeko. Proiektua karnet bat sortzean datza, zeinean puntuak metatuz joango diren, adinekoekin izaera desberdineko jarduerak burutu eta gero. Gero, puntu horiek udalak eskaintzen dituen aisia-zerbitzuekin truka daitezke.

## LHak ere berritzaile

Goi Eskola Politeknikoko prestakuntza-zikloko Robotek ekipoa txapeldun gertatu zen FIRST Tech Challenge (FTC)eko europar finalean. Lehen aldia zen Euskadiko ekipo batentzat 17 eta 23 urte bitarteko gazteei zuzenduriko robotikako torneo horretan, zeinek sakontzen baititu FLLen landutako teknologia eta ingeniaritzako alderdiak.

Sarituak bederatzi ikasle izan ziren, Fabrikazio Mekaniko eta Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuen Diseinuan, zeinek gainerako ekipoek bezala lan egiteko gai zen robot bat diseinatu, fabrikatu, montatu eta programatu behar izan zuten, bai era autonomoan eta bai telegidatuan, joko-arau aurredefinitu batzuen arabera. Diseinuan eta programazioan izandako trebetasunaz gainera, epai-mahaiak beste gaitasun batzuk ere balioetsi zituen hala nola ekipo-lana eta estrategia. Izatez, finala bikoteka jokatzen denez gero, euskal ekipoak Siberiako beste batekin lankidetzan aritu zen estrategia hoberena aurkarien aurrean diseinatuz eta egikarituz. Epai-mahaiak Robotek saritu zuen robotaren diseinuarengatik, eta zorionak eman zizkion 3D animazio batekin egindako aurkezpenarengatik.

Sari horrek World Festival munduko finalera joateko aukera eman zien eta Saint Louisen (EE.BB.) izan zen apirilaren 24tik 27ra. [Tarragona, 2013ko martxoak 17]



# Diplomazia Berritzailea

Programa honek nazioarteko gure kokapenean aurrera egiteko da errealitate berritzaile bezala, geure erakundeei beren nazioartekotzean laguntzeko eta eragin handieneko nazioarteko nodoekin konektatzeko.



## TOPAKETAK:



- **Jaime Almanza**, Kolonbiako Kudeaketa eta Garapena Fundazioko zuzendariaren bisita (Fundagedescol), Innobasqueren jarduerak ezagutzeko, garrantzi berezia emanez berrikuntza sozialaren barrutiari eta 4º sektoreari [2013ko urtarrilak 25]

- **Gerad Finnegan** eta **John McMonagle**, Ipar Irlandako Rotary Clubekoen bisita Euskadiren garapenaren eta Innobasqueren diseinua eta proiektuaren inplementazioa ezagutzeko [2013ko urtarrilak 29]

- **Laurence Frank**, consultor en Israel eta Euskadin aholkularia denaren bisita Euskal Herriko teknologia garbiko enpresak ezagutu eta enpresa horiek Israelen dituzten negozio-aukerak identifikatzeko (esportazioak, bertakotzea, inbertsio-funtsak, etab) [2013ko otsailak 25 eta 26]

- Turkiako Ipar Ekialdeko Erregio Garapeneko Agentziako ordezkaritzaren bisita honako hauek osatua: **Emine Bilgen Eymirli**, **Suleyman Toy**, **Güvenç Gürbüz** eta **Melih Tahanci** Innobasqueren funtzionamenduko printzipioak ezagutzeko asmoz [2013ko apirilak 4]

- **"Club asturiano para la calidad"**eko erakunde desberdinetatik etorritako 25 kideren bisitaldia, presidentea barne, Innobasqueren proiektua bere osotasunean ezagutzeko helburuarekin [2013ko urtarrilak 15]

- Txileko Araukania Erregioko alkate- eta zinegotzi-ordezkaritza baten bisita, **Eduardo Lavado** buru dela eta Gorbea, Lumaco eta Villarricako alkate eta zinegotziak, Euskadiko berrikuntza gaiko ekimenak hurbiletik ezagutzeaz interesaturik, gero, ahal den neurrian, Txileko beren udalerrietan errepikatu ahal izateko [2013ko maiatzak 21]

- Manlleuko (Bartzelona) Udaleko Sustapen Ekonomikoko Bulegoaren zuzendaria den **Núria Macià**ren bisita toki-garapeneko esperientzia eta eredu berritzaileak ezagutzeko. Innobasque proiektuaren ikuspegi orokor bat izateaz gainera, interesa erakutsi zuten Laugarren Sektorea eta Eko-berrikuntza dinamiken aurrean [2013ko ekainak 20]

## PARTAIDETZA:

- Eztabaida-taldea Infydek landutako **"Enpresak nazioartekotzearen azterlanaren"** inguruan, zeinean egin baitzen azterketa garatzean lortutako ondorioen kontraste bat, nazioartekotzeak nola erasaten duen GGBBen kudeaketa ikusteko, nazioartekotze-prozesuei aurre egiteko [2013ko otsailak 13]

- Bankinter Fundazioaren eta Deustuko Unibertsitatearen aldetik **Khan Academy** ikaskuntzaren azelerazio-metodoaren lehen proiektu pilotua burutu ondoren Espainian, Donostiako Loiolako San Inazio ikastetxean, Innobasque lankidetzan ari da Eusko Jaurlaritzako Sailarekin metodo hori Euskadiko beste hiri ikastetxetara hedatzeko 2013-2014 datorren ikasturtean. Horretarako, azkenean hautatuak izango diren ikastetxeetako irakasleriarekin burutuko den prestakuntza-prozesua diseinatzen ari dira



- Topaketa, Leioako Udalarekin, Irakasle Eskola (UPV/EHU) eta Eusko Jaurlaritzako Heziketa Berrikuntzarekin batera, **Franceso Tonucci**rekin "Haurren Hiriaren" sortzailearekin, zeinek eskaini baitzuen Euskadin erreferentziako laborategi bat antolatzeko heziketa-komunitateei edo heziketa-hiriaren gaia aztertzeko [2013ko maiatzak 8]




> Bankinter Fundazioaren **AKADEMIA** programa berrikuntzarako, programa horretan partaide diren unibertsitate desberdinetan gai batzuk irakatsiz. Gainera Innobasquek Bankinter Fundazioa babestu du Euskal Herriko Unibertsitatearen programa abiarazteko. 25 pertsonak amaitu dute berrikuntza-ikastaro honen lehen edizioa, enpresek eta instituzioek nabarmenki balioesten duten prestakuntza osagarri bat ikasle unibertsitarioei [2013ko maiatzak 13]

> **"Social innovation methodological workshop: Basque & Oresund connection"**, Oxford Unibertsitateak (UK) eta Ikerbasquek antolatua, San Telmo Museoarekin lankidetzan, Euskadi eta Oresund suediar erregioaren artean esperientziak eta proiektuak trukatzeko tailer honetan Innobasqueren Laugarren Sektorea dinamika aurkeztu zen [Donostia, 2013ko maiatzak 8]

# Innobasque, Berrikuntza Sustatzeko Capital saria




Capital aldizkariak Berrikuntza Sustatzearen sari eman dio Innobasqueri funtsezko lanabesa baita kultura berritzailea sustatzen gizartean.

Edizio honetan aitortza bat egin zaio Bilbori hiri-eraldaketan izandako inspirazioaren jarraibide gisa, Bilboko eta Bizkaiko enpresen bokazio industrialari, dinamismoari eta berrikuntzari omenaldia eginez. Bilbo eraldatzearen protagonisten artean, gainera, Innobasqueko 7 bazkide saritu ziren: BBK, Iberdrola, Idom, Museo Guggenheim, Petronor, Progenika eta Sener. [Bilbo, 2013ko otsailak 12]

# Innocampus, berrikuntza-harrobi

Duela bost urte Innobasquek aldian-aldian Innocampus programaren bitartez hiru euskal unibertsitateetako (Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta UPV/EHU) ikasleak bereganatzen ditu, bai eta erakunde desberdinetako negozio-eskola eta prestakuntza-programa nagusiak. Horretara, 39 berritzailek ekarpenak egin dituzte beren ezagutza estreinatu berriekin bestelako begirada bat eskaintzen Berrikuntzako Euskal Agentziaren jarduerari.

Gazte horiek lan-ekipoetan parte hartzera sartzen dira, zeinetan aukera baitute parte hartu eta lehen eskutik ezagutzeko lan egiten deneko proiektuak. Innocampusek unibertsitatea eta merkatuaren arteko lankidetza sustatzen du, unibertsitatea enpresa-munduaren errealitatera hurbilduz, halako moldez non gazteek lehen kontaktu bat duten lan- eta berrikuntza-munduarekin.

Lankidetza-hitzarmen desberdinen bitartez hilabete batzuetan laguntzen digutenak bat datoz adierazten une hartan ageri zuten soslai akademikoa egokitzeak, azkenean garatu zuten lanarekin ekarpen erabakigarria egin zuela beren esperientzia emankorra izan zedin eta ikaskuntza-prozesua arrakastatsua. Sakoneko elkarrizketa batekin hasten da guztia, non hautagaien aldez aurreko ezagutzak balioesteaz gainera haien gaitasunak eta garapen-ahalmena detektatzen baitira. Hautespen hori egin eta gero, tutore batek gidatuko du Innobasqueren ekipoko bazkide berria erakundean egongo den denboraldian bi aldeentzat baliotsua izan dadin.

Gazte berritzaile horietako lauk beren esperientzia partekatu nahi izan dute gurekin galde-zerrenda labur bati erantzunez. Mónica Pinedo, Alex Escudero, Elisa Naverán eta Regina Olaizola dira.

Galderak:

1. Nola balioesten duzu Innocampusetik igaro izana?
2. Zer da ikasitako gauzarik garrantzitsuena?
3. Nola orientatu duzu zeure lanbide-karrera?



**MÓNICA PINEDO,** 27 urte, Euskal Herriko Unibertsitatetik Turismo, Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziaduna eta Euskal Herriko Unibertsitatetik Korporazio Komunikazioan Master.

1. Nire kasuan esperientzia oso aberasgarria gertatu da, nire gradu ondoko prestakuntza osatu ez ezik, baizik eta proiektu oso interesgarriak eta askotarikoak ezagutu eta haietan lan egin dut, eta horiek pertsonekin konektatzea ahalbidetu didate.

2. Esperientzia lortu dut komunikazioaren kudeaketan Gosasun ekimenaren, Efiosasunaren barrutiaren barruan bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko mugimendua bitartez, non ikasi bainuen harremanak kudeatzen tarteko ziren eragile bakoitzarekin. Antolatze-, ardura-, aldaketara egokitze- eta ekipo-laneko gaitasunak ere lortu ditut.

3. Gaur egun ostalaritza-sektorean lan egiten dut eta lanbide-aukera berrietara irekita nago marketina eta komunikazioarekin zerikusi baldin badute.



**ALEX ESCUDERO,** 25 urte, Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziaduna UPV/EHUtik eta Masterra Kongresu, Gertaldi-antolakuntzan eta Protokoloan ESDEN Business Schooletik.

1. Innobasquen sei hilabetez lan egiteak aukera eman dit profesional diziplina-anitzak ezagutzeko barruti oso desberdinetan, eta horri esker erakundearen ikuspen integrak bat izatea lortu dut. Bereziki balioesten dut ekipoan lan egin izana.

2. Ikasi dudan garrantzitsuena da neure akatsetatik ikasi ahal izan dudala, seguru asko lehen unetik beste bat gehiago nintzela sentiarazi didatelako.

3. Une honetan aukera bat baino gehiago balioesten ari naiz. Uste dut garai egokia dela kanpora irteteko, eta horregatik nire aukera betegarrienak sormen publizitarioaz ikastaro bat egitea da edo Eusko Jaurlaritzako Global Training programan sartu, kanpo-merkataritzan prestakuntza jasotzeko munduko herrialderen batean.



**ELISA NAVERÁN,** 25 urte, UPV/EHUtik Ikus-Entzunezko Komunikazioan lizentziaduna eta Kongresuak, Gertaldiak eta Azokak Antolatzen Masterduna Deustuko Unibertsitateko Aisia Azterlanen Institututik.

1. Nire esperientzia geniala izan da. Masterra amaitu eta gero garbi neukan gertaldi mota desberdinak antolatzen lan egiteko aukera izango nuen tokian egin nahi nituela praktikak eta hala izan zen: Innobasqueko Komunikazio ekipoarekin lankide izan nintzen lau hilabeteetan 3 'Innobasqueren Astearteak' antolatzen lagundu nuen, Global Innovation Day bat eta bazkideen urteko batzarra. Komunikazio-sailak nola lan egiten zuen ikusteko aukera izan nuen eta gertaldi bakoitzaren prestatze-faseetan parte hartu eta lankide izateko. Esperientzia erabatekoa izan zen, nahiz eta pixka bat gehiago irautea nahi izango nukeen!

2. Ikasi nuenetik, geroko lan-esperientzietan gehien balio izan didana ekipoan lan egitearen garrantzia izan da. Komunikazio-sailean bakoitzak bere egiteko zehaztua du, baina denek helburu bererako lan egiten dute. Uste dut zorte handia izan nuela praktika horietarako hautatua izateagatik, zeinetan ekipoaren osagai sentitu bainintzen eta erakundearen lehen egunetik.

3. Innobasqueko neure esperientzia amaitu baino lehentxeago Leonardo da Vinci beka bat eman zidaten, eta horrekin Londresera etorri nintzen enpresa oso ezagun batean lan egitera sei hilabetez. Gero bertan geratzea erabaki nuen, eta bi urte betetzera noa hemen... Une honetan, Lloyds Banking Group, Erresuma Batuko erakunde finantzario zaharrenetako baten egoitzan harreragile-lanean ari naiz



**REGINA OLAIZOLA,** 24 urte, Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritzan lizentziaduna eta Garapen Zuzentzailean Masterra Deustuko Unibertsitatetik.

1. Zalantzarik gabe, nire balioespena oso positiboa da. Eko-berrikuntzako ekipoa,-dinamika horretan ari izan nintzen sei hilabetez, lan-taldearen parte sentiarazi ninduen uneoro eta eragin handiko proiektuetan tarteko izateko aukera izan nuen, adibidez, Southern Europe's Cleantech Hub-en, Innobasquek bultzatzen duen teknologia garbien plataforman. Erakundeko beste dinamika batzuekin lankide izateko aukera izan nuenez gero, Innobasquek egiten duen lanaren ikuspegi integral bat izatea lortu nuen berrikuntzaren alde fokapen desberdinetatik.

2. Ikasi nuen gauzarik garrantzitsuena hau izan zen: berrikuntza ez dela soilik teknologia edo produktu berriak sortzea, baizik eta hori baino askoz gehiago dela.

3. Innobasqueko neure praktikak amaitu eta berehala, lana eskaini zidaten ticketbisen, ticketingeko euskal start-up batean. Mexikon hasi nintzen, baina 3 hilabete geroago, Bogotara joatea eskaini zidaten Colombia ticketbisen online salmentez arduratzeko, duela 2 hilabete pasatxo ireki genuen merkatuan.

2013ko lehen seihilekoan, 7 pertsonak parte hartu dute Innocampus programan, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, UPV/EHU, ESDEN, COMMA programa eta Ekonomialarien Euskal Elkargotik etorrita. Lan-barruti desberdinetan sartu dira esaterako honako dinamikatan: Gizarte Efiosasungarria eta Eko-berrikuntza, Adimen emozionalaren Partzuergoa, sozializazioa, korporazioak... eta gaitasunak garatu dituzte hala nola ekipo-lana, berrikuntza eta sormena ikaskuntzarako prestutasuna eta eraginkortasuna eta emaitzetarako orientazioa, besteak beste.

# Bazkide-programa

Innobasque osaera sozialeko proiektua da, eta haren eginkizuna eta ikuspena azkenera eramateak derrigor eskatzen du erakunde bazkideen eragingarriak aktibatzea eta gaitasunak batzea Eraldaketa sozio-ekonomikorako. Innobasqueren balioa haren bazkide-sarean datza.

Haien dira Herrialdea eraldatzearen zeregin garrantzitsuaren ekarpena egiten dutenak, beren gaitasunak eta trebetasunen, baliabideen, beren ideien eta baloreen... ekarpena eginez.

## Innobasque Exchange

Innobasqueren erakunde bazkideen eta bazkideentzako ekimena, kanal horren, eta haren osakideen lankidetzarako ahalmena aktibatzea bilatzen duena partaideek proiektu berritzaileak ezagutzea eta aztertzea eragiten duten moduak eta metodoak arakatzearen bidez, haien gaitasunen ahalmena detektatuz, eta haietan sakonduz eta, azkenik, lankidetzarako bideak aurkituz eta negozio-aukera berriak.

2013ko lehen seihilekoan Innobasque Exchange edizio berri bat egin da eta bertan zortzi proiektu berritzaile aurkeztu:



Aurkeztutako proiektuak honako hauek izan dira:

Zeure proiektua aurkeztu nahi baduzu, hona bidal dezakezu: mruiz@innobasque.com

- **Biobai,** gamifikazio-ekimen bat hirietan
- **Byvox,** itzulpeneko lanabes-kaxa
- **TGI (Terminal Gestor Interactivo),** informazioa kudeatzeko kudeaketaren ukitze-sistema
- **Doocuments,** dokumentu adimendunaren formatu berri bat
- **Udaltruke**, ondasunen trukerako plataforma bat
- **Segurtasun Elektrikoko BG Sistema,** kable eta tutuerientzako zigilatze-irtenbide bat
- **BikInCloud,** ziklismoaz gozatzeko modu berri bat
- **Atouch Interactive Table,** azken belaunaldiko ukitze-mahaia [2013ko martxoak 20]



# Innobasque Exchange-ko partaideen iritzi batzuk

*"Innobasque Exchange leiho bat izan da erakusteko zer egiten dugun bestela inoiz iritsiko ez ginatekeen entitate, enpresa eta pertsonekin eta, aldi berean, beste ekimen batzuk ezagutzeko beraiekin ahaleginak partekatu eta sinergiak bilatzeko aurrera egiten jarraitzeko".*
**Asier Extremo, Innodevicesko kontseilari ordezkaria**

*"Topaketa honek lagundu egin zigun beste enpresa batzuekin harremanak ezartzen, ezagutza, ideiak eta kezkak haiekin partekatzen. Sinergiak bilatzeko aukera bat enpresek oparotasuna lortzeko baliatu behar duguna".*
**Joseba Santamaría, Emaginarteko founder**

*"Esperientzia bikaina izan da gure enpresa-proiektua hobetzen lagundu diguna. Bazkideak eta bezerogaiak ezagutzea ahalbidetu digu, bai eta gure zerbitzuak hobetzen ere eta merkatuko errealitatera egokitzen. Plazer bat izan da Innobasque Exchangen parte hartzea".*
**Román Ruiz, Biobai ekimenaren bazkide sortzailea**

*"Byvoxentzat, Innobasque Exchange aukera bikain bat izan da antzeko arazoak eta ekimen antzekoak dituen jende baten aurrean aurkezteko, oso parte-hartzailea, galdera askorekin eta ekarpen oso interesgarriekin".*
**Igor Juaristi, Byvox-en zuzendaria**

*"Hainbeste denbora, atxikipen eta ilusio eskaini diozun proiektu bat beste pertsona ekintzaile batzuekin partekatu ahal izatea, zeinekin partekatzen baititu ardurak eta, bestalde, gaitasunak eta baliabide osagarriak dituztenekin, abagune sinestezina da, gozamenezko opari bat (...) Gaitasunak eta talentua batzea da etorkizun hobe bat eraikitzeko dugun modu hoberena. Innobasque Exchangen fusio magiko hori era naturalean sortzen da".*
**Eneko Macias, SportinCloud**

## EMAITZAK

- 1.828 eragin mediotan urteko lehen seihilekoan
- Urtarriletik ekainera metatutako audientzia 281 milioi pertsonakoa da
- Sare sozialetan oraindik hazten ari gara: Innobasquek 9.445 jarraitzaile ditu twitterren, 1.645 igorritako txio, 2.376 aipamen eta 1.323 birtxiorekin
- InnobasqueNews abiaraztea [2013ko martxoak 6]
- 3 euskal ekipo sarituak FLL Espainiaren finalean [2013ko martxoak 17]
- Innobasque, Berrikuntza Sustatzeko Capital saria [2013ko otsailak 12]
- 8 proiektu berritzaileren aurkezpena Innobasque Exchangeren hirugarren edizioan [2013ko martxoak 20]

## "Pitch perfektua" Tailerra

Tailer praktiko honetan, zeinean parte hartu baitzuten 10 pertsonak, Carlos Polo, Deustoko Unibertsitateko Berrikuntza eta Ekintzailetzako master-irakasleak eta Innobasqueko bazkideak, beharrezko lanabesak eta tekniken ekarpena egin zuen proiektuak era labur eta eraginkorrean aurkezteko, inbertitzaile baten, bezero baten edo lankide baten arreta atzemanez.

Tailerrera 6 bazkide sustatzaile agertu ziren, eta haien artean zeuden hurrengo InnobasqueExchange topaketan parte hartuko duten batzuk: Agotravel Turismo Jasangarria, CDE-Kam, Innobak Systems, I-train Global, Practice your Music eta Otxarreta. [2013ko ekainak 18]

## ALBISTE IZANGO DA

- Innobasque Exchangeren topaketak [2013ko uztaila eta azaroa]
- FLL Euskadi Torneoa [2013ko abendua]
- Innobasqueko App mobile

# Innobasque medioetan




## Gizarte efiosasungarrirantz

Dato Económico - 01/01/2013

Biztanleriaren zahartzea, elikadura-ohiturak eta familia-ereduak aldatzea, bai eta aurrerapen teknologikoa gure osasuna baldintzatzen duten faktoreak dira ikuspuntu desberdinetatik. Estrategia Efiosasungarriak, Innobasquek sustaturik proiektu eta ekimen batzuk jasotzen ditu osasunaren barrutia hobetzea helburu dutenak, aldi berean enpresa-aukera berriak sortuz.



## "Hemen jendea tartean sartzen eta abenturan murgiltzeko tradizioa dugu"

Diario Vasco - 27/02/2013

1999an, Andrés Garcíak, orain Bunt Planeten I+G-aren zuzendaria, software-garapenean espezializatua irakasle zen Tecnumen eta arazo bat zeukan. "Alemanian prestatzetik etorri berria nintzen eta han lanean ari izandako proiektu-motak artean hona iritsi gabe zeuden", azaldu zuen Innobasqueren Asteartean, Donostiako I+G+b Joxe Mari Korta Zentroan eta zientzia eta teknologiako enpresei eskainia izan zen saioan. Gainera, García ez zen bere maletan arazo bat zuela milurtekoa ixtera zihoan bakarra. Haren ikasleek ere bazuten beste bat: "Urte hartan aldi berean bi ingeniari-promozio irtetera zihoazen, eta horregatik kolokatzeko aukerak mugatuak ziren, zehaztu zuen.

Arazo-salda horretatik bidaia bat irten zen Europan barrena furgoneta zahar batean eta hartan Garciak proiektuak bilatu nahi zituen eta ikasleek lana bilatzen zuten. "Epe luzera emaitza oso polita izan da. Hortik lau start-upeko zuzendariak, kudeatzaileak, zuzendari teknikoak atera dira", aipatu zuen.

## Erakundeetan adina kudeatzea

Revista Emprendedores - 27/02/2013

Erakundeetan adina era egokian kudeatzea aukera bat da haiek lehiakortasuna hobetu dezaten, pentsio-sistemen gainek opresioa gutxitu dadin, belaunaldien arteko ezagutza-transferentzia gerta dadin eta adin gehiagoko pertsonek enplegagarritasuna hobetu dezaten. Hala geratu da agerian Innobasque-Berrikuntzako Euskal Agentziak Eudelen egoitzan antolaturiko "Adinaren kudeaketa erakundeetan" jardunaldian.



## 8.523 idées pour l'innovation au Pays Basque (Innovation)

Bulletins Electroniques - 15/01/2013

Ideia txiki batzuk errealitate eginak eta berrikuntza bihurturik dira "Minutu bat berrikuntzarako" ekimenaren emaitza; duela urtebete Innobasquek abiarazi zuen lankidetza-berrikuntzako ekimen hori berrikuntzaren kultura barreiatzeko asmoz. Enpresek eta euskal gizarteak bizi duten egoeraren konplexutasunaz jabeturik, beste behin agerian jartzen da berrikuntzak era funtsezkoan laguntze duela zailtasunei aurre egiten arrakastarako berme handiagoekin. Hala, era guztietako 79 erakundek jarri zuten praktikan beren minutua, eta horrek 170 erronka identifikatzeko aukera eman zuen, 8.523 ideiak haiek konpontzen saiatu zirelarik.



## Innobasque Exchangek bere hirugarren edizioa ospatu du

Noticias de Gipuzkoa - 27/03/2013

Innobasqueren egoitzak abegia egin zion Innobasque Exchangeren hirugarren edizioari. Networking aurreratuko ekimen horrek sareko berrikuntza eragin nahi du Innobasqueko bazkideena eta bazkideentzat. Gertaldi horren xedea honetan datza: beren proposamen berritzaileak aurkezten dituzten bazkideak sarean aurkitu ahal izatea haiek erabat edo zati batean aberastu eta egikaritzeko behar dituzten lankidetza eta itunak. Hirugarren edizio horretan zortzi izan ziren beren proiektuak aurkeztu zituzten erakundeak eta haientzat lankidetza-formula desberdinak bilatzen zituzten: bazkide komertzialak, enpresakoak, teknologikoak, inbertitzaile txikiak, kostu-banaketa, denbora-trukea, etab. Honako hauek dira beren proiektuak aurkeztu zituzten zortzi enpresak: Biobai, Doocuments, Byvox, TGI, Enkarterrialde, Atouch Interactive Table, Segurtasun Elektrikoko BG Sistemak eta BiKinCloud.

## Ongi egitearen garaipena

Revista Capital - 01/03/2013

Aldizkariak Capital sariak eman ditu Bilbok hiri, ekonomia eta gizarte bezala izan duen eraldaketaren omenaldi gisara. Sariek aitortu egiten dute lurralde horren bokazio industrial eta berritzailea. Iberdrola, Progenika, Bilboko Portua, Petronor, Bilbao Ría 2000, BBK, Sener, Idom eta Innobasquek eraman zituzten sariak Bilbo hiri moderno, jasangarri, dinamiko eta berritzaile bihurtzen egindako ekarpenarengatik. "Bilbo hiri ekintzailea da eta izerdi ekintzailea jariatzen da bilbotarren zainetatik. Horregatik, inor ez da harritzen Bilbok bi hamarkadatan bere burua berrasmatu izana", adierazi zuen Lobellek. Aldaketa hori, haren iritziz sendotu egin da klase gidari "zuhur" bat izateari esker eta udal-ekonomia "saneatu" bati - 2011an Udalak zor historikoaren 199 milioiak kitatu egin zituen- "Hiri arrakasta bat da bilbotar guztiena, enpresena, erakundeena... Hiritarren garaipen global bat da" gehitu zuen Juan Llobell argitalpen ekonomikoaren zuzendariak.






## Ikasle zornotzarrek saria lortu dute belaunaldien arteko harremanak sustatzeagatik

El Correo - 19/03/2013

Bigarren Hezkuntzako laugarren ikasturtea dabiltzan ikasleak Amorebieta-Etxanoko Karmengo Ama ikastetxean First Lego League, Innobasquek Euskadin antolatzen duen bokazio zientifiko eta teknologikoak eskola-ikasleen artean sustatzeko torneoko estatuko finalean aitortuak izan dira. Lehiaketa Tarragonako Kongresuen Jauregian izan zen eta guztira autonomia-erkidego desberdinetatik etorritako 33 ekipo elkartu zituen, zahartze aktiboa, gai nagusi baten inguruan. Ikastetxe zornotzarrak, Euskadiren izenean parte hartzen zuenak belaunaldien arteko harremanak bideratu eta sustatzera bideratutako proiektu zientifiko eta sozial bat aurkeztu zuen eta horrek irtenbide berritzaile hoberenaren saria irabazarazi zion.

## Gaurko proiektuak biharko eredu baterako

Expansión - 09/04/2013

Zenbait autonomia-erkidegok, orain hamarkada batzuk, berrikuntzan oinarritutako eredu ekonomiko baten aldeko apustua egitea erabaki zuten. Hori da Euskal herriaren kasua, eta bere baitan Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentzia du. Erakunde horrek Euskadiko I+G-a bultzatu nahi du programa askorekin. Horien artean dago Cleantech Innvest, teknologia garbiekin zerikusia duten proiektu berritzaileetan inbertitzaile-sare bat kudeatzen duen bulego tekniko bat. Inbertitzaileen artean honako enpresa hauek daude: Iberdrola, Repsol Energy Ventures edo Gamesa. "Aipatzen ari garen proiektuek askotariko teknologia mordoa dute beren baitan zeharretara doan ardatz komun batekin: ingurumenean eragin txikiagoa izatea", aipatzen du Luis Manero Innobasqueko programa-zuzendariak.

## Energia berriztagarriaren hazkundea aurreikusten dute gorabideko herrialdeetan

Notimex, Agencia de Noticias de México - 17/04/2013

Energia berriztagarria sortzea hazi egingo da datozen urteetan, eta horretarako gorabideko herrialdeak funtsezkoak izango dira proiektu berriak garatzeko, eta bat etorri ziren ideia horretan Iberdrola eta E.on europar enpresa elektrikoen ordezkariak. Cleantech Forum Europe nazioarteko gertaldian parte hartzean, Xavier Viteri, espainiar Iberdrolako Energia Berriztagarriko zuzendariak, Mexiko eta Brasilen kasuak nabarmendu zituen bere konpainiarako zeinetan dagoeneko obratzen baitute energia garbien proiektu batzuk. Enpresa-topaketa hori Bilbon egin da apirilaren 16tik 18ra Estatu Batuetako Cleantech Group eta Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentziak antolaturik.





## Merkatu-aukera berriak nanoteknologian

Deia - 21/04/2013

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko Sailak merkatu-aukera berriak sortzearen bila ibili da nanoteknologian erakundearekin, nanoBasque (SPRI) agentziaren eta Innobasque-Berrikuntzako Euskal Agentziaren bitartez, apirilaren 24 eta 25ean; nazioarteko lan-bilerak egin dituzte enpresen, teknologia-zentroen eta unibertsitateen artean nanoteknologiarekin zerikusia zutenak, ImagineNano 2013 esparruan gertatuko direnak. Biurteko azoka horren bigarren edizioa, Europan nanoteknologiaz eta nanozientziaz egiten den topaketa handiena, Bilbon egiten da, zeren eta Phantoms Foundation, lehiaketaren antolatzaileak honako iritzi hau baitu: "Euskadi bere indar-guneak erakusten ari da nanozientzian eta nanoteknologian eta aktore garrantzitsu bezala kokatzen ari da "nano" munduan, gorabideko eremu horretan eragile lider ugariri abegia eginez."

Consorcio de Inteligencia Emocional

## Innobasqueko Adimen Emozionalaren Partzuergoaren 5 jardun-lerro

Vida solidaria.com de El Correo.com - 30/04/2013

Adimen Emozionalaren Partzuergoak, osagai dituen askotariko kideen kopuru handiarengatik proiektu mordoa garatzen du. Guztiak bost jardun-lerroren esparruan kokaturik daude: komunitatearen kudeaketa, ikaskuntza, ikerketa-unitatea, komunikazio-aroa eta berrikuntza-ekipoak.



## Cleantech showcaseren teknologia garbien ekintzaileak

Globedia Perú - 21/04/2013

Innobasquek Cleantech showcase lehiaketa antolatu du Bilboko Alhondigan, Cleantech now! jardunaldiaren barruan, berrikuntza eta teknologia garbiak gazteengana hurbiltzeko, ekintzailetzaren bitartez. Epai-mahaiak Birzitza proiektua saritu du, Santurtziko San José Calasanz lanbide heziketa bizkaitar ikastetxeko Administrazio eta Finantzetako Goi mailako hiru ikaslek bultzatua. Proiektu horren zerbitzu nagusia hondakin plastikoak kudeatzea da (biltegiratze, jasotze eta ondoren garraiatzea). Cleantech now! Cleantech Forum Europe 2013 osatzen duen jardunaldi bat da apirilean Bilbon egin dena Cleantech Group eta Innobasqueren eskutik.





## Bilbok teknologia garbien mapa mamitsuan kokatzen du bere burua

Cinco Días - 25/04/2013

Euskal hiriburuak Cleantech Forum Europeri harrera egin dio, finantzazio bila dabiltzan inbertitzaileen eta proiektu berritzailedunen enpresen arteko topaketari. Negozio jasangarrietan soilik interesaturiko San Franciscoko inbertitzaile-talde batek antolatu zuen hitzordua orain arte Estatu Batuak, Asia eta Europaren iparraldean mugitzen ziren orain arte. "Sekula ez zen jaitsi hegoaldera, eta hala elkartzea erabaki genuen euskal enpresa nagusien artean eta berrikuntza zenbat clusterrekin Europan kokatzeko", aipatzen du Jose Maria Villate, Innobasqueko zuzendariak. Hitz batean, Alemaniak, Erresuma Batuak, Israelek, Estatu Batuek eta herrialde nordikoek sortu duten enpresa eta unibertsitateen arteko itun-lorratza jarraitu merkatua irabazteko.

## Berrikuntza soziala, Europaren garapen-eragile datozen urteetan

Europa Press - 28/06/2013

400 pertsona inguru izan dira "Gizarte berrikuntza, pertsonek sortu eta jaso egiten duen balioa" europar jardunaldian, Bilboko BBK aretoan Innobasquek antolaturik. Bertan elkartutako parte-hartzaile desberdinek adierazi dute berrikuntza soziala izango dela Europaren garapena eragingo duena datozen urteetan, lurralde kohesionatuak sortzeko duen gaitasunarengatik, kontinenteak premiatasunez ekin beharreko erronka larriei erantzuna emanez, hala nola biztanleriaren zahartzea, enplegua, gobernantza-ereduak, prestakuntza, klima-aldaketa, eta abarri. Ekitaldia Europar Batzordeak landutako "Berrikuntza Sozialerako Europar Gidaliburua" aurkezteko esparrua izan da. Halaber Innobasquek eta Sinnergiak-ek Resindex ezagutarazi dute, berrikuntza sozialeko erregio-indizea, Euskadin diziplina horren egoera neurtzen duen eredu propioa.

## Patenteek indartzen dute enpresen jarduera berritzailea

Infocalidad.net - 30/04/2013

"Patenteak, berrikuntza balioan jarria" Innobasqueren Asteartea, Donostiako Talent Housen eginak honako hau jarri du agerian: komunitate zientifikoa eta teknologikoak patenteak aitortzen dituela lurralde baten berrikuntza-maila neurtzen duten adierazleetako bat bezala; patente bat erregistratzean prozesu erabat berritzailea irekitzen da haren ezarpen industriala burutzeko. Horregatik, patente-sistemak asmakuntza eta aurrerapen teknologiko eta zientifikoa sustatzen ditu. Babesa eta esklusibotasuna eskaintzean asmatzaileei adorea ematen zaie ikerkuntzan inberti dezaten eta ondorengo berrikuntza-lanean, zeinek lortuko baitu berrikuntza horiek ezarpen praktiko bat izatea.



## Europar Batasunak manifestu bat hartu du zahartze aktiboaren aldeko elkarrizketa parte-hartzaileen ondorioekin

Esmartcity.es - 13/06/2013

World Café Europek sei elkarrizketa parte-hartzaile eta kultura-arteko garatu ditu beste hainbeste europar hiritan (Bilbao, Bonn, Praga, Londres, Bolonia eta Estrasburgo) 2012ko bigarren seihilekoan zehar, zeinean parte hartu baitzuten 50 eta 95 urte bitarteko 700 pertsonak baino gehiagok. Proiektuko bilera haien ondorioz gisa, zeinaren goiburua "Zahartze aktiboaren aldeko europar hotsak" baitzen, Europaren Zahartzeari buruzko Manifestu bat landu da, adinekoekin adiskidetsua den Europa bat sortzeko itxaropenak eta gomendioak laburbiltzen baititu. Europar Batzordeak datozen egunetan jasoko du manifestu hori gai horri buruzko politikak lantzeko oinarri izateko balioko duena. Innobasquek World Café Europerekin batera, Bilbon antolatu zuen topaketa eta bertan zahartze aktiboaren eta berrikuntza sozialaren inguruko auziei ekin zitzaien.




## Indizea aurkeztu da, berrikuntzako euskal indizea 2013ko Batzar Nagusian

El Economista.es - 29/05/2013

Lehendakaria eta Innobasqueko ohorezko presidentea den Iñigo Urkulluk Innobasqueko Batzar Nagusia inauguratu du, non aurkeztu baita Indizea, Berrikuntzako Euskal Indizea. Ekitaldian, non izan baitira Innobasqueko bazkideak, 60 bazkidez osatutako Zuzendaritza Batzordea berritzeari ekin zaio. Halaber, Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordioaren berri ere eman da, zeinen arabera Alberto García Erauzkin, Euskalteleko presidentea eta Batzorde betearazleko eta Berrikuntzako Euskal Agentziako Zuzendaritza Batzordeko kideak Guillermo Ulacia ordeztuko baitu presidentetzan zenbait hilabetetako errelebo-aldi baten ondoren.



## Crowfunding-a osasunean proiektu berritzaileak egiteko

Telecinco.es - 31/05/2013

Crowdsasuna Innobasqueren Efiosasun-dinamikaren finantzatze kolektiboko ekimen bat da, oro har, euskal gizarteko osasun- eta bizi-kalitatearen maila hobetzen laguntzen duten proiektu berritzaileetarako edo haren biztanleriako sektore jakin baterako, zeinak enpresek, elkarteek edo norbanakoek bultzaturik baitaude. Innobasquek crowfunding-a hautatu du proiektu horiek finantzatzeko modu berritzaile bezala, horretara pertsona kopuru handi baten inplikazioa eta lankidetza lortzen baitu.

# Seihilekoko argitalpenak







## Adinaren kudeaketa Euskadiko erakundeetan gidaliburua

Egilea: Innobasque
Data: 2013 urtarrila

Gidaliburu honek lehenik, ibilbide-orri bat eratu nahi du erakundeetan adina kudeatzeko, pertsonak bertara sartzen direnetik irteerara berera arte, eta eremu horretan aldez aurretik garatutako esperientzien oinarritik egiten du hori, gomendio horiek beste erakunde batzuetan arrakasta izan duten ekimenez ilustratuz. Gainera, administrazio publikoentzako gomendioak ere badakartza halaber, adinaren kudeaketa inplementatzen laguntzen dutenak, adineko pertsonen lanaren balioespeneko kultura sozial bat sortuz eta belaunaldi arteko fokapen positibo bat sustatuz.

## Zahartze aktiboaren aldeko europar ahotsak

Egileak: Innobasque eta World Café Europe
Data: 2013ko maiatza

“Zahartze Aktiboaren aldeko Europar Ahotsak” proiektuaren ondorioen agiri-laburbilduma, World Café Europe lider izan duena, barruti guztietan adineko pertsonen partaidetza aktiboa sustatzeko xedearekin, 50 urte baino gehiagoko pertsonen produktibitatea eta ahalmen sortzailearen inguruan ikusmolde komun bat sortzeko. Sei gai funtsezko zahartze aktiboaz, europar aniztasun kulturalaz, sei herrialde, hizkuntza ugari...hori guztia ahots komun bat sortzeko konbinatua Europako zahartze aktiboaren ahalmenari buruz.

## Berrikuntza-ekipotan lan egiteko entrenamendua: ekipoa eta erakundearentzako etekinak

Egileak : Innobasque eta UPV/EHU
Data: 2013 maiatza

Ikerkuntza hau honako honetan zentraturik dago: nola prestatu berrikuntza-ekipoak erakundeetan eta ekipo horiek beharrezkoak diren baldintzetan funtziona dezaten. Lanaren xedea dinamika eta teknika desberdinen ezagutza eta ulerkuntza zabaltzea da, pertsona eta erakundeei zuzenduak, zeinek nahi baitute berrikuntzaren ibilbidean eta pertsonengan oinarritutako kudeaketa-dinamiketan sartu, berrikuntza-ekipoak pertsonen eta erakundearen beraren eraldaketako funtsezko unitate bezala hartuta.
Testuan honako hauek jasotzen dira: abia-puntuko egoera, hipotesiak eta lan-metodologia, emaitza kuantitatiboak eta kualitatiboak, ikaskuntzak eta enpresetako batzuek ikerkuntza-ekintza honetako beren partaidetzan bizi izandako esperientziak.




## Resindex, Regional social innovation index

Egileak : Innobasque eta Sinnergiak Social Innovation (UPV/EHU)
Data: 2013 ekaina
Ikerketa pilotua Innobasque, Berrikuntzako Euskal Agentzia, Euskadiko berrikuntzaren ebaluazio-ekimenean txertatua, eta Sinnergiak Social Innovationek (UPV/EHU) zuzendua eta garatua izan dena Agentzia berarekiko lankidetzan. Proiektu honek eredu bat (dimentsioak eta adierazleak) landu nahi du berrikuntza sozialeko erregio-indize bata garatzeko eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren testuinguruan hura baliozko bihurtzeari ekiteko.



## Euskadiko zientziari buruzko txostena

Egilea: Ikerbasque
Dokumentu honek emaitza-adierazle nagusiak islatzen ditu gure inguruneko ekoizpen zientifiko eta ikertzailearen barrutian, 2004-2012 urteak hartzen dituen denboraldi batean, eta Euskadin abian jarri diren zientzia, teknologia eta berrikuntzako azken planen efektuak estaltzen dituena.




## Euskal Herria 2013 Lehiakortasun Txostena

Egilea: Orkestra
Euskal Herria 2013 Lehiakortasun Txostenak azterlan sakona burutzen du funtsezkoak diren sei lehiakortasun-palankari buruz, zeinen gainean EAEk jokatu beharko lukeen bere ekonomiaren eraldaketa produktiboan. Txostenak bere baitan ditu gainera EAEko eraldaketa produktiboaren estrategiak izan beharko lituzkeen zertzeladei buruzko gogoeta bat, nola gaur eguneko abagune-arazoak gainditzeko hala garapen ekonomiko jasangarria epe luzera bermatzeko.




## Berrikuntzako gai goriak

Egilea: PricewaterhouseCoopers
IBEXeko korporazio handiak, 1.000 enplegatu baino gutxiagoko konpainiekin batera, dira Espainian gehien inbertitzen dutenak berrikuntzan. Espainiar merkatuak desberdintasun nabaria islatzen du IBEXeko, 1.000 enplegatu baino gehiago dituzten konpainia handiek I+G-ean egiten duten inbertsioaren eta gainerakoek egiten dutenaren aldean.



## Azterlan kualitatiboa zahartzeaz, etxebizitzaz eta inguruneaz

Egilea: Eusko Jaurlaritza eta INGEMA
Txostenak ikerketa kualitatiboaren emaitzak jasotzen ditu, zeina burutu baitute Ingema Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzak, zahartze-prozesuaren, egoitza-ingurunearekiko inplikazioen eta esku-hartzeko geroko ahalbideen inguruan. Azterlanak lagundu egin nahi du pertsonarengan oinarritutako paradigma integral berria perfekzionatzen, zeinen arabera adineko pertsonen artapena nabarmen hobetzen baita itxaropen pertsonalei jaramon egitea posible denean eta bizi-kalitate kontzeptuaren baitan sartzen diren faktoreak kontuan hartzen direnean.




## Norabidea 2012

Egileak: Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Merkataritza Ganbara
Azterlan honetako datuen arabera beren negozio-planetan berrikuntza sartzen duten Bizkaiko enpresen soslaia berriki sortutako enpresei zerbitzu-sektorean ari direnei, jarduera esportatzailearekin eta sarrarazte edo hazte-faseko produktuak dituztenei dagokie.



## Innovation Union Scoreboard 2013

Egilea: Europar Batzordea
IUS-a Europar Batasuneko 2020 estrategiaren inplementazioa monitorizatzen laguntzen ari diren tresnetako bat da, herrialde desberdinen ahalegin berritzailearen, bai eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako sistemetan bakoitzak dituen indar-guneen eta ahulguneen ebaluazio konparatuaren bitartez. IUSaren 2013ko edizioan Suedia, Alemania, Danimarka eta Finlandia datoz rankingaren buruan, “berrikuntza handiko” herrialdeen taldea eratuz: aldiz, Espainia 16 postuan dago, “berritzaile moderatuen” artean, Grezia, Hungaria, Italia eta Portugalekin batera, besteak beste. EUSTATek eskainitako datuen arabera, Euskadi IUSen 2013an azterturiko herrialdeekin konparatuko bagenu, 15 postua izango luke, “berritzaile moderatuen” eta “berrikuntza handiko” taldeen artean kokatuz, 0,48ko indize batekin 0, 54ko batez bestekoarekiko. Europar batez bestekoaren azpitik dagoen kokagune hori gorabehera, Euskadi azken urteotan hobetze banari erakusten ari da bere ahalegin berritzailean, zeren eta 2006tik haren puntuazioa urtero %2,8ko erritmoan haziz etorri baita, europar batez besteko hazkuntza halako bi baino gehiago (%1,3).



## The Sustainability Yearbook 2013

Egileak: RobecoSAM eta KPMG
Dokumentu honek 58 sektoretako 3.000 enpresa handienak analizatzen ditu, eta maila globalean enpresa jasangarrienak direnen eta sektoreko liderren sailkapen bat dakar bere baitan. Enpresen zerrendan Gamesa Corp Tecnológica, Gas Natural, Iberdrola, eta Repsol ageri dira beren sektoreko lider bezala.




## Global Innovation Barometer 2013

Egilea: General Electric
Inkesta honek agerian jartzen du enpresen, talentuaren eta politika publiko egokien arteko lankidetza direla berritzen jarraitzeko gakoetako batzuk. Faktore horiek lagundu egiten dute enpresek lehiakorrak izaten eta itzulkin ekonomikoak sortzen jarrai dezaten. Inkesta horren berorren arabera berrikuntza maila handiena dutenak EE.BB (%35), Alemania (%15), Txina (%12), Japonia (%11) eta Hego Korea (%5) dira. Berrikuntzaren hiru elementu handiak honako hauek dira: bezeroak ulertzeko eta merkatuaren bilakaera aurreratzeko, pertsona berritzaileak erakarri eta mantentzeko, eta teknologia berria garatzeko gaitasuna.



## Espainiar enpresa nazioartekotzearen 2012 urtekaria

Egileak: Círculo de Empresarios eta Wharton School
Argitalpen honek helburu bikoitza du: atzerriko espainiar enpresen jarduerari pultsua hartzekoa eta, aldi berean, nazioartekotze-erabakia, kanpora irteteko pauso erabakigarri hori oraindik hartu ez dutenak animatzekoa, funtsezkoa baita haien garapen eta biziraupenerako. Elkarren arteko ahalegin horrek emaitza hau eman du: gure mugez harago gure enpresen bilakaeraren behatoki bikain bat sendotzea.



## Guide to Social Innovation

Egilea: Europar Batzordea
Gidaliburu honek berrikuntza sozialaren esanahia definitzen du eta gakoak ematen dizkiete agintari publikoei haiek bultzatzeko, Europar Batasunaren lehiakortasunerako funtsezko estrategia bat baita zerbitzu sanitarioak, hezkuntza, zahartzea edo klima-aldaketaren gaietan. Erregioetan bereziki zentraturiko argitalpen honek, hamar pauso praktiko ere badakartza berrikuntza soziala inplementatzen lagundu dezaketenak. Halaber, europar ekimen desberdinak jasotzen ditu berrikuntza sozialeko eremu desberdinetan, eta haien artean hiru euskal esperientzia daude: Innobasque (Euskadirako berrikuntza sozialeko bere estrategiarekin), Denokinn eta Eutokia.



## The most innovative companies 2012

Egilea: Boston Consulting Group
Berrikuntza aurpegi askotarikoak ditu, dagoeneko badiren produktuetan mailatutako aldaketak egitetik bezeroentzako eskaintza erabat berrietaraino. Enpresek ezagutza berriak ere erabiltzen dituzte antolakuntzan beren errendimendua gehitu, araudia betetzea, jasangarritasuna hobetu eta errentagarritasuna estimulatzea segurtatzeko. Baina, era batera edo bestera, berrikuntzak helburu garbia du arrakastako enpresentzat, ideietatik balioa sortzea, munduarentzat edo enpresa jakin batentzat berriak badira ere.



## Kronikotasunari ekiteko estrategia

Egilea: Osasun Ministerioa
Estrategia honek helburuak eta gomendioak finkatzen ditu, zeinek ahalbidetuko baitute zerbitzuen antolakuntza biztanleriaren osasuna eta haien determinatzaileak hobetzera bideratzea: osasun-baldintzen prebentzioa eta izaera kronikoko jarduera-mugapenak eta haien artapen integrala. Horrek fokapen-aldaketa ekarriko du Osasunaren Nazio Sisteman, zeina gaixotasunean zentratua egotetik pertsonengana orientatzera pasatuko den.



## The GEM 2012 Global Report

Egilea: GEM
Urteko txostena 69 herrialdetako jarduera ekintzaileari buruz. Nazioarte-mailako adierazleak hornitzen ditu txostenak, nazioarteko migrazioaren eragina analizatzen du jarduera ekintzailean eta ekintzaile izateko baldintzen diagnosia egiten du. Txostenaren arabera mundu osoko ekintzaileen ia erdiak 25tik 44 urte bitartean aurkitzen dira, eta aztertutako gune geografiko guztietan, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonak ekintzaile-jarduera handiena erakusten dutenak dira.



## The European health report 2012

Egilea: Osasunaren Mundu Erakundea
Txosten honek osasuneko hobekuntza globalak deskribatzen ditu OMEren Europar Erregioan eta haien banatze desberdina herrialdeen artean eta haien barruan. Txostenak bide berri bat urratzen du nola ongizatea, europar osasun-politika berriaren (Health 2020), helburu bat definitzen hala 2020 arte helburuak lortzeko bidea markatzen.



## I+G-eko zentroak lokalizatzeko faktoreak gorabideko herrialdeetan eta Espainiako abantaila lehiakorren analisia

Egilea: FECYT
Txosten honek gorabideko herrialdeetako enpresa multinazionalen I+G-eko hedapenak determinatzen dituzten elementuak aztertzen ditu, bai eta inguruneko herrialdeetan ere, eta Espainiak haien aurrean dituen abantaila lehiakorrak ere Txostena FECYTek egina da eta Fundación Innovación Españak (I+E) eta Bartzelonako Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Antolakuntzako Saileko ikerketa-ekipoak koordinatua.



## Kapital soziala eta berrikuntza Europan eta Espainian

Egilea: COTEC
Ikerketa-azterlan honek jarduera-gidaritza bat eskaintzen du, zeinek berrikuntzari hobekien laguntzen dion kapital sozialaren partea indartuz, espainiar gizartearen kultura ekonomiko, politiko eta morala eraldatuko baita, ekonomia lehiakor eta dinamikoago bat garatzeko xedearekin, geure geroari baikortasun eraberrituz aurre egitea ahalbidetuko diguna.

# Innobasqueren balioa ...
# gure bazkideak

2013ko lehen seihilekoan
**41 erakunde berri** gehitu zaizkigu eta
ongi etorri esaten diegu.

**97 S&F**
Enpresa eta erakunde publikoentzako aholkularitza nazio- eta nazioarte-mailan balio erantzi handikoa estrategia, berrikuntza eta kudeaketarekin zerikusia duten arloetan.
97sf.es

**AGROTRAVEL TURISMO RESPONSABLE**
Turismo arduratsu eta jasangarriaren printzipioak aplikatzen dituen bidaia-agentzia munduko edozein jomugatan eta edozein bidaia-motatan, tokiko biztanleriak eskainitako zerbitzuen kontsumoa indartuz.
turismoresponsable.es

**AKASA (MOBLES22)**
Denda-kate bat, espainiar enpresa berritzaileenetako bat bezala kokatzea lortu duena eta aldi berean, aitzindaria dena etxea altzariz hornitzen.
akasamuebles.com

**ALES LANDETA - GAIZKA MUÑOZ (SIROPE)**
Diseinu eta sormen aplikatuko estudioa, irtenbide irudipentsuak hornitzen dituena produktu eta zerbitzu efiziente, errentagarri eta praktikoak garatzea ahalbidetzen duen diseinuaren fokapen integral bat erabiliz.
siropeprojects.com

**ALKARTASUNA FUNDAZIOA**
Irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatua Euskal Herria nazio bezala sustatzeko, eta hazkuntza harmonikoa haren dimentsio politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalean, bai eta pentsamendu garaikideko korronteen azterlanak sustatu eta burutzen dituena, garapenaren lankidetzarako ekimen sozialak estimulatuz.
alkartasunafundazioa.org

**ARANA - BEREZIARTUA ARQUITECTOS**
Arkitektura-estudioa eraikuntza, hirigintza, interiorismo, paisajismo eta diseinuan espezializatua, zeinen helburua bikaintasuna bilatzea baita diseinu arkitektonikoan sotiltasun, askatasun, pluraltasun eta aniztasun sortzaileetik.
aranabereziartua.com

**BIOFUNGITEK**
Jatorri naturaleko fungizida kimikoak garatu eta merkaturatzen espezializatutako enpresa teknologia berritzailez lortutako nekazaritza-lantze, uzta-oste eta desinfekzioan.
biofungitek.com

**BOMBAIWORKS**
Eraikuntza, instalazio, eraikin eta monumentu-eraberritzeen diseinu grafikoa, kudeaketa eta zuzendaritza.
bombaiworks.com

**CDE – ADIMEN LEHIAKORRA**
Zaintza eta adimen teknologiko, lehiakor eta estrategikoa, jabetza industrial eta intelektuala, teknologia-transferentzia eta berrikuntzaren kudeaketarekin zerikusia duten aholkularitzan, prestakuntzan, softwarea eta zerbitzuekin aritzen den enpresa, bai eta enpresa-kudeaketan prestatzen eta aholkatzen ere.
cde.es

**DTS-OABE**
Ingurumen- eta elikadura-osasunerako, legionelaren kontrolerako eta egurrarren babeserako produktu biozidak garatu, fabrikatu eta merkaturatzen dituen laborategia.
dts-oabe.com

**DUALIA TELEITZULPENAK**
Tele-itzulpeneko edo interpretazioko zerbitzuak hornitzen dituen enpresa denbora errealean telefono bidez 50 hizkuntza baino gehiagotan.
dualia.es

**ELKARKIDETZA**
Aurreikuspen Sozial Borondatezko Erakundea (ASBE) Segurantza Sozial Publikoaren pentsioak osatzea helburu duena euskal erakunde, antolabide eta sozietate publikoek erabilitako langileriarentzat
elkarkidetza.net

**FLIPOVER.ORG**
Crowfundig-eko plataforma erronka sozial, irtenbideen diseinu eta egoera horien diseinu berriak identifikatzen aritzen dena.
flipover.org

**FUNDACIÓN ANESVAD**
Gobernuz kanpoko garapenerako erakundea (GKGE) osasuna oinarrizko eskubide bezala ulerturik osasuna sustatu eta babesteari laguntzeko helburua duena.
anesvad.org

**FUNDACIÓN BCMATERIALS - BASQUE CENTER FOR MATERIALS, APPLICATIONS AND NANOSTRUCTURES**
Zentro honek ikerketaren alderdi guztiak hartzen ditu propietate elektriko, magnetiko eta optiko aurreratuak dituzten material funtzionaletan; oinarrizko alderdietatik haien ezarpenetarainokoak.
bcmaterials.net

**GETXO KIROLAK - GETXOKO UDALA**
Getxoko Udaleko erakundea, zeinek kudeatzen baititu nola udal-kiroldegiak hala kirol zaletu, eskolako eta federatuaren barrutian garatzen den jarduera.
getxo.net

**GETXOKO UDALA**
getxo.net

**GOIZPER**
Kooperatiba-mugimenduaren inguruan sortutako enpresa, produktu nagusien bi lerro fabrikatzen espezializatua: nekazaritzan eta lorezaintzan erabiltzeko lurringailuak eta potentzia-transmisiorako osagaiak.
goizper.com

**IGURCO GESTIÓN**
Euskadiko proiektu sozio-sanitarioak garatu eta ustiatzeko enpresa, adineko pertsonen barrutian behar erreal sozio-sanitarioak asetzeko helburuarekin.
igurco.es

**INNOBAK SYSTEMS**
Eduki teknologiko handiko enpresa, izaera berritzaile industrialekoa, dauden kutsadura-arazoak konpontzera bideratua.
facebook.com/innobak

**INNODEVICES**
Ikus-entzunezko gailu eta bitarteko guztiz berritzaileen diseinua eta fabrikazioa. Enpresa Activa Media Systems markaren jabea da ukitzezko gailuen banatzailea eta fabrikatzailea.
innodevices.es

**ITRAIN GLOBAL**
Aurrez aurreko prestakuntza-ikastaroak kontratatzeko plataforma prestakuntzako gidari eta profesionalen eta enpresen, erakundeen eta prestakuntza-zentroen artean.
itrain-global.com

**JESUSEN BIHOTZA UDAL EGOITZA - GETXO UDALA**
Getxoko Udalaren erakunde autonomoa izaera publikoko zerbitzu sozial bat ematen duena adineko pertsona mendekoentzat.
getxo.net/es/residencia

**KRONIKOTASUNARI BURUZKO NAZIOARTEKO IKERKETA ELKARTE ZENTROA - KRONIKGUNE**
Ezagutza berria sortzeko elkartea Euskal Herrian eta beste osasun-sare batzuetan kronikotasunaren aurrean estrategiak ezartzea eta berritu, hobetu edo azeleratzea ahalbidetzen duena.
kronikgune.org

**KUALITATE LANTALDEA**
Erakunden eta gizartearen arteko harremanak hobetzearekin konprometitutako aholkularitza, zerbitzuen ikuspegi integralarekin, diagnositik ebaluazioraino doan, plangintzatik eta kudeaketatik pasatuz.
kualitate.com

**KULTURA GELA - GETXOKO UDALA**
Getxoko Udalak hiritarren eskura jartzen duen gunea prestakuntza eta hedapen kulturalerako.
getxo.net/es/aula-de-cultura

**MUSIKA ESKOLA - GETXOKO UDALA**
Getxoko Udalaren erakundea musika-jardueraren ezagutza eta praktikara hurbiltzea hiritarrei ahalbidetzen diena.
getxo.net/es/musika-eskola

**OCEANTEC ENERGÍAS MARINAS**
Tecnalia teknologia-korporazioaren spin-off-a Iberdrola taldea ere partaide duena, zeinen jarduera teknologia propioa garatzen zentratzen baita offshore bihurgailu flotakor bat sortzeko elektrizitatea eratzeko olatuen energia baliatzen duena.
oceantecenergy.com

**OSASUNA MUGIMENDUA KONTROLA (MUGIK-ON)**
Jarduera fisikoa eta osasuna sustatu, banatu eta ikertzeko ekimena, gure gizartea osatzen duten pertsona guztiek bizi-kalitatea eta osasuna hobetu eta luzatzea ahalbidetzen duena, haien beharretara egokitutako jarduera fisikoaren bitartez
mugik-on.com

**POSICIONAMIENTO ESTRELLA**
Komunikazio-irtenbideak sortzen espezializatutako enpresa agentzia, enpresa, erakunde eta pertsonentzat, 4 lan-arlorekin: editoriala, komunikazioa, neurrirako komunikazio-proiektuak, eta marketina eta publizitatea.
posicionamientoestrella.com

**PROYECTOS LABOR NORTE**
Esportazio eta inportazioan ari den enpresa.

**PRYSMA CALIDAD Y MEDIOAMBIENTE**
Negozio-aholkularitza eta ebaluazioko zerbitzu profesionalak ematen dituen konpainia.
prysma.es

**QUALITY AND ORGANIZATIONAL RESEARCH**
Ezagutza sozialeko enpresa kontsumitzaile, bezero eta merkatuei aplikatua, zeinen helburua zientzia sozialen ezagutza guztiaren ekarpena bere bezeroei egitea baita, IKTen laguntzarekin, lehiakorrago bihurtzeko.
quor.es

**SABOURDIN SOFTWARE**
Gama altuko teknologia behatu, ikertu, probatu eta aplikatzen aritzen den enpresa softwarearen eta web ezarpenak garatzeko.
cysnet.es

**SINNERGIAK SOCIAL INNOVATION**
Berrikuntza Sozialeko Zentroa UPV/EHUren ikerketa-taldeak bultzatuta jaio dena erregio- eta nazioarte-pertsona eta erakundeen artean sinergia sustatzeko bokazioarekin Euskal Herrian berrikuntza sozialeko proiektuak eta esperientziak aurrera eramateko.
sinnergiak.org

**SOFTEC TELECOM - CAMP TECNOLÓGICO**
Heziketa-proiektua, gazteenen zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematikekiko interesa esnatzearen helburua bilatzen duena.
camptecnologico.com

**SUSTAPEN EKONOMIKO ETA ENPLEGU ZERBITZUA - GETXOKO UDALA**
Getxolan Getxoko Udalaren Sustapen Ekonomiko eta Enplegu Zerbitzuak honako helburu hauek ditu: enplegua sustatzea, enpresak sortzea eta sustapen ekonomikoa Getxoko udalerrian.
getxo.net/es/getxolan

**TECHABOUT**
Produktu berritzaileak garatzen dituen start-upa, hardwarean eta softwarean oinarrituak, pertsonei beren inguruneetan bizimodua errazago bihurtzen diena (aisia, osasuna, hezkuntza, lana...), teknologia ez intrusiboan integrazioari esker ohiko erabilerako gauzakietan.
techabout.es

**TRADUCTORES E INTERPRETES**
Prestakuntza handiko itzulpen- eta interpretazio-zerbitzua azken belaunaldiko lanabes informatikoekin, hizkuntza-behar desberdinak konpontzeko.
tisasa.es

**UNIVALUE VALORIZACIÓN**
9 unibertsitatek eratutako taldea (Cantabria, Gaztela-La Mancha, Extremadura, Illes Balears, La Rioja, Oviedo, Euskal Herria, Nafarroako Publikoa eta Zaragoza) bi arlo ongi desberdindu baina osagarrietara beren jarduerak bideratzen dituztenak: patenteak eta teknologiak balorizatzea, eta produktu horiek merkaturatzea.
univalueg9.com

**WATTIOCORP**
Energia aurrezteko sistema berritzaile bat garatu, fabrikatu eta saltzen duen enpresa, nola elektrizitatearen kontsumitzaileei hala elektrizitate-konpainiei.
wattio.com

# Innobasqueren astearteak
# Los martes de Innobasque

**Zatoz** eraldatzen duten proiektuak ezagutzera…
…non ezagutzen diren **berrikuntza** egiten duten pertsonak…
…ikasten dutenengandik **ikasteko**…




<u>Hurrengo hitzorduak berrikuntzarekin:</u>

Iraila: Hezkuntza-berrikuntza
Urria: Emakume berritzaileak
Azaroa: Hizkuntzaren industriak
Abendua: Osasuna, lehiakortasunaren iturri Euskadin

EZ GALDU AUKERA!

innobasque